





asociación de escritores  en lingua galega

Escrita Contemporánea

XXXIV Galeusca. O imaxinario na literatura

XXXIV Galeusca O imaxinario na literatura



Galeusca

Consello Directivo da AELG

Presidencia: Cesáreo Sánchez Iglesias
Vicepresidencia: Antía Otero
Secretaría Xeral: Mercedes Queixas Zas
Tesouraría: Marta Dacosta
Vogalía de Lugo: Isidro Novo
Vogalía de Pontevedra: Lucía Novas
Vogalía da Coruña: Francisco Souto
Vogalía da Coruña-Ferrol: Henrique Rabuñal
Vogalía de Ourense: Xerardo Méndez
Vogalía de Relacións coa Lusofonía: Carlos Quiroga
Vogalía de Relacións Internacionais: Xavier Queipo
Vogalía de Literatura de Tradición Oral: Antonio Reigosa

Secretaría Económica e Técnica

Ana M. Carril Vázquez e Ernesto E. Calo

Edita: Asociación de Escritores en Lingua Galega
www.aelg.org / oficina@aelg.org
<http://galeusca2007.aelg.org>

Apéndice fotográfico

Héctor Fernández (Olo de vidro)
A.C. Alexandre Bóveda

Fotografía da capa

Paco Vilabarro

Depósito legal: VG-1293-2005

ISSN 1989-7340

Impresión e acabamento: Norprint Artes Gráficas. 4780-583 Santo Tirso



XXIV Galeusca
Asmatuzkoa literaturan
L'imaginari en la literatura
O imaxinario na literatura

Encontro de escritores/as de Euskadi, Cataluña e Galiza

Lugo-Mondoñedo
Novembro de 2007

	éuscaro	catalán	galego
O imaxinario na literatura			
Cesáreo Sánchez Iglesias, Presidente da Aelg	7	157	307
As fontes do imaxinario			
Iratxe Retolaza	15	163	313
Alfons Llorenç	27	175	325
Xosé Miranda	41	189	339
Roteiro por Lugo (Lois Diéguez)	49	197	347
Os clásicos do imaxinario			
Caterina Valriu	55	203	353
Joxemiel Bidador	63	211	361
Darío Xohán Cabana	75	223	373
O imaxinario na literatura actual			
Xabier Gantzarain	89	237	387
Francesc Serés	99	247	401
María Xesús Nogueira Pereira	107	255	409
Textos de creación: Poesía (P) Teatro(T)			
Ramon Guillem (P)	119	269	421
Aritz Gorrotxategi (P)	125	275	427
Jaume Miró (T)	131	281	433
Marica Campo (P)	137	287	439
Montserrat Rodés (P)	141	291	443
Oier Guillan (T)	145	295	447
Medos Romero (P)	149	299	451
Juan Ramon Makuso (P)	151	301	453
X. Henrique Rivadulla (T)	153	303	455

Poemas de Manuel María lidos en Outeiro de Rei	459
Palabras pronunciadas polos Homenaxeados	
Basilio Losada	467
Xosé Estévez	471
Apéndice fotográfico	475

Traducións catalán-éuscaro: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak SL

Traducións galego-éuscaro: Iratxe Retolaza

Traducións éuscaro-catalán: Daniel Luján e Xabi Strubell

Traducións galego-catalán: Xulio Ricardo Trigo

Traducións éuscaro-galego: Iratxe Retolaza, José Luís Padrón, Xoan Alonso

Traducións catalán-galego: Lluïsa Soaz

Revisión lingüística: Ernesto E. Calo

A vixésimo cuarta edición do Galeusca celebrouse na cidade de Lugo, cuxas murallas son patrimonio da humanidade, e na vila de Mondoñedo entre os días 1 e 4 de novembro de 2007 para, ao longo de tres días de irmandade compartida, ver renovados os necesarios azos de quen representamos esoutra faciana “periférica” tantas veces amortecida desde a miraxe centralista e negadora.

Velaquí o volume que nace hoxe coa vontade de recoller as imaxes, as palabras e as emocións partilladas nestas xornadas de reflexión e debate, convocados ao redor do imaxinario nas nosas literaturas, a quen considerar fonte e canle das nosas esencia literarias.

O imaxinario nace nas culturas a partir da vital intención de comunicar, do desexo de expresar aos demais aquilo que traspasa os límites da realidade tanxíbel.

Velaí o pouso do noso encontro, das nosas reflexións, da semellanza e da diferenza da nosa xénese imaxinaria: as súas fontes, os clásicos do imaxinario nas nosas literaturas e a actualidade dos nosos propios imaxinarios, porque a literatura está a mudar sempre e a afrontar o destino dos novos tempos, ora desde a converxencia ora desde a máis construtiva diverxencia.

Velaquí tamén a lembranza gráfica *ad futurum* da merecida homenaxe, como acto de sincero agradecemento ao noso poeta nacional Manuel María, amplamente coñecido humana e literariamente en Euskal Herría e os Países Cataláns, e en quen ollamos a palabra poética como reivindicación dos sinais de identidade propios irrenunciábeis.

A necesaria homenaxe das tres literaturas irmandadas ao redor de Galeusca ao poeta que nos aprendeu a coñecérmonos e reencontrármonos afirmándonos no idioma que “é a chave coa que abrimos o mundo”.

Cumpría tamén nesta XIV edición de Galeusca manifestarmos o noso agradecemento público aos galegos Xosé Estevez e Basilio Losada, porque desde a súa biografía vital e profesional falaram por nós e desde nós, en Euskal Herría e nos Países Cataláns, mais tamén aí, neses espazos xeográficos e humanos, (re)aprenderon e aprehenderon para si orgullos e competencias que no seu propio país lles foron negadas polas institucións daquela altura. Velaí a razón do noso fraternal agradecemento.

Saúde, ledicia e amizade para os nosos países.

Cesáreo Sánchez Iglesias,
Galegozko Idazleen Elkarteko Lehendakaria



Iratxe Retolaza



Alfons Llorenç



Xosé Miranda


Caterina Valriu



Lois Diéguez

Joxemiel Bidador





Darío Xohán Cabana

Xabier Gantzarain



María Xesús Nogueira Pereira



Ramon Guillem



Francesc Serés



Aritz Gorrotxategi



Jaume Miró



Marica Campo



X. Henrike
Rivadulla



Oier Guillan



Montserrat Rodés



Medos Romero



Juan Ramon Makuso

Txostenak

Asmatuzkoaren iturriak

Iratxe Retolaza Gutiérrez

Donostia, 1977.

Euskal filologian lizentziatua. EHUⁿ eta USCⁿ Doktorego ikasketak egiten dihardu.

Honako liburu hauek argitaratu ditu: *90eko hamarkadako narratiba: literatura kritika* (Labayru, 2000), *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza* (Utriusque Vasconiae, 2002).

Honez gain, literatura iruzkingile lanetan dihardu Berria egunkarian.

Iruditeriaren iturriak euskal literaturan

Gaurko hitzaldi honen gaiari lotu aurretik, pare bat ohar pertsonal egiteko premia dut.

Batetik, eskerrak emateko premia. Euskal Idazleen Elkarteari lehenik, topaketa hauetan parte hartzeko gonbidapena luzatu zidalako, eta are gehiago, orain arte gehiegi jorratu gabeko gai interesgari eta mamitsu batean lehen urratsak egiteko aukera zabaldu zidalako, nigan ez zen irrika berri bat piztuz. Eta bigarrenik, eskerrak, zuen artean egon ezin naizen honetan, hitzaldi hauxe irakurtzen ari den lagun horri.

Bestetik, barkamenak eskatzeko premia ere badut. Topaketa hauetan egoteko hitza eman, eta zuengana hurbildu ezin izan dudalako. Eta ezusteko honek sorrarazi dituen eragozpen guzti-guztiengatik, barkatu.

Beude hortxe neure barkamen-eske eta eskerrik beroenak.

Bi ohar hauek egin ondoren, abia gaitzen, bada, mintzagai dugun gaia jorratzera. Gogoan dut, gai hau jorratzeko proposamena egin zidatenean erabat despistaturik harrapatu ninduela kontuak. “Iruditeriaren iturriak euskal literaturan”, gai zabala oso, eta gainera, milaka eta milaka ertzetatik tiraka eginez jorra daitekeena. Gai gertukoa eta urrunekoa sentitzen nuen, eta galdera horixe buruan? Ba al dut zer esatekorik gai honen inguruan? Aitortu behar dut, hortaz, honako hitzaldi hauxe dela iruditeriaren inguruan eginiko nire lehen gogoeta

luzea eta egituratua, orain artean eremu landugabea zela niretzat. Nire lagun batek dio, halako etsipen tonu batez, euskaldunak *orologoak* garela maiz, maizegi. Orori buruz iritzia emateko joera dagoela gurean errotuta. Landugabeko eremuetan ia lanabesik gabe ausart abiatu ohi garela, eta askotan lotsagabe. Hala xe dio lagunak, penatuta, eta arrazoi eman nik. Barkatuko nau lagunak, *orologiarako* joerak ere harrapatu ninduelako ni gaia proposatu zidaten hartan, eta erronka onartu. Bedi saio hauxe *orologio* baten agurra. Aitortu behar dut, bestalde, honako topaketa hauek aukera hori zabaldu eta eman didatela, eta iruditeriaren eremuan buru-belarri sartzeak liluratu nauela, eta interes berria piztu du nigan. Hortxe doa, bada, iruditeriaren itsaso zabal honetarako eginiko nire lehen sartu-irtena (ez dadila azkena izan).

Halako itsaso zabalean haztaka ibili aurretik, beharrezkoa da erabiliko ditugun galbaheak edo irizpideak aipatzea. Galbahe horiei esker erabaki dudalako hitzaldi honetan zein portu izango ditudan geltoki eta zeintzuk ez. Lehen galbahe hori, iruditeriaren inguruko ikuspegia da, iruditeriari emango diodan adiera gaurko honetan. Iruditeria edo *imaginarioa* deiturikoak adiera ugari hartu ditu erabili izan den jakintza-eremuaren arabera, eta batez ere bi eremu nagusi hauek jorratu izan den kontzeptua dugu, psikoanalisi (Jacques Lacan...) eta antropologia (Gaston Bachelard, Gilbert Dürand,...). Lehen eremuak, psikoanalisiak, Iruditeria pertsonaren egitura psikikoaren elementuetariko bat du, eta banakoaren maila horretan egin ditu ekarpenik garrantzitsuenak. Euskal literaturara hurbiltzeko ere bide hori har genezake, alegia, idazle jakin batek erabilitako irudiak azter genitzake, idazle horren egitura psikiko horretan arakatzeko asmoz-edo. Askoz ere interesgarriagoa eta emankorragoa iruditu zait antropologiaren bigarren eremuaren ikuskeratik hurbilago den galbahea erabiltzea. Eta berezi-bereziki antropologia eta soziologiaren artean kokatu diren ekarpenetara hurbilduko da nire gaurko ikuskera. Gogoan izan antropologiak iruditeria errealitate-alternatiboak sortzeko bide bezala aurkeztu izan duela, jendeak munduan egoteko modu horri aurre egiteko bide bezala. Esan gabe doa, ikuskera antropologiko hori ikuskera soziologikorantz hurbilduz gero, iruditeriak errealitate-alternatibo sozialak sortzeko duen gaitasuna azalaratzen dela. Emil Durkheimek (1982) adierazi bezala, identitate soziala integrazio sinbolikoan du oinarri, jendarte bateko kideek heldulekurik izan ezean jendarte bera desintegratu egingo litzateke. Eta helduleku hori, Durkheimen ustetan, elementu sinboliko zenbaiten multzoa da, talde-errepresentazioa ahalbidetzen duten sinbolo edota irudiak. Horregatik, iruditeriak bi bide har ditzake (muturrekoak dira biak, erdibideko beste hainbeste egon litezke): batetik, botereak erabil dezake iruditeria indarrean dagoen errealitate sozial hori legitimatzeko; eta bestetik, indarrean den errealitate hori eraldatzeko asmoz energia soziala mugiaraz dezake iruditeria berriak sortuz. Batean zein bestean, iruditeriaren etengabeko gaurkotzea eta egokitzea

beharrezkoa da, bai indarrean denak aurrera egin dezan, bai indarrean den horren irauliarazteko. Hitzaldi honetan, bada, euskal literaturan errealitate sozial berriak sortu asmoz eta sinbolo berriak sortu asmoz erabili izan diren bide zenbait ekarriko dut mahai-gainera, egon diren eta egon litezkeen milaka horietariko gutxi batzuk baino ez. Eta soziologiaren eremutik hurbil ibiliko garen honetan, jakina, noiz edo noiz talde-errepresentazio modura funtzionatu duen iruditeria ekarriko dut gogora.

Iruditeria kolektibo hori aztertzen ari nintzela, iturri horiek non ote zeuden antzemateko asmoz, iruditeria horrek nondik edaten zuen jakin asmoz –metaturiko iruditeria kolektibo horri egitura bat eman asmoz–, Anuntxi Aranaren *Mito hurbilak* (2000) liburuak eman zidan behar nuen hezurdura horretarako ideia. Iturriek lurrazpiko euri-ura lurrazalera isurtzen dute, eta ur horren bila nenbilen ni, eta ur horixe izan da, Anuntxi Aranak aipatu bezala, euskal mitologian sinbolo nagusietariko bat, modu anitzetan presente egon dena –beste hainbat mitologietan bezala, jakin–. Horrela dio Anuntxi Aranak: “Ura oso gai garrantzitsua da bizidunentzat, ez baita bizirik urik gabe. Berezkoa da haren inguruan sinboloak, irudiak eta gogoetak ugariak izatea, bai aitzinean eta bai orain ere” (Arana 2000: 79). Iruditeria ere beharrezkoa da jendartearentzat, ez baita jendarterik iruditeriarik gabe. Eta kidetasun hori eginez abiatuko gara iturri bila. Horregatik, liburu horretako laugarren atalean (Arana 2000: 79-93) urari buruz aurkezturiko ideia zenbaiti zor zaio hitzaldi honen egitura (*orologo* honek behar duela-ko heldulekurik ere).

Euskal literaturaren iruditeriaren iturriez hitz egiteko, beraz, hiru ur handitan ibiliko gara igerian: lehenik, lurreko urak astinduko ditugu; bigarrenik, urak gainditzeko baliabideak arakatuko ditugu; eta azkenik, zeruko uretan ere bustiko gara.

Lurreko urak

Anuntxi Aranak aipatu bezala, euskal mitologian badago lurreko urekin harreman estuan dauden izaki mitologikoak, lamiak. Geure iruditeriaren parte bilakatu dira lamiak, batik bat haur eta gazte literaturak egin duen bidetik. Horra hor, Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osaturiko Txotxongilo taldeak sorturiko Erreka-Mari txontxongilo-pertsonaia, haur antzerkiaren pertsonaia herrikoi eta ezagun bihurtu dena, eta azken hogeitau urteetan behin eta berriro antzeztu egin dena, Euskal Herrian ez ezik, baita kanpoan ere. Txontxongilo lan honek Erreka-Mariren istorioa kontatzen digu, Euskal Herriko azken lamiaren istorioa.

Bai, lamiak lurreko urekin harreman estuan daude erreka-ondoan dabiltzalako, joan badoan uraren ondoan. Horregatik, erreka eta lamiak denboraren

iragatearen sinbolo dira, eta bizitzaren iragatea adierazten duten neurrian, heriotzaren etorrera ere adierazten dute.

Horregatik, joan badoan uraren ondoan, erreken ondoan, talde iruditeria osatzerako orduan, Erromantizismoaren garaian bestelako natura-elementu egonkorragoak erabili izan ziren talde identitate horri eusteko. Adibide gisa, hortxe ditugu, Hego Euskal Herriko foruen aldeko aldarrikapenen inguruan eraturiko iruditeria, indarrean zegoen errealitate horri eusteko Gernikako arbolaren sinboloari eutsi ziotenak. Genikako arbolaren irudiak bi irakurketa izan zituen garai hartan, batetik, naturaren elementu egonkorra irudikatzen zuen, lurrari sendo erroturikoa, eta bestetik, indarrean egon zen egitura sozial bati egiten zion erreferentzia, Foruei, eta bereziki Bizkaiko Foruei, Gernikako arbola horren azpian biltzen baitziren behiala Bizkaiko jauntxoak erabakiak hartzeko. Haritz hori euskal literaturan Iparragirrek bihurtu zuen ikur *Gernikako arbola* kantuan, jada José Cervaens portugaldarrak *Literaturas mortas* liburuan Euskal Herriko eraserki nazional modura aipatzen zuelarik XIX. mende bukaeran. XIX. mende bukaeran asmatu eta XX. mende hasieran presente egon zen Gernikako zuhaitza iruditeria kolektiboan, batez ere Eusko Alderdi Jeltzaleak zabalduko iruditerian, alegia, abertzaletasun katoliko horrek sorturiko euskalduntasunaren irudierekin estu-estu egin du bidea.

Eta jakina, XIX. mende bukaeran ikur bihurturiko zuhaitzak, izan du gaurkotzerik eta berrirakurketarik ondorengo euskal idazleen artean. Joxe Azurmendik 1968. urtean egin zuen Gernikako arbolaren berrirakurketa eta gaurkotzea, “Manifestu atzeratua” deituriko poema-sortan, askatasunaren aldeko manifestu dena, eta 60eko hamarkada hartan euskalduntasunari buruz indarrean zeuden mitoen salaketa egin nahi duena, alienaziobide direla aipatuz. Hona hemen pasarte txiki batzuk:

Gernikako arbola bat asmatu diguten arren
libre nahia bekatu balitz bezala,
aitzakiaren bat beharko bagenu bezala,
guk, guztiz ximple, libre izan nahi dugu.
(...)
Genikako arbolaren kontra
eta herriaren alde.
(...)
Handik Aitor, Amaia, Lelo
eta Lirelo
eta Gernikako arbola
eta mito guztien alienazioak.

Mitoen ukatzeak, indarrean den iruditeria ukatzeak, berriak sortzeko bideak zabalduko ditu. Bide horretatik, besteak beste, harriari lotu zitzaion bereziki iruditeria kolektibo berria. Literaturari dagokionez, Gabriel Arestik sortu zuen harriari buruzko iruditeriarik osoena, bere poema-liburu hauetan: *Harri eta herri* (1964), *Euskal Harria* (1967), *Harrizko herri hau* (1970) eta *Azken harria* (1979). Harriaren inguruko iruditeria horri askotan egin zaio erreferentzia euskal poesian, baina, orokorrean, nire ustez, berrirakurketak eta birmoldaketak baino areago, harriaren irudiaren oihartzunak izan dira, keinuak. Badago, hala ere, salbuespenik, eta gaurkoan berriki agerturiko poema-liburu bat aipatuko dut, Aritz Gorrotxategiren *Zaldi hustuak* (2007). Bertan “Zaldizko herri hau” irudia erabiliz, iruditeria kolektiboaren inguruko hausnarketa egiten da, eta liburu honetan bai, harriaren irudia moldatu da, talde-errepresentazio horretan helduleku izan nahi duen harri hori ez da gotor agertzen poema-liburu honetan, zaldizko baizik. Eta gogoan izan, Aranek (2000: 81) ohartarazi bezala, zaldia ere euskal mitologian erreka inguruetan agertzen ziren, eta “parteko txarreko” omen.

Bestalde, Aritz Gorrotxategiren liburu honetan ere Arestik sorturiko beste irudi baten berrirakurketa egiten da: “Aitaren etxea defendituko dut” lelo ezagunaren berrirakurketa. Ikur bilakatu den lelo honen egokitzapenik zabalduea, dena den, mugimendu ekologistaren eskutik etorri da: “Amaren etxea defendituko dut” leloa osatuz, lurraren defentsa aldarrikatzeko.

Itzul gaitezen errekarra, beraz, eta ikus dezagun zertan diren lamiak. Ilea orrazten, jakina. Orraztu eta orraztu. Hona hemen Anuntxi Aranaren azalpen zenbait:

“Biloa, ilea eta haria berdintsuak dira; buruko biloa orrazten den bezala orrazten dira ardi-ilea eta lihoa, orrazi edo txarrantxa deitzen den tresnaz; biloa apaintzea eta oihal (ehun) ekoiztea eginkizun baliokideak dira sinbolikoki. Hots “ehuteko eta iruteko tresnak edo ekoizkinak bilakaeraren sinbolo unibertsalak dira” (Durand 1969: 369)”

Orraztearen ekintza, ehutearen ekintza edota irutearen ekintza, beraz, bilakaeraren ikur. Lamiena ez ezik, ugariak dira euskal literaturan –Europako literaturan bezalaxe– hori irudikatzen duten lanak. Ahozko literaturan, esaterako, hortxe dugu euskal baladetan askotan agertzen dira pertsonaiak iruten, esate baterako, “Brodutzen ari nintzen” balada ezaguna, Peneloperen irudia gogora ekartzen duena. Literatura idatzian izenburutik bertatik erreferentzia horri lotzen zaion Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* (1998) dugu, nobela esperimentala, ama batek bere alabari josten ikasteko oparitzen dion manuala dena, eta manual horretan kontatu egiten da modu alegorikoan herri batean (Euskal Herriaren iruditeriaren oihartzunez josirikoa) emakume eta gizonak, Mari eta

Txomin izen generikoa dutenak, nola joan diren historian zehar bere rola josten, bere jantziak egiten. Eta nobela honetako amak alabari oparitu nahi dio josteko dohaina, bilakaera izateko eta aldatzeko dohaina, rol berriak sortzeko dohaina, eta hartara, historiak belaunaldiz belaunaldi iraunarazi duen jantzi beltzik gabe ibili ahal izateko dohaina da eman nahi diona. Jostearen, irutearen irudi berri hauek guztiak feminismoaren iruditeriak osatzerakoan izan dute garrantzirik.

Ura gaintzeko baliabideak

Errekan denbora badoa, eta bilakaera ere iradokitzen du, baina jendartea ere saiatzen da ur horri eusten, bilakaeraren bidea aldarazten. Errotak dira horren irudi garbia. Errotek erreken ura baliatzen dute bere onurarako, jendartearen onurarako, eta erreken bideari neurri bat jartzeko modua da. Horiek horrela, ez da harritzeko Koldo Izagirrek errotaren irudia erabili izana iruditeria kolektiboa osatzeko, *Balizko erroten erresuma* (1989) poema liburuan. Baina, dioen bezala, balizkoak baino ez dira geure errotak:

Eleak bele bilakatu zaizkiguk eta
Balizko errota guztietarik atera nahi gaituztek
Auzoan zegok poesia Ilunabarrean

Eta Jon Benitok ere iradokitzen du *Aingurak erreketan* jartzeak dakarren patua. Aingurak itsasorako omen.

Eta itsasoa? Ez al da itsasoa lurreko ura, beheko ura? Galde egingo du baten batek. Bai, jakina, bada. Eta itsasoak, izan du gure iruditerian eraginik, baina, batez ere iruditeria pertsonalean, ez hainbeste iruditeria kolektiboan, esango nuke.

Baina, egon badago itsasoarekin harreman estua duen beste irudi bat gure iruditerian oso presente egon dena. Eta azken batean, lurreko ur zabal hori, itsasoa, gaintzeko eremu dena: portua. Euskal literaturan oso emankorra izan da portuaren irudia. Horren adibideetariko bat dugu berriki Kirmen Uribek eginiko *Portukoplak* antologia, bertan portuaz hitz egiten duten hainbat eta hainbat testu bildu dituelarik. Eta literaturak sorturiko iruditeria kolektiboei erreparatuz gero, egon badago portu jakin bat irudi garrantzitsu bilakatu dena: Gabriel Arestik irudikaturiko Zorrotzako portua “Zorrotzako portuan aldarrika” poeman. Koldo Izagirrek (2000) Joxe Azurmendiren poesiaz ari dela honela dio: “existentzialismo soziala hemen ageri da Arestik ikur bilakatu baino lehen”. Eta portua da Arestik sorturiko ikur hori, harria baino garrantzi handiagokoa, nire ustez:

Zorrotzako portuan aldarrika

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.
Hemen euskeraz
ta han erderaz.
Birao egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,
berdin tratatzen baitu
erdalduna
eta
euskalduna.
Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen erre kara
erori nintzela). Eta esan nuen:
*Beti paratuko naiz
gizonaren alde.*
Gilen.
Anton.

Langileen topagune bihurtzen du portua, iruditeria kolektibo berria sortzeko gaitasunez beterikoa. Zorrotzako portuan bat egiten dute kultura ezberdinek, lanaren jardunak batzen ditu. Ohar zaitezte poeman honetan ere ageri direla orain arte aipaturiko zenbait irudi, arbola eta erreka, esaterako.

Arestiren portuaren irudi horrekin badute loturarik azken hamarkadetan eginitako zenbait irakurketa berri. Koldo Izagirreraren literatura dugu horietariko bat. Izagirrek *Non dago basque harbour* (1997) poema-liburuan galdezka ageri zaigu,

non ote gure portu hori, non ote amesturiko topagune hori. Portu utopiko horretaz galdezka ageri da poema-liburu horretan, eta portu hori mamituko du *Sua nahi Mr. Churchill* (2006) narrazio-liburuan.

Egon dira Arestiren Zorrotzako portu horren berrirakurketak eta moldaketak: Sonia Gonzalezek, esaterako, *Ugerra eta kedarra* (2003) nobelan, Bilboko hiriak azken urteetan jasandako eraldaketari buruzko gogoeta eta iraganaren nostalgia ere kontatzera datorrena,. Bertan Zorrotzako portua fantasmagoriatzat hartzen da, zentzuz hustu den espaziotzat. Eta nostalgiaz begiratzen zaio iragan horri, huts bilakatu den horri. Urtzi Urrutikoetxeak ere *Auzoak* (2005) narrazio-bilduman Zorrotzako portura joko du, baina auzoak hartuko ditu iruditeria kolektiboa sortzeko gunetzat, Zorrotzako portuko topagune hori galdu denean, talde-identitateak osatzeko beste topagune bat bilatu asmoz. Ohar zaitezte, lehen aipatu dugun Izagirrereren poeman ere balizko errotak eta poesiak Auzoan egiten dutela bat.

Auzoek eta hiriek ari garela, komeni da gogora ekartzea iruditeria osatzeko asmoz erabili izan den beste irudi bat, Euskal Hiria. Nahiz eta Bernardo Atxagak ez duen literaturan kontzeptu hori defendatu, testu idatzi eta ahozko agerpenetan garaturiko kontzeptua da, eta jendarten zabaldu dena, maiz aipatzen delarik Euskal Hiri hori sortzearen beharra, gune kosmopolita, ireki eta anitz modura. Iruditeria kolektibo horri erantzun nahi dio Xabier Montoiaren *Euskal Hiria* (2006) sutan narrazio-bildumak, iruditeria kolektibo hiritar horren kritika egiten duena, Euskal Hiri horrek oinarriak kapitalismoan eta itxurakerian bilatzen omen dituelako.

Esan bezala, portua bada urari aurre egiteko irudi bat, itsasoari aurre egitekoa. Izan ere, portuan egiten dute topo kultura ezberdinek, portuaren bitartez komunikatzen gara munduarekin eta mundua gurekin. Eta are gehiago, portu honek beste geografia batzuetara bidaiatzeko aukera ere ematen digu. Eta hor ere iruditeria kolektiboak badu lekurik, nora bidaiatu ere portuan erabakitzen delako.

Bernardo Atxagak *Etiopiara* egin zuen bidaia, Etiopia eginez Utopiarik gabeko eremu, “harea lurrik anonimoena” dela aldarrikatuz. “Hautsi da anphora” dio, eta anforarik gabe, ez dago non gorde urik, non gorde jakirik. Hauskortasuna baino ez. Itsasoak eta basamortuak bat eginez:

Itsasoa baita basamortuaren beste izena,
Bigarren maskara,
Harearen erresumarik zabalena;

Etiopiaren, Afrikaren, basamortuaren anonimotasun eta hauskortasun honen aldean, egon dira azken hamarkadetan euskal literaturan Afrikarantz jo dutenak iruditeria pertsonal edota kolektiboa osatzera. Hori dugu, besteak beste, Itxaro Bordaren kasua, *Krokodil bat daukat bihotzaren orde* (1986) poema liburuan:

Afrika nere larruaren beltza errebendikatzen dut
azoteek udalatu hildoetarik
ixurtzen diren hitz eta negarren ilunaz janzen naiz.

Nil ibaiaren iturrietako uretan amets iheskorren
kristalezko materia edan
nuen eta Kalahari mortuan zehar noa hatsaren eske.

krokodil bat daukat bihotzaren ordez...

Afrikaren iruditeriarekin bat egin zuten *Napartheid* aldizkariko kideek ere, euskarak Nafarroan ofizialtasun osoa lortu ez zuenean, hura salatzeke eginiko ekimen kulturallean. *Nafarroa Afrika da* komiki-liburuak ere ideia berari egiten dio erreferentzia. Ohartuko zineten, azken bi adibideetan Nafarroako iruditeria kolektiboa osatzeko eta salaketa egiteko erabili dela Afrikaren irudia, hurbileko eginez, eta ez dirudi kasualitatea Itxaro Borda izatea, Ipar Euskal Herriko idazlea, bere larrua belzten duena, Afrika aldarrikatzen duena. Esan daiteke, 80eko hamarkadatik aurrera, Gernikako Estatutuaz geroztik, Euskadiko Autonomia Erkidegoak euskal kulturaren kudeaketan duen hegemonia hori salatzeke iruditeriak direla bi-biak, besteak beste.

Zeruko urak

Amaitzeko, hitz egin dezagun zertxobait zeruko urez. Zeruko urak dira ekaitzak eta euri-jasak. Bizitzeko behar-beharrezko direnak, baina halaber, zoritxarra ere ekar dezaketenak. Euskal mitologian zeruko izakiak, izaki ekaitzegileak dira, horien artean Ortzi eta Mari. Anuntxi Aranek bi izaki mitologiko hauek, eta baita ekaitza eragiten duten beste guzti-guztiek ere dibinitate beraren aldaera ezberdinak direla uste du. Aranek dioenez, Barandiaranez geroztik, Mari hartu izan da euskal mitologiaren irudi nagusizat, eta gainera, Ama Lurra bailitzan irudikatu da, lurreko dibinitate modura. Aranaren ustez, ez da egokia Mari Lurrarekin lotzen duen ikuskerak, bere ustez, batik bat zeruko anderea delako. Aipaturiko izaki horiek guztiek bat egiten dutela uste du, batasun beraren aurkakoak baino ez direla, eta Ortzi, Mari, eta abarren batzeak androginoa den dibinitate batera garamatzatela. Irakurketak irakurketa, aipatzekoa dena honako hau da: euskal mitologian bi bide nagusi egon izan direla, batzuek Ortziri eman diote garrantzia gehien, besteek Mariri, eta gehientsuenetan pertsonaia eta existentzia zeharo ezberdin balira bezala.

Ortziren gurtzaile eta antzinako paganismoaren gurtzaile izan genuen Jon Mirande, “Akelarre” poemak sorginak goratu zituelarik, Ortziri poemak eskaini

zizkionak (“Orziren ttunttunak”) eta Chahok asmatu-riko Aitorren mitoari ere eutsi ziona. Koldo Izagirrek garbi azaltzen du Mirandek hartu-riko bidea:

“Deserrien aitzia, gure kondaira zahar- rean hartu zuen sustrai, zaldun-ekin abiatzeko («ni, eusko aitor-semea!») Ortziren gudari, basoi- haneko jainkoari sakrifizioak eskaintzeko prest... Paganismoaren aldeko gerla deklarazio moduko bat dugu bere poesia, gauak, ilunpeak, itzalek girotzen dituzten eszena erdi-gotikoetan eta baladen doinu gozoan emana.” (Izagirre 2000).

Iaz argitaraturiko saiakera batean ere Ortziren mitoari ematen zaio garrantzia. Luis Haranburu Altunak *Euskararen doluminak* liburuan mito horri egotzen dio euskaldunok beti akabera baten arrimuan egoteko dugun joera.

Bestalde, Mariren mitoari lotu izan zaizkio antzinako matriarkalismoaren alde egin nahi izan dutenak, eta bide horretatik abiatu da Alfontso Martínez de Lizarduikoa eta Jon Baltzak argitaratu berri duten *Mariren erradiografia. Euskal inkontziente kolektiboaz* lana. Ikerketa horren arabera Mariren mitoan datza euskal inkontzientea.

Ez da harritzeko bi lan horietan Anuntxi Aranaren lana aipatu ez izana, eta Anuntxi Aranek ekialdeko eremuez emandako datuak kontuan ez hartu izana. Ez da harritzekoa Anuntxi Arana Ipar Euskal Herriko izatea ere. Hona zer dioen Aranek:

“Gure jatorrizko matriarkalismo aldarrikatzen tematzen direnak anitz dira, eta horrek ere esplikazio bat ikan behar du; sexuen parekotasuna ikusten duenak hori du bilatzen seguraski, eta aurkitu egiten du, aurkitu ere. Jendeek sortuak eta jendeen aldaerari egokituak dira mitoak, eta ahalbideratzen dituzten interpretazioak ere haien osagarri dira, bereizezinezko parteak. Onartu behar dugu, gure mitologia tradizionala ez bezala, gaur egun hartan igarri nahi dena bai dela matriarkalista, Marizaletasunean badela asmo bat, Andereari funtzio zehatz bat betearazteko gogoak.

Tradizioan mitoek zeuzkaten eginkizunak eta gaur dituztenak ez dira berdinak. (...) Baina bai sinetsi nahi da Anderearen mirakuluz gure jendartea matriarkalista izan zela eta, bereziki, geroan ere izango dela, mitoaren ikasgaia barneratzen badugu.(...)

Hala bada, ukaezina da mitoek bizi-bizirik dirautela eta eskaintzen dizkiguten ereduak indarrean daudela, balio ukan bailezakete zuzentasunezko proiektu nazionala eta soziala eraikitze-ko, gure sustraiean oinarrituz” (Arana 2000: 127-128).

Anuntxi Aranaren hitzek galdera batekin amaitzera naramate: indarrean al daude eredu horiek? Euskal literaturak ba al du gaur egun, belaunaldirik gazte-

enetan, iruditeria kolektiboa osatzeko gaitasunik? Ahozko literaturak iruditeria sortzeko ahalmena gordetzen duelakoan nago (bertsolaritzak, kantugintzak, antzerkiak...), baina literatura idatziak?

Orologo hau jada ur premian da, joan gaitezen zer edo zer edatera. Eskerrik asko.

Bibliografía

Arana, Anuntxi (2000). *Mito hurbilak. Euskal mitologia jendeen bizitzan*, Gatzain-Gure Irratia, Baiona.

Durkheim, Emil (1982). *Las formas elementales de la vida religiosa*, Madrid, Akal.

Alfons Llorenc

Alcoi, 1951.

Valentziar idazlea. Valentziako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Irakaslea, kazetaria, eta Valentziako Telebistako gidoilari zein erredaktorea, besteak beste. Hainbat ikerkuntza lan argitaratu ditu: hizkuntzari buruz (“*Lluís Fullana i la unitat de la llengua catalana*” -Katalanaren II. Nazioarteko Batzarraren txostena, 1989), Elxeko Misterioari buruz (“*Món i misteri de la Festa d’Elx*”, Valentziako Generalitatea, 1986; “*Teatre i festa*”, Tres i Quatre Arg., 1987; etab.), eta azken gai horri buruzko dokumental batzuk egin ditu. Gainera, Valentzian eta Bartzelonan eginitako “*Món i misteri de la Festa d’Elx*” erakusketaren komisario izan zen, 1986an eta 1987an, hurrenez hurren.

Herri baten ahotsak Elxeko festaren mundua eta misterioa

(Abuztuaren 14an eta 15ean, herri batek lurraren antzinako ahotsa berreskuratzen du. Abuztu oro, Elxeko hiriak kantu sakratuetan jasotako betiereko hitzen emozioa bizi du. Bi egunetan eta bi ekitalditan, Ama Birjinaren heriotzaren, zeruratzearen eta koroapenaren antzezpeneak –abuztuaren 14ko “La Vespra” delakoan lehena, eta abuztuaren 15eko “La Festa” delakoan bigarrena eta hirugarrena– debekatutako hizkuntza bat goraiatu, literatur orri bat berritu, gure imajinario kolektiboaren oinarriak zaharberritu, kultura nazional bat eguneratu eta Europako herrialde baten nortasuna berresten du.

Elxeko Festa XV. mendeaz geroztik tenplu baten barnean etenaldirik gabe antzeztu den erlijio antzezlan bakarra da. Zeremonia bizi, errepikakor eta tradizionala da, testu bizia. Herri baten jatorriaren marka ezin argiagoa. Mediterraneoako mito eta erritu zaharrenak biltzen dituen literatura unibertsalaren erakusle bizia, urte askoan baztertuak izan diren hizkuntza –Salzesetik Guardamarreraino– eta kultura baten adierazpide oso eta solemnea, Elxeko Misterioari esker abuztu oro Gizadiaren Ondare gisa dagokion aitortpena jasotzen duena.

Abuztuaren 14 eta 15 oro, herriarenak dira hitza eta kantua)

Hasiera batean, Lurraren bilbea izan zen, izadiaren irazkia eta Eguzkiaren eskua, Ilargia eta indar sakon etaitsuak, egoera kosmikoan eta gainezka, gauen ingeradak marratzuz eta egunen lerroak markatuz. Negua eta haren udaberria margotuz, uda eta haren udaberria margotuz, bizitza ehunduz eta desehunduz, bizitza biziz.

Hasieran, beraz, soinua eta hitza izan ziren, eta gauzen izenak eta aditzen esanahiak hariltzea eta deshariltzea. Pertsona hitza izan zen. Eta hitza haragi bihurtu eta hilkorren artean bizi izan zen. Eta berehala, jainkoak azentu, fonema eta ahots lainoen artean zamalkatu ziren.

Hasieran, musika paseo bat izan zen, errudimentarioa baina zoragarria, soinuen eta akordeen mundutik eginiko ibilaldia, zenbakiaren zehaztasunak eta pasioaren bizitasunak zuzendutako mundutik, giza bizitzari eta betiereko gozamen jainkotiarrei loturikoa. Notak, eskalak eta pentagramak zirkulazio handiko zubiak lirakeke giza bazterren eta aldiri olinpikoen artean.

Eta musika kantu bihurtu zen, eta hitza, aldarri, eta gure artean bizi izan ziren. Jainkoek ona zela ikusi zuten, eta jarleku bat eskatu zuten kantatu eta deklamatu egiten zen lekutik hurbil, nolabaiteko kategoria duen agertoki orori atxikitako begiratoki bat. Eta horren ona eta bikaina zela ikusi zutenean, beren mitologia etereoak eta lurreko biografiak nahastea erabaki zuten, egun arranditsuak eta seinatuak abandonatzea, panteoietako betiereko aisia lagatzea, garrutxo, poleaz eta sokez osatutako tramankuluen gainean agertu eta desagertzeko, gizakia jainkotzeko eta jainkoa gizaki bihurtzeko.

Eta antzerkia sakratu bihurtu zen, eta sakratua, antzerki. Eta ona zela ikusi zuten, denona zen, eta inork ezin zuen galarazi. Eleusis hiria aukeratu zuten, inor bazterrean utzi gabe, giza espirituaren betiereko sentimenduen sinbolo oinarritzeko, fisikatik haratago joan beharrik gabe. Aitzitik, debozio sentimental, espontaneo, intuitibozko misterioak hedatzen ziren; antzezpen sakratuak soroen eta gariaren santu zaindari den Demeter amaren oroimenez, Krono eta Gea jainko-jainkosen alaba –denboraren jainkoa bata, Lurraren jainkosa bestea–, baita haren alaba Persefone bahituaren oroimenez ere. Horrela, berpiztea dakarren heriotza seinalatzen zen, neguak sortzen duen uda. Demeter abuztuan ospatzen zen, uzta garaian, Virgoren ikurpean.

Greziarrek ziotenez, Hadesek, infernuen eta hilen jainkoak, Kronoren eta izadiaren botere kreatzailearen jainkosa Rearen semeak, Persefone iloba, Demeterren alaba, bahitu zuen, loreak biltzen eta mingranak jaten ari zela. Lurrazpiko bere erreinura eraman, eta bahitua izan zuen urtean aldi batez, neguak iraun bitartean hain zuzen. Neskatoa lurpean zegoenean, udazkenetik aurrera, izadia hil egiten zen. Udaberrian, ordea, biziberritu eta loratu egiten zen, Persefone gattetxea lurpetik atera bezain pronto. Heriotzaren eta antzutasunaren misterio handia, baita bizitzaren eta emankortasunaren itzulerarena ere. Eta mirari handia:

hazia, bere oskolaren eta hilobiaren barruan, lurpean, Hadesen lurraldetik hurbil, bizigabea itxura batean, negua joaten denean, Demeter bezala Eguzkiaren laguntzarekin, ernamuindu eta hozitu egiten da, alez eta bizitzaz beteriko buruxka bihurtzen da. Urtero.

Eta urtero halaber, abuztuaren 14an eta 15ean, Virgoren ikurpean, izadia udako apoteosi betean neguko lokartzera hurbiltzen ari denean, ama lurra atsenden hartzen hasten denean, uztak bildu ondoren, ama birjina lokartu eta infernuetara jaisten da, eta hil egiten da, bizitzak, hizkuntzak, kulturak eta herriak bizi daitezten, herri batek arnas har dezan. Urte sasoi horretan bertan erakusten zituzten Grezia klasikoan ama jainkosak ezkon-ohetan; *lectisternio* errittoa zen, ama lurra loaldirantz abiatzen denekoa. Familiak lehiatu egiten ziren ohe horien erakustaldian, seinale ona baitzen haietan jaio edo hiltzea, usain gozoez inguratuturik. K.a. III. mendeko Erromak ere ama jainkosak gurtzen zituen, Zibeles adibidez, eta haien irudi agurgarriak jartzen zituzten ohe sakratuen gainean; *lectisternia*, berriro ere. Sendabelarrak eta belar usaintsuak bedeinkatzeko garaia izaten zen, negu ilun eta arriskutsuan soroak, etxeak, abereak eta pertsonak babesteko.

Belar sakratuak

Eta hain zuzen, abuztuko *idus*-etan, abuztuaren 13an eta Efeson, haren santutegi nagusia zegoen lekuan, Artemisa *multimammia*-ren eguna ospatzen zen, erromatar Diana, Ilargiaren jainkosa (zilarrezko ilargi bat jartzen zen ohean, Abuztuko Ama Birjinaren oinetan), emeen, erditzeen eta basoen babeslea. Emakumeek lore sortak osatzen zituzten belar usaintsu eta sendabelarrekin (Morellan, izpilikuz, erromeroz eta salbiaz apaintzen dute oraindik basilika; Valentiako herri askotan –Elx, Bétera, Alfara del Patriarca–, albakak Ama Birjin hila inguratzen du).

Ama Birjinaren Lokartzearen jaieguna baino erritu zaharrago bat IV. mendeko Jerusalemgo desfile asuntzionista dugu. VII. mendeko Erromak forma eman zion Salbatzailearen koadro exeporitako –gizatiarra ez den eskuak margotua– prozesio luzeari, hamabi zinegotziz eta hamabi elizgizonez inguratua, Erromako kaleak ibiltzen zituena abuztuaren 14ko iluntzetik abuztuaren 15eko egunsentira arte. Antza, prozesioak sendabelarrak bedeinkatzen zituen, arriskuak eta gaitotasunak urruntzeko gai uzten zituen. Uztak eskertzeko antzinako jai pagano bat kristautzen zuen. Abuztuko Ama Birjin egunez Valentiako oheak inguratzen dituzten landare eta belarrak dira. Gurtza horien arrasto bat San Joanek Misterioan daraman palmondo hostoan aurki dezakegu, gerora herriak ere erabiliko zuena ekaitzak urrundu eta gaitzak gorputzetik eta arimatik uxatzeko.

Antzinako eliza kristauak zalantza egin zuen, eta data desberdinetan kokatu zuen Maria Nazaretekoaren “iragatzaren”, “lokartzearen”, “pauza” edo “atsedenearen” memoria, Efesoko Kontzilioak (431) Jesusen ama jainkotu aurretik. Eta bitxia bada ere, hiri hori izan zen abuztuaren 15a “*theotokos*”-aren (“Jainkoaren Ama”) festa gisa aukeratu eta Mediterraneoan barrena zabaldu zuena. Valentziako elezahar baten arabera, ekialde hurbileko hiri horretan lokartu, esnatu eta igo zen zeruetara Ama Birjina (Ilargia hil, berpiztu eta goititu egiten da egunero: “*deixà lo món sense sol;/ i Vós, com a Lluna i mare/ d’esta absència sou consol*”, kantatzen diote Puigeko Ama Birjinari). Elezaharrak dioenez, 72 urterekin egin zuen hori –horregatik errezatzen zitzaizkion 72 salbe abuztuaren 15ean Planesen–, baina arrosa bezain lirain eta lerdin, eder eta gazte, jarraitzen zuen: “*Planta nova en terra vella/ rosa fresca en arbre sec*”, Albuixecheko pozezko kantuaren arabera.

Albaka, belar santua, Abuztuko Ama Birjinaren ohatzeak inguratzen ditu. Aste Santuko Eguzki “monumentua”-ren –latinezko *monumentum*-etik, hilobi–Ilargi bertsioa da, femeninoa, hura ere landare sakratuz apaindua: palmondoak eta olibondo eta ereinotz adaxkak, zauriak osatu, ekaitzak urrundu eta erditzeetan arazorik ez izateko. Albaka iritsi zitzaigun, errege albaka sakratua (*ocinum basilicum*, grezieratik; *ozein*, usaindu, eta *basileus*, erregea). Egipton, jainkotia-rra izan zen; Grezian, ehorzketa landare, baita erotikoa ere, bere hazkuntza bat zetorrelako Eguzkiarenarekin; hau da, Persefone ederraren presentzia emankor-rrarekin. Ez alferrik, garai batean albaka landatzea aholkatzen zitzaien emakumei, hotz gordinenak pasa ondoren, Santa Agata egunez: “*A santa Àgata,/ se planta l’alfàbega;/ la xica garrida/ la té eixida; i la galana,/ trasplantada*”. Landarearen kimuak maitasun seinale ziren, maitale xarmatzaile eta ederren aurki-kuntzaren seinale, “*l’herba de fer-se estimar / donzelles enamorades/ d’un nuvi esdevenidor/ escabellen/ perquè facen més olor*”.

Oso adierazgarria da gaur egun oraindik bizirik dirauen Ostegun Santuko eta Abuztuko Ama Birjinaren “monumentuak” apaintzeko ohitura, gariz eta antzeko landarez, gaitzak aldenitu eta zori ona ekartzeko. Sotoan ilunpean gordetako eta sarri ureztatutako gramineoek kimu luze eta zuriak ematen dituzte ernezean. Greziar eta erromatar emakumeek ale horiek ereiten zituzten anforatan, Adonis jainkoaren hilobiaren –“*monumentū*”– simulakroak apaintzeko. Adonis, gazte hil eta bere bi maitaleekin –Afroditarekin, udaberrian lurra lorez betetzen zuena, eta Persefonerekin, negu gorriko haushero gozoa– elkartzeko berpiztu zen jainkoa, landareak esnarazten zituena. “Adonisen lorategiak” deitzen zitzaien greziar eta erromatar emakumeen lorontzi haiei.

Garia izan da betidanik Mediterraneoeko herrien nekazaritza eta festa egutegia zehaztu duena. Demeter amak eman zigun garia. Haren uzta, poz eta bizitza iturri, ospatu egiten zen Eleusisen jainkosa babesleei eskainitako sarbide gurtza

eta “Misterio”-ekin. Gariaren aroa abuztuaren 15ean amaitzen zen, eta lan festa izaten zen egun hori leku askotan, kontratuak hausteko eguna, maizterrak kale-ratzekoa, maileguak ordaindu eta hurrengo sasoiari begira tresnak eta animaliak erostekoa. Xativako azokaren eginkizuna zen, adibidez.

Europa mediterranearen festa nagusia

Abuztuaren 15a garrantzi handiko festa zibikoa izan da. Abuztuko Ama Birjina gure nazioaren eta haren eraketaren adierazgarri argia da, valentziarren eta mallorkarren jatorriaren sinbolo. Jaume I.a Konkistatzaileak, bi erresumen fundatzaile izan zenak, meskita mahomatarrak bedeinkarazten zituen “Santa Maria”-ri eskainitako eliza modura, Erdi Aroko elizarentzat iragatzaren, zerurako jaiotzaren eguna baitzen Ama Birjinaren festa nagusia. XIII. mendean, Ama Birjinaren *lokartzea*-k berebiziko garrantzia hartu zuen Europan. Sinbolo hori aldaketan ikur izan zen, mentalitate berri baten ikur, mundu feudala, gazteluak eta monasterioak eklipsatzen zituena, hiriak, burgesia, eskeko komentuak, katedralak eta gobernatzeko modu demokratikoagoak ezartzearen alde, erromatar zuzenbide berdintzaileago bat berreskuratzeko. Gure erregeak atsegin zuen sustraietan sakondu eta ikusmolde garaikideekin bat egitea. Andre maitale sutsua, Mallorca eta Valentziako erresumak sortu zituen Zeruko Andrearekin, gure “Santa Maria”-rekin, eta Historian eta Europan sarrarazi zituen, herrien arteko herri gisa eraikitzen lagundu genuen Europan. Jaume I.ak berak idatzita utzi zuen bere “Kronika”-n: *“En totes les viles que grans fossen, que Déu nos havia donades guanyar de sarraïns, havíem edificada església de Sancta Maria”*.

Ez dut uste beharrezkoa denik gogoratzea garai haietan erlijioa zela zibilizazioa, eta kristautasuna, Gizadiaren sinonimo. Horregatik, Ama Birjinari eskainitako aldare hauek Xarq-al-Andalus-aren lurretan izandako presentzia islatzen dute, Iparretik, *Tramuntana*-ren bidetik, etorritako beste sistema kultural bat, beste hizkuntza bat –Elxeko Misterioarena–, beste jende bat –gaur egungo valentziarren aita-amak– eta munduaren beste ikusmolde bat, Mediterraneoko ikuspegi zaharrenetakoak bezain zaharra.

Elxeko festak berrikuntza horretan aurkitzen du bere ernamuina, Valentziako herriaren oinarritzean, eta, Ramon Muntaner kronistaren arabera, Elxera XIII. mendean iritsi zen hizkuntzan, *“e parlen del més bell catalanesc del món”*. Elxeko Misterioaren sorburua gertakari historiko-kultural funtsezko horretan dago, mendez mende taxututako mito eta errituen sinkretismoan, baita jadanik hainbat antzerki errudimentario sarrarazi zituen kristau liturgiaren dramatismoan ere –Valentziak, Mallorcak, Alguerrek, Elnak edo Urgellek partekatutako *“Epístoles Farcides”* edo *“Cant de la Sibila”* deritzonak–, edo Corpusaren Misterioetan

edota Santa Maria de l'Estany, La Selva eta Valentziako drama asuntzionistetan. Giltzarria Genovako apezpiku Jaume de Varazzek 1260. urte inguruan idatzi zuen “*Llegenda Aurea*” deritzona da, mitologia klasikoaz eta ebanjelio apokrifoz apaindutako santuen bizitza moduko bat, Canigó mitiko eta magikoaren oinetan Sant Miquel de Cuixàko monasterioan katalanera itzulia izan zena. Obra hori inspirazio iturri izan zen Vicent Ferrer eta Isabel de Villena idazle erlijiosoentzat, “*Obres e Trobes*”-en poetak, eta “*Tirant*” zalduna bera ere betiereko bizitza erdietsi nahi izan zuen Ama Birjinaren pausoei jarraiki.

Elxeko herritarren ustez, festak Jaume I.ak hiria konkistatu zueneko eguna ospatzen zuen. Kronika ugari daude. 1623ko lekukotasun batek azaltzen duenez, festaren homiliak “*no tracta solament de la festivitats present, sinó de la fundació, antiguitats i noblesa de la Vila d'Elx*”. Valentziako urriaren 9ko *Sermó de la Conquesta*-rekin pareka daiteke, hiriaren jatorria gogorarazi eta Erresumaren gorazarre egiten duena. Bitxia bada ere, urriaren 9a, Valentzia hiriaren sortze data, etxeetatik eta harresietatik jaurtitako kohete, etxafuego eta petardoekin ospatzen zen; Valentziako Erdi Aroko agintariak festa bat hotsandiz ospatu nahi zutenean, “*sien fetes consemblants festes amb coets e focs e llums, segons en les festes de sant Donís és acostumat fer*” agintzen zuten.

Era berean, Elxen, “*la nit es torna dia*”; horixe diote kronistek abuztuaren 13ko *Nit de l'Albada* deskribatzeko. XVII. mendean, jadanik bazuen gaur egun ikus dezakegunaren antzik, aldeak alde. 1625eko dokumentuetan irakur daitekeenez: “*Des de cinc o sis torres es disparen moltes grosses (grossa bakoitza dozenen dozena bat da) de coets i artilleria de tal manera que la nit es torna dia per causa d'haver tanta diversitat de focs en les torres i muralles i llums en totes les esglésies i per les finestres i terrats de la dita vila i raval d'aquella*”. Gaur egun oraindik, abuztuaren 13an, Misterioaren hiriak argiz eta trumoiz betetzen du zerua, iluntasuna urratu eta egunaren argitasuna lapurtzen du. Zaratak eta argiek hiria prestatzen dute festaren oihu harmoniatsu zaharra entzuteko. Ordubeta luzez, gauerdian, su artifizialez betetzen da Elxeko zerua. Hirurehun eta berrogei bat suzko *palmere*, milioika kohete. Edozein leku da egokia suak jaurtitzeko, ilunpeak uxatzeko erritu kolektiboan parte hartzeko, eguerdiko argitasuna lapurtzeko. Elxek bat egiten du bolboraren udako orgiarekin; elkartasun eta solidaritate ekintza da. Palmondoen gainean, gaua egun bihurtzen da. Ilunpea alden-du eta arao egiten da hiria araztu eta Misterioa kantatzeko.

Valentziarren bolborarekiko grina gure herria bezain zaharra da; festaren hasieran espiritu gaiztoak uxatzeko zarata eta argia sortzeko antzinako behar errituala, baita udazkenean eta neguan ere, indarra galduz doan Eguzkia elikatzeke nahi subkontzientea, argia bizitza iturri baita. Prometeok jainkoei lapurtutako su sakratua oparitu zien gizakiei, horrenbeste maite zituen, eta betiko kondena jaso zuen horregatik. Eguzkiarekiko gure estimuak haren erregetza luzatu

nahi du beharbada, eta argi bihurtutako energia itzuli nahi diogu Eguzkiari.

Eguzkiari izpi artifizialak itzultzen zaizkio, gizakiak eginiko izpiak, trumoi aro indartsuenean hain zuzen. Misterioa bera ere ekaitza gaiztoen kontrako talismantzat hartzen zen. Urte batez antzetzeari utzi zitzaion Elxeke Markes, Planeseko baroi eta Arcoseko dukearen heriotzaren doluminez, eta tipul tamainako harriak erori ziren, “*del bulto de cebes*”, kalte ikaragarriak eraginez, “*grandíssims danys els olivars i vinyes de forma que en molts anys no feren fruits... per ço entran en cabildo lo Reverend Clero i Vila en lo dia 1 de març de 1609 i votaren que no es pogués deixar de fer i festejar dita festivitats per nengún temps ni per mort del senyor duc ni d'altra persona de qualsevol qualitat o condició*”.

Argiz beteriko gaua, beraz, zeruan izar uxu gehien ikusten diren garaian; San Lorentzoren malkoak dira. Gure herriarentzat, behin betiko aberrirantz doazen arimak. Suz beteriko gaua, antzinako Erromak Volcano jainkoa goratzen zuen egunean –*Volcanàlia* festak–, suaren eta metalgintzaren jainkoa: diotenez, gizakiak erabili zuen lehenengo burdina espazio sideraletako tximista batetik sortu zen, eta hortik “*siderurgia*” hitza. Volcanoren su emankorra, lur barnetik sortuz landareak emankor egiten dituen beroa.

Aurkakoak lotzen dituen su gaua: lurra eta zerua. Bolborak bikote kosmiko bat osatzen du argiz beteriko kohete emeeekin, eta erditu egiten dira lehertzean. Ama lurretik aita airera, arimak bezalako argiek aitatia ere den zerua betetzen dute, arimak biziberritzen dituen ilargi emeak argizatzen duen bitartean (*palmer* ugari jaurtitzen dira Elxen familiako hilen arimen alde; heriotza, bizi sortzaile). Ilargia eta gaua, estuki lotuak Efesoko Diana emankorrari, Hipolitorekin maitemindua –abuztuaren 13a, San Hipolito–. Diana Apoloren –Eguzkia– arreba bikia da, eta hura bezala, izpi faliko eta ernaltzaileak jaurti ditzake gezi moduan, abuztuko *idusetan*, abuztuaren 13an, Elxeke *Nit de l'Albada* ospatzen den egun berean.

Eta hain zuzen ere, Apoloren kide kristauak bere lekua du Elxen: San Sebastian, biluztasuna –“*mentre prenteu un bany / us van robar la capa...*”– eta geziak atributu gisa dituen santu bakarra, Apolo bezala. Udal ospitaleetan jartzen zen, izurriaren kontra egiteko. Pizkundetik, biluzik, boluptuoso eta nagi ageri da, zuhaitz gorri eta hostogabe batean, Atis nerabe hila bezala, Adonis desiratua bezala, maitasun gezi falikoen Cupido bezala, izpi ernaltzaileen Apolo bezala. Elxeke San Sebastian ermitan, Misterioko kantariak janzten dira, drama liturgikoaren prozesioari ekin aurretik.

Antzerkia eta liturgia

Elizak, hasieran, antzerkia eskumikatzen du haren lotura paganoengatik. III. eta IV. mendeetan, ikuskizunaren kontrako panfleto ugari plazaratzen dira. Tertuliak

amorrux beterik jotzen du antzerkiaren aurka: “*Els dimonis han inspirat als homes l’afecció per les representacions... el teatre representa només accions criminals, de furor a la tragèdia, de llibertinatge a la comèdia*”. Cebrià Kartagokoaren hitzetan, “*s’aprèn l’adulteri veient-lo representar*”. Joan Crisòstomek dioenez: “*El teatre és la pesta de les ciutats... incita a la fornicació, la impudícia i tota mena d’incontinències*”. Hala eta guztiz ere, kristautasuna antzerkiaz baliatuko da azkenean bere dogmak zabaldu eta fededunengan zirrara eragiteko, eta aldi berean, olgeta pagano edo besterik gabe profanoetatik urruntzeko.

Erligio antzezlanak esanahi mailez eta duda-mudazko jokoez betetzen dira. Herriak bere egiten ditu Elxekoa bezalako Misterioak –dogma baten antzepe–, eta “anti-dogmatiko” bihurtzen dira; fede oinarria irrealitatetik hurbil dagoen fikziozko mundu batera pasatzen da, interpretazio ugari onartzen dituen. Herri elizkoi eta sinestuna ikusle eta parte-hartzaile bihurtzen da. Tenplua inizatuen leku izateari utzi eta herritarren elkargune bihurtzen da: eliza kale bihurtzen da; habeartea, patio; presbiterioa, agertoki; aldarea, logela. Ezerk ez du drama funtzio liturgikotik bereizten; txaloak otoitza dira, eta oihua, hel egitea.

Naturaz gaindiko mundua eta mundu sensoriala interes berbera dute eta errealitate berberean nahasten dira. San Joan “*Apostolu*” bat da Elxen, pertsonaia bat eta herritar ezagun bat aldi berean. “*La Maria*” ebanjelio kanoniko eta apokrifotako Maria da, Europako elezahar eta tradizioetakoa, Efeson lokartu eta esnatu nahi izan zuena. Hiri hori Dianaren hiri santua da, Eguzkiaren arrebarena –Eguzkia Jesus da, Birjinaren anaia–, eta Eguzkiaren jainko Apolok tenplua izan zuen Elx ondoan, Santa Polan, non, 1751n lehen aldiz dokumentaturik dagoen elezahar eder baten arabera, belarik eta lemarik gabeko txalupa batek –halaxe nabigatzen omen zuen Isisek– Ama Birjinaren irudia ekarri baitzuen hondartzara egunsentian, eta irudiarekin batera, haren misterioaren liburuxka, “*la Consueta*”, hizkuntza katalanean, bi-biak uretan jaiok, Afrodita bezala. Ernamuina itsasoan bilatu nahi izan da, uretan. Itsasoa umetokitzat duen sinesmen zaharra da, ura ama gisa. Antzeko kutxa-ontzietan gorde ziren zientzia eta jakinduria, bizitzaren, trszendentzien eta zibilizazioen haziak, eta ontzi horietara igo ziren Noe, Isis, Osiris, Santiago galiziarra, Ampurdameko Sant Pere de Roda, Ulises, Llätzer, Marta Magdalena, baita Jose Arimateakoa ere bere Grial magikoarekin.

“*La Maria*”, beraz, hori guztia da, eta aldi berean, haren heriotza eta oinazeak edozein emakumerenak izan litezke. Horrekin batera, obra bateko protagonista da, irudi sakratu bat, baita haren rola jokatzen duen haurra ere. Elxeko Misterioak nahastu egiten ditu aldareko santuak eta herritar arruntak. Ez dira harritzekoak beraz historikoki eliz agintaritzarekin izan dituen liskar eta tirabirak.

Ikusle leialak ez du argumentu bat ikusten, ezagutzen duen istorio bat *bizi* du. Beharbada horregatik, antzinako tragedietan bezala, Elxeko herriak ez du

sekula *misterio* hitza erabili bere *Festa* –maiuskulaz– izendatzeko. Sintoma adierazgarri bat da. Misterioan, zerua zabaltzen den bakoitzean girgil euria, urrezkoa, erortzen den modu berean, dibinitate zaharrek ere, eterretik agertokira etorriak, urrezko tantak isur zitzaizketen; hala nola Zeus greziarra, bere urrezko euri eman-korrarekin lurpeko brontzezko gela batean aitak giltzapetua zuen Danae desiratu haurdun utzi zuena. Jainkoen eta gizakien aita zerutiarrak, urrezko euri bihurturik, emakumea aharrausi zela, ahotik sartu eta birjinaren sabela ernaldu zuen. Bederatzi hilabetera Perseu heroia jaio zen. Santa Barbarak Danaeren ezaugarri batzuk hartu eta bizia ematen duen urrezko argia jaso ahal izan zuen zirrikitu txiki batetik.

Antzerkiari esker, antzinako dramaturgia klasikoko gai eta pertsonaiak berenganatu zituzten kristau antzezpenek. Argumentu asuntzionistetan, erraz aurki daitezke Antigonaren maitasun filial eta fraternalari buruzko iradokizunak. Antígona Ediporen –Tebas-eko erregea– eta haren ama eta emazte Iocastaren inzestuzko alaba da. Iocasta bere semeaz maitemindurik dago, Fedra bezala, Ariadnaren ahizpa eta Teseoren emaztea, bere seme Hipolitoen maitale izango dena, aitaren ohorea zikintzeko gai ez den gazte xahua. Elxeo festaren hasieran, Mariak bere Seme jainkotiarrekin elkartzeko nahia adierazten du: “*Gran desig m’ha vengut al cor/ del meu car Fill, ple d’amor,/ tan gran que no ho poria dir*”. Jesus, *Araceli*-aren gainean, Elxeo misterioan “*Àngel Major*” modura mozorro-tua –tabuaren ondorioz zalantzarik gabe– “*Esposa e Mare de Déu*” gisa zuzentzen zaio ama birjinari, eta honako hau abesten dio: “*Alegrau’s que huí veureu/ de qui sou Esposa e Mare/ e també veureu lo Pare/ del car Fill i etern Déu*”.

Isisen mitoaren oihartzun moduko bat antzeman daiteke. Isis Osirisen emazte eta arreba da, antzinako kristautasunaren oinarrietako bat den Alenxandrian sustrai sakonak dituen jainkosa. Hiri hori, Efesorekin batera, Ama Birjinaren gurtzaren eta hagiografiaren zutabeetako bat da. Ama Birjinaren irudia Horus semeari bularra ematen ari zaion Isisen irudiarekin pareka daiteke, amatasunaren irudikapenen aurrekari. Isis, misterioak ere izan zituena, Ilargiari eutsiz irudikatzen da. Demeter amaren irudiarekin lot daiteke, Hades erregeak bahitutako alabaren bila dabilen ama, Isis bera ere gauean Osirisen bila dabilen bezala, azken hori Set jainkoaren eskuetan hil dela jakin gabe (haren erlikiak itsasora jaurtikiak dira arka-ontzi baten barnean).

Mingrana ere oso elementu adierazgarria da antzezpenean: bertatik ematen dio Goiangeruak Mariari bere berehalako heriotzaren eta ondorengo berpiztearen berri. Mingrana, unibertsoaren eta emankortasunaren sinboloa, Domu Santu egunean jaten zen, jandako ale bakoitzaren bidez Purgatorioko anima bat berreros-teko xedearekin. Greziarrek Dionisioren odol gorriarekin lotzen zuten; gure herri ipuin kontalariak, berpiztearekin. Eta bitxia bada ere, Persefone, Demeter amaren alaba, ezin zen lurrera itzuli, hain zuzen ere mingrana ale bat jateagatik. Hala

eta guztiz ere, Festaren dokumentuek “hodeia” aipatzen dute, eta “*magrana*”, antza denez, tramankuluaren kanpoko kolorearen eraginez herritarrek sortutako terminoa besterik ez litzateke izango. Lastima!

Festa herrikoa eta globala

Misterioa, Elxeko herriari esker, ez da jada desagertutako garai baten –Erdi Aroa– lekukotasun multzo hutsa. Haren argumentua guztiz txertaturik dago kristau unibertsoan, Valentziako herriari funtsa eta forma eman diona, eta ospakizun gisa, hiriaren jai nagusia da, lurra da eta jendea da; Elx da. Herri baten jai nagusia den aldetik, ondasun kultural bizia da, oraina da eta geroa izango da. Misterioaz hitz egitea ez da Erdi Aroari loturiko erudizioei buruz hitz egitea, ezta adi-tuen ikerkuntzei edo berreraikuntza arkeologikoei buruz hitz egitea ere. Ziklikoki errepikatzen den albiste da, urtero, duela mende askotatik. Albiste izan da eta albiste izango da. Abuztu guztietan. Oraina eta geroa da. Ondasun bizia da. Herria da eta bizia da. Abuztuaren 14 eta 15 oro, Elxek gure historia-ren eta kulturaren orrialde bat antzezten du, dinamikoa eta berritua beti. Aipatu ditugun ezaugarrietako asko eguneratzen dira, garenaren sinboloak batzuk; izan nahi dugunaren ikurrak, beste batzuk.

Misterioak, bestetik, musikaren historia laburbiltzen du. Bateratu egin ditu gregorianoa –salmodia juduaren eta herri kanta greko-erromatarraren oinordekoa– eta polifonia errenazentista eta barrokoak. “Kapera maisuak” beharturik zeuden konposatzera kontratu bidez, eta garai bakoitzak bere arrastoa utzi du. Antzerkiaren historia laburbiltzen da: Erdi Aroko horizontaltasuna eta manierismoaren bertikaltasuna. XV. mendeko Valentziako arte dramatikoa –Europako antzerkiaren abangoardia– eraiki zuen antzez makineria itzultzen digu, harrotasun handiz Europara esportatu genuena eta gaur egun oraindik gure herrialdeko hainbat lekutan ikus daitekeena: Silla, Aldaia edo Valentziako *carxofa*, Morellako *taronja*, Alfarrassiko *angelot de la corda* edo dagoeneko desagertu den Cocentainako *angelet de l'aguila...* Tramankulueta igotako aingeru kantariz betetako zerua, airean esekita, hodei izateko bokazioarekin.

Misterioan, Joan Fusterrek idatzi zuen moduan, “*la festa popular viva recull la tradició docta, i l'alegria pietosa local s'uneix als signes més immediats d'una cultura resistent, i els residus de les velles litúrgies connecten amb l'àmbit del treball de cada dia, i tot té la seguretat ambigua i a la vegada eloqüent dels grans episodis col·lectius*”. Nekez aurki daiteke jatorri kultuko piezarik, herrian horren oihartzun handi, sakon eta jarraikia izan duenik. Elxeko festan, XV. mendeko gure literatura onenaren ezaugarriak eta gaiak aurki daitezke, gure letren loraldia eragin zuen literaturarena, heldutasun klasiko batera heldutako hizkuntza

batekin, jada “*lemosin*” mailegurik behar ez zuena, jada erronka handiak gainditu zituena: Lull, Metge edo Marc. Haien hizkuntzak latinaren eta okzitanieraren morrontzatik askatzea lortzen du. Misterioak valentziar kutsuko katalan jaso bat erabiltzen du, herri hizkera izateari utzi gabe. Beraz, hizkuntzaren erabilera-aren historia ere bada: gure lehenengo misterio asuntzionista –Santa Maria de l’Estany– latinez idatzita dago, eta liturgiaren apendizet bat da; bigarrena –Tarragonakoa– katalanez dago, nahiz eta okzitanismo ugari eta kantu liturgikoaren pieza asko biltzen dituen: “*Veni Creator*”, “*Tantum Ergo*”...; Valentziakoak ez du “*lemosin*” kutsu handirik, eta haren musikak, gregorianoaz gainera, herri baladak biltzen ditu; azkenik, Elxeoak apenas duen okzitanieraren arrastorik, eta kantutegiko kanten herri moldaketak jasotzen ditu. Ausiàs March poetaren kontsigna betetzen da: “*deixar a part l’estil de trobadors*”; hau da, hizkuntzaren okzitaniera kutsua baztertzea.

Elxeo festa herriaren historiaren gorabeheren isla izan da. Bertan parte hartu duten kantari eta koruen konposizioak horixe adierazten du. Onuradunen Kapera batek eta ahots zuriz osatutako Akolitoen Eskolania batek emandako ekitaldi liturgiko baten moduan hasten da; profesionalek –Mingranako aingeruaren rola jokatzeko duten “*castratti*”-ak barne– eliz egitura utzi gabe parte hartzen zuten. XIX. mendeko Desamortizazioak funtsik gabe utzi zituen apaizak eta eskolaniak. Iraultza industrialak bere masa koralak eskaini zituen; bitxia bada ere, “*Cor Popular Clavé*” deritzonak ere bere ahotsak eman zituen, eta “kapera” absolutistak eta liberalak ere txandakatu ziren antzezlanetan, udal buruzagitzako alderdi politikoen txandakatzearen arabera.

Ondorengotza Gerrak oinazea ekarri zuen Misteriora, Valentziako Herrialdearen burujabetasun politikoaren deserrotzeaz gainera. Gaztelar-frantziar tropek Elxeo herri “mauleta” asaltatu zuten basatiki setio luze baten ondoren. Artxi-bategia suntsitu eta Festaren paperak erre zituzten. 1709an, misterioaren eskuizkribua edo “*consueta*” sortu zuten berriro, aurrekoaren berdina, halako moldez, non letra tipoa eta notazio musikalak ez datozen bat XVIII. mendeko ereduarekin, XVII. mendeko grafiekin baizik. Hiriaren liburu sakratua zen, “hiru giltzaz” itxitako kutxa gotorrean gordea. Horrela iraun zuen 1707az geroztik herriaren hizkuntzaren erabilera publikoari ezarritako debeku eta jazarpen ororen gainera. II. Errepublikak Monumentu Nazional izendatu zuen 1931ko irailaren 16an, “*una de les festes populars de la més alta prosòpia artística que existeixen en el món*” izateagatik; hirurogeita hamar urte geroago, 2001eko maiatzaren 18an, UNESCOk Gizadiaren Ahozko Ondarearen eta Ondare Ez-materialaren Goren Lana izendatu zuen.

Herrian zituen sustraiei eta botere zibilarekiko mendekotasunari esker, era askotako oztopoei egin zien aurre: inkisizioaren jazarpena, Trentoko Kontzilioaren antzerki liturgikoaren debekua, Oriolako apezpikutzaren etengabeko pre-

bentzio eta kargu hartzeak, elizbarruti horretako 1632ko ohartarazpen batek emakumeak eta gizonak bereizi beharrari buruz adierazten duen bezala, “*estaven en la dita Església tan apretadament mesclats els homes amb les dones, que del mencionat estretor tots els anys es seguïen mil deshonestedats i desvergonyeixes, les quals ocasionen bregues i que dins de la Casa de Déu es vessara sang i es feriren els homes, així mateix es feïen berenars, menjant amb profanitat com sol fer-se en les corregudes de bous o altres festes profanes, venent dintre de l’església, fruites, vi i aigua*”. Lekukotasun horrek ederki asko azaltzen du nolakoa zen festa, globala eta globalizatzailea.

Nolanahi ere, Elxeko Misterioa ez da dramatizazio hutsa. Elxeko Santa Maria Basilikan abuztuaren 14an eta 15ean antzeztu eta ospatzen den, egin eta bizitzen den horixe da.

Gauetz, *Roá* delakoak –katalanezko “*rodada*” hitzaren kontrakzioa– liturgia asuntzionista luzatzen du 14tik 15era bitarteko gauean zehar. Familian eginiko desfile bat da, hiri zaharrean barrena eginiko ibilbide sakratua, kandela piztuekin, dolu komunitarioa hiriaren amaren heriotzagatik. Gaubeila kolektiboa. Zubi moduko bat da, lehenengo egunaren eta bigarrenaren artean. Lehenengo eguna, “Bezpera” deritzona, bere une nagusiekin, hala nola *ternari*-a –polifonia goiztiar eta goren–, *magrana* edo *núvol*-a, eta *Araceli*-a, 30 m-ko altueran kantari ageri diren aingeruekin. Bigarren eguna, *La Festa* deritzona, bere ekitaldi nagusiekin: beste *ternari*-a, *Judiada*-ren jendaila, hil elizkizunak, jasokundea *Ressèlica*-ren bidez, eta Andre Mariaren koroatzea Hirutasunaren makinatik, airean eginiko tramoia saio ikusgarri eta liluragarria, jainko olinpikoen hegaldien eta tragedia grekoen apoteosiaren isla, urreizun euria, kanpai hotsak, txaloak, bibak eta gainezka eginiko emozioak.

Elxeko festak dramaturgia moderno unibertsalaren ezaugarriak izan ditu Erdi Aroz geroztik: interkomunikazio bizia ikusleen eta antzezleen artean, publikoaren artean garatutako ekintza, agertoki multiplea, aire makineria, espazio-denbora binomioaren konjugazio perfektua, kalea ere hartzen duen mugimendu eszenikoaren dibertsifikazioa... Globaltasunaren antzerkia da, antzerki globala.

Elxeko festak bere egin ditu betiko konstanteak. Urte askoren eta pertsona askoren emaitza da. Elxeko herritarren ahalegin laikoa, hitz batzuk eta keinu batzuk mantentzeko, Elx hiriaren eta Valentziako Herrialdearen nortasuna berresten duten ekintza, kantu, ezaugarri, muga, geografia eta konfigurazio batzuk mantentzeko. Elxek Elxen hitz egiten den moduan hitz egiten dugunon ahotik kantatzen du, Misterioaren hitzak. Elxek isiltasuna urratu eta hizkuntzaren geografia berreraikitzen du: “*De les parts d’ací estranyes/ som venguts molt pres-tament/ passant viles i muntanyes/ en menys temps d’un moment.../ Cert és aquest gran misteri, / ser ací tots ajustats*”.

Kultura bat berpizten du, herriaren alaitasuna izateari utzi gabe, lurra eta jendea. Festaren liturgia eta eguneroko lana uztartzen ditu. Gizakia eta ahotsa lotzen ditu, jokia eta debozioa, hitza eta harria, solfeoa eta antzerkia. Kanpaia, lorea, zuzia, kohetea, argia, sua, trumoa eta palmondoa konbinatzen ditu kristautasunaren adierazpen plastikorekin eta pertsonen eguneroko bizitzarekin.

Misterioa, jai zibikoa, zapaldutako hizkuntza baten agerpen publiko, duin eta solemne bakarra izan da laido eta ignominia urteetan zehar, baztertutako kultura baten adierazpidea, ikusezin bihurtutako herri baten goraipamen bakarra. Horregatik, Elxeko festa hizkuntzaren sinbolo izan da, literaturaren ikur, arbuioaren eta jazarpenaren kontrako bandera, irrazionaltasunaren aurkako seinale. Valentziar herriaren jatorriaren zigilua da, gure biziraupenaren hezurmitze bizi, herrialde baten bereizgarri, herri oso baten erresistentzia inposatutako nortasungabetzearen aurka.

Abuztu oro, Elxen, ama birjin bat hiltzen da herria bizi dadin. Urtero, Elxeko festa berpiztu egiten da eta herria bizi arazten du.

Xosé Miranda

Lugo, 1955. Biologian lizentziatua. Institutuko katedraduna Lugon.

Nobelak:

Historia dun paraguas azul (Premio Manuel García Barros 1990; Xerais, 1991).

Morning Star (Premio Xerais de novela, 1998).

Infancia e desventura de Lino Carrán (Galaxia, 2000).

Ariadna (Xerais, 2002).

Pel de lobo (Premio Merlín, Xerais, 2002).

Narrazio-liburuak:

A biblioteca da iguana (Xerais, 1994).

O demo á orella (Xerais, 1996).

Tarxeta vermella (Xerais, 2003).

As mans do medo (Xerais, 2007).

Poesia:

Sonetosfera (1996).

Amantes e viaxeiros (1996).

Carozo azul (1997).

Permiso para o curso (Premio Esquío 1998).

As cidades mergulladas. Poesía reunida 1973-2002 (Xerais, 2003).

Capitán dos teus ollos (Espiral Maior, 2005).

Piratas polo Miño (Tambre, 2006).

Haur eta gazte literatura:

Lúa e os nubeiros (Galaxia, 2000).

Feitizo (Xerais, 2001).

Álvaro e Álvaro (Xerais, 2004).

Amancio Amigo e o meigo de Salamanca (Xerais, 2006).

Talde-lanean:

Diccionario dos seres míticos galegos (Xerais, 1999).

Pequena mitoloxía galega (Xerais, 2001).

Cando os animais falaban (Xerais, 2002).

Contos colorados. Narracións eróticas da tradición oral (Xerais, 2001).

20 volumes da colección de contos Cabalo Buligán (Xerais, 1998-2004).

Arrepíos e outros medos. Lendas de Galicia (Xerais, 2004).

A flor da auga (Xerais, 2006).

Iruditeriaren Iturriak Literatura Galegoan

Aitortu behar dut, hasteko, hitzaldiaren izenburuak berak “iruditeriaren iturriak literatura galegoan” harritu egiten nauela, hainbat arrazoi direla eta. Batetik, iruditeria edo *imaginario* hitza bera. Hiztegieta bilatuz gero, iruditeria hori existitzen ez den zerbait da, ez da erreala, hau da, fabulazkoa da, fikziozkoa, irrealia, ez egiazkoa. Horrela harturik, bi aukera daude, lehenik, orokorki onarturik dagoena eta nire ustez hausnarketan oinarritu ez dena batere, hau da, iruditeria deiturikoa fantastikoarekin nahastearena, eta hortaz, iruditeria literatura fantastikoari propioa zaiona dela onartzea; eta bigarrenik, kontrakoa, literatura guztia fikziozkoa dela dioena, baita errealista modura autodefinitzen dena ere, eta liburuetan baino ez da existitzen, irudimenetik dator eta. Ondorioz, “iruditeriaren iturriak” literaturaren iturriak dira. Ez bakarrik fantastikoarena, baita pikareskarena, genero beltzarena, tesi-nobelarena, haur eta gazte literaturarena, epikarena, epepiarena, antzerkiarena, abentura-nobelarena eta dena delakoarena. Eta gutxi-asko pentsatuta, hori egiazkoa da: kontu hauek guztiak bazeuden ahozko literaturan. Baina uste dut gaia proposatu zutenak ez zihoazela bide horretatik. Hirugarren aukera bat aipatuko dut: iruditeria irudimenetik ez hartzea, baizik eta *iruditik*. Nire ustez, iruditeria taldeak onarturiko irudi-multzoa da, hau da, osatzen gaituzten mitoen multzoa: gizotsoa, Moura, Pepa Loba, Arturo Erregea, Kristo, Errege Magoak, Perez arratoia, odol-zupatzailea, baina baita Foucellas, Pilotoa, Curuxás, García Erregea, eta abar. Jakin badakit sobera eremu labainkorrean nabilela eta Betelheimen psikonalisia zein Jüngen inkontzientea ondo-ondoan koka daitezkeela.

Eta bestetik, zer ulertzen dugu iturritzat? Iruditeria galegoaren iturria (dena delakoa ere) ahozko literaturan dagoela esanez aska nezake korapiloa, eta baliteke hori izatea nire hitzaldi honetaz espero dena. Baina zertxobait sakonduz gero, argi dago ahozko literatura guztia ez dela garai berekoa eta ahozko literatura guztiak ez duela jatorri bera. *É qui li cuá*. Oso denbora gutxi dugu eta ondoko ohar hau baino ez dut egin nahi: Galizian mugimendu antimilogiko absurdua ezarri da, eta esaterako, *mourak*¹ nekazarien aurrean eginiko erantzun negatibo moduan azaltzen ditu. Ikerlari hauek diote, adibidez, *mourak* ilehoriak direla nekazariak beltzaranak direlako, edota *mouroek* altxorak dituztela nekazariak pobreak direlako, eta honen gisako perla asko eta asko. Hori guztia agerikoa

1. Itzultzailearen oharra: *moura* eta *mouro*-ak mairu modura ez itzultzea erabaki da, izan ere, testu honetan defendatzen baita *moura* eta *mouroak* pertsonaia mitologikoak direla, eta horregatik, izen galego propio horrekin izendatzeari iritzi zaio egokiena, mairuaz beste erreferentzia delako adierazi nahi dena testuan.

dena ez onartzearren: *mouroak* mito dira eta gaur ere existitzen den literatura galegoaren mitologiaren parte dira. Are gehiago, mitologia hori lehen laborarien jardunean du jatorria. Izan ere, arrazionalismoak arrazoia baztertzeko duenean orduantxe bihurtzen da sineskeria arriskutsu. Arrazoiaren ametsak munstroak sortzen ditu.

Digresioak alde batera utzi eta gaiari lotuko natzaio. Ahozko literatura hartuko dut iruditeria galegoaren iturrietariko bat. Horrela izanik, literaturan genero anitz dago: batzuk prosaz, beste batzuk bertsoz. Gainera, egon badaude errezoak, esaerak, igarkizunak, errefrauak, oso interesgarria den haur folklorea, eta abar. Bertsoz egindako generoen artean, kantigak eta erromantzeak ditugu, narrazioak direnak egiazki, eta hasiera batean Erdi Aroko jatorria zutenak, geroxeago etorri direnek hilketak eta maitasun kontuak kontatu badituzte ere, nobelaren zenbait genero aurre-irudikatuz.

Eta prosaz, hiru genero narratibo: ipuina, legenda eta mitoa. Aipa dezadan laburki; ipuina fikziozkoa dela jakinda kontatzen da (asmakeria da, fabula da) eta Aarne-ri jarraituz talde hauetan sailka daiteke: animalienak (fabula klasikoaren modukoak direnak), txistek eta anekdotak (oso errealistak eta naturalistak), formula-ipuinak, eta ipuin folkloriko arruntak, eta hauen barruan kokatzen dira ipuin “miresgarriak”, eta azken hauetan magiak badu lekua, naturaz gaindiko lehiakideak badaude eta gainditu beharreko frogak badaude, eta abar. Besteak beste, Brancaflor-en ipuina, Lagarto Printzearen ipuina, Buligan zaldiaren ipuina, deabruaren hiru hileen ipuina, Printzesa eta erraldoiaren ipuina, Ollaparen² ipuina, eta abar. Izaki mitiko galego asko eta asko azken mota horretako ipuinetan agertzen da. Kontuan har bedi “maitagarrien ipuin” horiek denbora eta mundu mitiko batean gertatzen direla, definizioz. Legenda, aldiz, egiazkotzat hartzen den narrazioa da. Kontalariak *gertaera* erreal, egiazko bezala kontatzen du: berau xedatzeko jitea da hori. Legenda gertaturikoa da eta frogatzeko, egiaztatzeko, protagonistaren edo lekukoaren izena ematen da: hau gertatu zitzaion nire aitonari, nire izebari, nire lagunari, nire lagun baten lagunari, nik neuk ikusi nuen begi hauekin, eta gainera aipatu egiten da noiz eta non gertatu zen. Hona hemen adibide bat: *Felixek kontatzen du bazegoela Marcen emakume bat Generosa do Polvora izenez ezagutzen zena, Monfortinaren ahizpa zena, eta aita hil zitzaionean hortxe zegoela bere etxe azpian eta zakur baten moduan zebilela zaunkan. Eta kontatzen zuten hil baino pixka bat lehenago ahizpari eskuineko eskua eskatu zion, baina hark ez zion eman. Horren orde, erratz baten makila eman zion. Generosa hil egin zen eta erratzak alde egin zuen hegan.* Legendak duen “egiaz-

2. Itzultzailearen oharra: *Olláparo* Galiziako mendi eta basoetan bizi den pertsonaia mitologikoa. Bi begi dituen legenda batzuen arabera, bata kopetan, bestea lepoaren atzealdean.

ko” izaera hori fabularen kontrako joera da, eta horiek horrela, “iruditeria” izenburuari buruzko galderak sortzen zaizkigu, izan ere, legendak zehazki ez *imaginarioa* izateko asmoa du, egiazkoa izateko asmoa. Legendak zalantzara garamatza: bi munduen artean kokatzen da. Beste mundua, bat-batean, mundu honetan agertzen da. Jakin badakit zuetariko batzuek esango duzuela horiek ez direla ohiko legendak, ohiko horiek gazteluetakoak, zaldunenak, santuenak, birjinenak, eta abarrenak direla. Baina oker zaudete. Arkeo-legendak, espezialistek izendatu bezala, hauek dira benetan erro herrikoi, ahozkoa dutenak. Arkeo-legendetan (narrazioaren denborari dagokionez duela gutxikoak balira bezala kontatzen direnak) pertsonaiak sorginak, aztiak, *nubeiroak*³, gizotsoak, begizkoak, sorginkeriak, deabruak, *trasnoak*⁴, deabrutxoak, fantasmak, Konpainia, Hartzaren Sozietatea, zakurrak, Zarrulada, otsoak, eta abar. Beste alde batetik, neo-legendak legendarekin komunean du bere egiantzekotasunerako asmoa, baina ez da berehalako munduan eta denboran kokatzen (antzina gertatzen da, zaldunen eta gazteluen garaian, santu ibiltarien garaian, Birjinen garaian, Santiago Bideko garaian), baina denbora eta mundu ezagunetan kokatzen dira, eta horregatik ezin da aurkeztu gertaturikoaren lekukotzarik. Legenda hauetariko askok jatorri idatzia izango zutelako susmoa dugu. Bada hirugarren motako legendarik, gaur egun oso ezagun dena: *legenda urbanoa* deiturikoa. Bertan ez dira normalki naturaz gaindiko izakiak agertzen, baina egiazkotasunaren izaerari eusten zaio, gertaturiko zerbait kontatzen du, eta lekukotzak ematen dizkigu: lagun baten laguna. Egunkariak eta internet legenda mota hauetaz josita daude. Folklore mota berri bat osatzen du, *xeroklore* deiturikoa. Unibertsala eta transbertsala den arren, ez da hain modernoa ere uste den moduan, ez da soilik urbanoa, eta behin eta berriro lokalizatzeari eusten dio. Esate baterako: *A Coruñan ume bat gurasoekin feriarra joan zen eta zalditxoan gainean ibili zen. Txikia, pobrea zen, akaso ez zuen hiru urte baino gehiago. Zaldi baten gainean jarri zen eta negarrari eman zion derrepentean. Amak hartu zuen, baina negar eta negar haurra. Etxera eraman behar izan zuten. Zaldiak hozka egin ziola esan zuen. Eta, jakina, ez zioten kasurik egin. Haurren kontuak zirela pentsatu zuten. Baina iluntzean oso gaixo jarri zen, oka eginez, besoa puztu zitzaion, beltz jarri zen. Medikuari deitu zioten, baina berandu heldu zen. Hil egin zen haurra. Eta kontua da, besoan bi hozkada zituela. Ez zion zaldiak hozka egin, bipera batek baizik. Polizia zaldiko-maldikoak ikustera joan zen, eta umeak zaldian eginiko bipera topatu zuen.*

Baina *mitoaz* hitz egitea falta zaigu. Estimatzeko hain zaila den pieza narra-

3. Itzultzailearen oharra: *nubeiro*-ak espiritu gaiztoak dira, zaparradak eta ekaitzak sortzeko gaitasuna omen dutenak.

4. Itzultzailearen oharra: *trasno*-ak gauzez agertu ohi den izaki fantastiko bihurria da, mamu baten antzerakoa.

tibo hori, ipuin eta legendaren artean dagoela ematen du eta: ipuin miragarriak bezala denbora “imaginarioetan” gertatzen da, ohiko metodoekin neurtu ezin diren denboran gertatzen dira, alternatiboak baitira, jatorrietako denboran kokatzen dira, ibilbide linealari erantzuten ez dioten María Castañaren garaietan, eta legendak bezala egiazkotasunerako asmoa du. Hori egiazki “gertatu zen”. Ez dago lekukotzarik, baina gertatu zen eta agerikoa da. Ez da neo-legenda bat, egia esateko, ez baita hitz egiten gizakiezin, munduaren sorreran dauden jainkoezin baizik. Mitoak gauzen sorreraz hitz egiten du, komunitate baten sinesmen sakonezin hitz egiten du, eta horregatik, horiek galdu egiten direnean ipuin edo legenda modura jasotzen dira. Eta horixe da Galizian gertatu dena: orain arte folkloristek ez zuten hitz egiten mito galegoez, izan badirenak eta ugari direnak. Legenda modura edo ipuin etiologiko modura sailkatu izan dituzte edo baita txiste edo anekdota huts bezala, harriturik. Erljio nagusira moldatzeko asmoz forma aldatu izan zaio pertsonaia orijinalari, eta ezkutaturik igaro daiteke. Ikus ditza-gun adibideak: *Eume ibaia Xistralen jaiotzen da, Xistralgo Iturrian, eta gero beherantz doa eta Realaren lekutik igarotzen da. Han bazen urpean geratu zen herri bat. Egun batean ekaitza etorri zen, euri jasa eta Veiga do Real urperaturik geratu arte ez zuen atertu. Putzu oso-oso sakona egin zen, Realgo Putzua. Eta biztanleak han geratu omen ziren, eta ur azpian bizi omen dira. Kontua da, han ageri direla emakume batzuk ilea orrazten, ziur asko herri hartakoak ziren emakume atseginak. Eta bazuten txakurtxo bat, txakurkume txikitxo bat handik igarotzen zirenen ardiak hartzen zituena eta Putzuaren sakonerantz bidaltzen zituena, biztanleak elikatzeko izango zen, zer dakit nik. Sorgin bat, edo moura bat, eta bere alaba, kastroan bizi zirenak, Perdido Mendia oinez zeharkatzen zuten. Ama irun eginez zihoan eta buruan harkaitz bat zeraman; neskatxak buruan eltze bete esne zeraman. Arroka hiltzean, sorginak, edo mourak, harlauza baten gainean irrist egin zuen, buruan zeraman harkaitza erori egin zitzaion eta alaba zanpatu zuen. Ama, zoritxarra ikusirik, sumindu egin zen, eta esan zuen: - Pena Castrela, eltzea hautsi didazu, alabatxoa hil didazu; deabruak pitzat zaitzala isatsetik belarrira. Eta zigortzeko beste harri bat hartu zuen (metro erdiko luzera zuena) eta bota egin zuen gainera. Eta hortxe dago arroka, bitan banaturik. Moura-k, ikusten den bezala, erraldoiak dira, buruan harlauzak eramaten dituztenak, esku batekin irun egiten dute eta, nahiz eta hemen aipatu ere egiten ez den, aldi berean, beste eskuarekin esnea irabiatu egiten dute edo gurina egiten dute. Denborarekin, sorginekin nahastu egin ziren, baina ikusten den bezala, ez dira sorgin arruntak, baizik eta naturaz gaindiko sorgina erraldoiak dira, Britainiar Uharteetako antzekoak. Egiazki, Mari, Moura, Morgana, Morrigan jainkosaren aldaerak dira. Harkaitz, trikuharri, gaztelu eta kastroen arduradun den jainkosa hori, eta batzuetan baita zubi eta elizen arduradun ere badena, eta jakina leize, mendi, kastro, eta iturrietako biztanle dena, itxuraz eta borondatez aldatzeko gai dena, bat-*

zuetan kobra dena eta beste batzuetan oilanda, batzuetan behor dena, zahar eta gazte, eta zerrien, behien, esne eta gaztaren, ardoaren, ogiaren eta zerealen maitale, ordezkatzeko eramaten dituen neskatxan maitale, eta mutikoen maitale, eta denboraren gobernatzailea, neguarena (berak eragiten du izoztea: *zaharrak nahi beste xahutzen zuen; zaharra gauez xahutzen du*; berak sortzen du beroa; *zaharrak nahi beste hornitzen du*, esaten da sargori den egun batean, Folen ageri da), zahar-raren arkuarena eta ipurtargiena (*zaharrak egiten ahiak*) eta *maruxiñena*. Zahar horrek sortu zituen mendiak eta mendietan gurtu egiten da: faroan, Cebreiron, Ana, Maria, Mariña izenekin, haren azken berraragizatzen direnak. Baina batzuetan Jainkoa bera da. *Jainkoak mundua egiten amaitu zuenean egin zuen azkena, eta hobe egin zuena, Galizia izan zen. Nekaturik zegoen, eta ipurdia Santa tegraren mendiaren muinoan pausatu zuen, baina ez zen behar bezala jarri eta ez erortzeko eta barregarri ez geratzeko, eskua jarri zuen. Bere pisua zela eta atzamarrak markaturik geratu ziren eta marka haietan barna sartu zen itsasoa. Bost atzamar horiek osatzen dituzte bost itsasadarra, Rias Baixas deiturikoak: Vigokoa, Pontevedrakoa, Arousakoa, Muros eta Noiakoa eta Corcubi3n eta Ceekoa. Ah, baina Jainkoa buztinez zikinduriko eskua altxatu zuenean, astindu egin zuen, eta horrela, itsasoan erortzen ziren pila horien tamaina handia edo txikiaren arabera honako uharte hauek jaio ziren, C3es uharteak, Sisargas uharteak, Ons eta Oncela uharteak, S3lvora uharteak, Arousa uharteak eta beste zenbait uharte galego.*

Uste dut, zahar horixe dela zeltek eta germaniko britaniarrek Cailleach deitzen dutena, Kandelerio dena, eta negua du bere, azaroaren letik maiatzaren 1era bitartean, jada etxetik atera eta gerrara joateko ordua heltzen zenean. Zeltek garai horretan bakarrik egiten zuten gerra. Azaroaren 1ean abiatzen da hilen garaia, negua, Cailleach gazte izateari utzi eta zahar egiten denean. Izan ere, Erdi Aroko Espainietan gerrara joatea *al maio* esaten zen: horrela dio Alfontso X erregeak: *Quen da guerra levou cabaleiros e a sa terra foi guardar di3neiros non ven al maio!* Ohar zaitezte azaroaren 1aren eta maiatzaren 1aren erdi-erdian kokatzen dela Kandelerioa, otsailaren 2an, txoritxoak ezkondu egiten diren egunean. Eta ohar zaitezte, udako solstizioaren egunean, San Juan egunean, sorginkeriatik irten nahi duen Moura agertu egiten dela. Moura lurrazpian bere borondatearen aurka gorderik dagoen Jainkosa da. San Juan gauean etorri ohi da, neskatxaren itxura duela, sorginkeriatik aska dezagun. Eta ez da mitoa bakarrik gordetzen, harrigarriro erritoaren deskribapena ere gorde egin da. *Mouro batek hiru opil ematen dizkio hango gizon bati, zein bere txirikordarekin, eta esan egiten diote ez hartzeko puskarik eta ez kentzeko konkorrik ogiari. Kastrora heltzerakoan Pedrok ogiak banan-banan eremuaren erdian botatzeko agintzen dio, esanez: –Aureana, aureana, Anak ematen dizun ogia har ezazu! Horrela egiten du gizonak, baina bere emakumeak, bizkitartean, haztatzen du opilak daramatzan zakua eta txirikorda bat jan egiten dio opiletariko bati. Herritarra kastrora heltzen denean, ogi*

bat bota egiten du eta emakume eder bat agertzen da mando potxolo baten gainean, eta ihes egiten du tximistak bezala. Beste bat bota egiten du, eta iguala den beste emakume bat ateratzen da, bere mando eta guzti. Hirugarrena bota egiten du, osorik ez dagoen hori, eta ateratzen den emakumea mando herren batean doa, eta horrela ezinezkoa zaio sorginkeriatik askatzea.

Moura Jainkosa kobra da, eta kobra guztien modura negua lurrazpian igarotzen du, eta kobren modura hilezkorra da eta kobren modura anibalentea da, ugalkortasuna eragin dezakeena eta irensteko gaitasuna ere izan dezakeena. Galizian existitu izan zen nekazal herri europar baten Jainkosa laboraria da. Europarra, ez indoeuroparra. Genetikoki ez baikara indoeuroparrak. Herri horri gainjarri zitzaion beste kulturarik eta hizkuntzarik, biztanlerian baino areago, beste herri indoeuropar zenbait (zeltak, latinoak, germaniarrak) beste mitologia batzuk ekarri zituztelako, baina Jainkosak orain arte bizirik iraun du: lurrazpian. Existitzen da, hortaz, mitologia galegoa ez da irlandarra, britainiarra, bretoia, euskalduna, lituaniarra, finlandiarra, alemaniarra edo latindarra baino gutxiago. Deszifratzea zeregin luzea izango da. Momentuz hanpa dezagun⁵ *mouroak* eta *mourak* badirela, altxorrak, *trasnoak*, *tardoak*, *Diaño Rumudoak*, *perelloak*, *sumicioak*, augurioak eta heriotza-iragarpenak, Hiru Mariak, *Raíña Loba*, liburu eta sendabide magikoak, urre- eta mundrun-habeak, sorginkeriak, *lamiak*, *xaciak*, sirenak, emakumezko hankak dituzten ahuntzak eta ahuntz-oinak dituzten emakumeak, *mecos*-ak, *rabenoak* eta gizon basatiak, lurrazpiko ezberdina den mundu batekoak diren izakiak, otsoen *peeiro*-ak, zaldi-mamuak, agerkundeak, heriotza-hegaziak, txakurtxo errariak, Morrazoko azeriak, Konpainia Santua, sorginen prozesioa, *Peago* putzuak, lurrazpiko itsasoak, urperaturiko hiriak, kobra hegalaria esne irrikaz egoten direnak, *herba cabreira*, druida-arrautzak, tximista-harriak eta suge-harriak, *maruxainak*, zaku-gizonak, *mariamantak*, hortz berdeko *meigak*, arrain-gizonak, tripontziak, *sacaúntosak*, *zarroncosak*, *biosbardosak*, *cozorrellosak* eta beste asko eta asko.

Bukatzeko, argia da oso herri mitologiak eta ahozko literaturaren genero zenbaitek literatura idatziaren mota anitzekin duten harremana. Horrela, errealista deituriko literatura, Aarne-k “txiste eta anekdota” eta “ipuin erromantiko eta nobelesko” izendatzen dituen horietatik hurbil dago; miragarriaren literatura (batzuek modu okerrean fantastiko deitzen dutena, eta anglosaxoiek fantasia deitzen dutena), Dunsany, Tolkien edo Ursula LeGuin-en moduko literatura,

5. Itzultzailearen oharra: mitologia galegoko izaki mitologikoen zerrenda osatzera dator, eta bakar-bakarrik itzuliko dira izen horiei, izen mitologikoei, gehitzen zaizkien ezaugarriak. Jatorrizko izena gorde da zentzua gordetzeko, zerrenda hauetako izaki horiek guztiak, deabrutxoan aldaerak, espiritu anitzen aldaerak edo sorgin mota ezberdinen aldaerak dira, edota animalia eta landare magikoak direnak, eta baita espazio magikoak ere (lurrazpikoak, urrazpikoak).

ipuin miragarri eta mitoetatik dator; fantastikoa (Fole, geure kasuan), arkeo-legendatik hurbilago dago; erromantikoak neo-legendatik hurbilago daude gazteluekin, hilekin eta mamuekin; eta “bitxiaren literatura”, esaterako Poe eta Dieste, beldurrezko benetako literatura fantastikotik hurbil dagoena baina batzuetan ez dena, legenda urbanoarekin berdin izan da. Eta Cunqueiro? Cunqueiroren obran ipuina bere osotasunean datza, mitoa, arkeo- eta neo-legenda. Cunqueiron ez dagoena legenda urbanoa da, atsegin ez duelako. Cunqueiro Poe eta Diesterengandik, Cortázar eta Ambrose Biercerengandik, oso urrun dago, eta Borges eta Dunsanyrengandik hurbil.

Nahiz eta galegoek tragikoak izateko ospea izan eta heriotzaren ondoan ibiltzeko ospea izan, *meigak* eta mamuak izateagatik, hildakoekin bizidunekin bezalaxe hitz egiteagatik eta horregatik guztiagatik, umorez beteriko mundu-ikuskerara da galegoena, Cunqueiroren edozein irakurlek dakien bezala, eta baita geure mitologia eta geure ahozko literatura ere. Adibide bat baino ez: barraskiloaren izena.

Lugo, Hasperenen Hiria

Lois Diéguez

Harrizko zirkulua. Cromlech. Adarveko pasealekutik (bost eta zazpi metro arteko zabalera), puntu berean hasi eta amaituz (Santiagoko Atea, beharbada, edo Miñá Atea, Fernán Esquíorena, Erdi Aroko trobadora, edo Ate honetatik maitemindurik sarrarazi zuen Álvaro Cunqueirorena), hiriaren barnealdea inguratuko dugu, hiriaren alderik zaharrena. Latitude europarretan parerik ez duen luxua. 10-12 metrotako alturan gaudela, etxeak, eraikuntzak, plazatxoak eta monumentuak ikus ditzakegu, bertso batean gordetzeko zirrara, bertsoa delako geure izaera pertsonal eta kutunena. Cóengoseko pasealekutik ibili, Anxel Folek esandakoa gogoan: “*neguko ilunsentietan, eguzki onak jotzen zuenean, asebeteriko kalonje hiltzenez betetzen zen, tropatik erretiraturikoez... ume bihurriez, ezkongaietz*”. Gizadiaren Hondarea da 2000. urtetik, Harresi hau edo etengabe taupakak dabilen bihotz lugoarra, osorik dirau, moldaketa gutxi egin zaizkio, hamar ate ditu (erromatar garaiko, Erdi Aroko eta hemeretzigarren mendeko aztarnak daude, baita XX. mendekoak ere), III. mendetik aurrera bizi handikoa. Harresia bera baino zaharragoa den historia duena, Lugoko hiriak gobernatu du baso sakratua –harizti ederra gurtza egiteko erabiltzen dena (**Lucus**, edo *Basoan argia*, diote legendek eta tradizioek)–, aztarna ugari utzi dituzten mende erromatarretan, eta sueboen erresumako hiriburua ere izan da, eta Erdi Aro berantiarrenean Ordoño II. arekin. Lugoko historia, erromatarren historia izan ondoren, apezpikuen historia da, horrela zioen Luís Pimentelek. Beste poeta lugoar batek, Manuel Maríak, honela definitu zuen “Emagin eta ama, baso sakratu”.

Bigarren zirrara ibilaldi labur eta pertsonal honetan: Santiagoko Ateranzko jaitziera eta Katedralaren aurrealde neoklasiko hori. Pixkatxo bat hondatua, hori bai. Baina joan gaitezen barrura nabe ilunetan zehar ibiltzeko, gotikoarekin tra-

za zehaztua egiten duen estalitako erromanikoa, Fernando de Casasen barrokoa, Begi Handien Birjinaren kapera aurrean arnasbide duena. Irri neurtuaren irudi eta ariman iltzatzen diren begiak. Zuriz margoturiko fruitu barrokoak eta landarean zirkulua errepikatuz. Triforio erromanikoa pisu eta dotorezia altu. Eta kanpoan berriro ere, Iparreko Atea, Kristo maiestatean irudikaturik duena, Zazpi Zigiluen liburua neurtzen ari dena, zeinetan geure obrak idatzirik dauden, akaso. Eta maisutasunez emandako amaiera, parekorik ez duena: zintzilikaturiko kapitela hori, Azken Afariaren eszena ederra irudikaturik duena, oso espazio txikian egindako eta kontu handiz landurikoa (Juan maitekiro etzaten da Jesusen altzoan). Kanpoaldea, Santa Maria plazatik, bikaina da, eta bere magia sentitu ahal izateko ilargi argiko gauetan urrez piztuz Dorre handiak eta fokuak.

Hemen, Apezpikuaren Jauregian, eskailera luzexka duen honetan, adarkaturiko hirugarren hasperena abiatzen da. Lugo hasperen delako, ate handi delako irudimenarentzat eta legendarentzat. Campoko plazatxoan sartzen gara, bertan Luís Pimentelen arabera *etxeak makuluak erabiliz igotzen dira*. San Vicenteko Iturria, batzuetan iturburuetatik botatzen duen hori. Burdinazko usoak balkoietako arkuetan. XVIII. mendeko jauregi edo etxe nagusiak kaleetan sartuz, zenbaitetan aztarna erromatarrek edo Erdi Arokoak atzeman daitezke. Sangroko Jauregia ezkutu itzela eta perfekzionatua duena. Miño kalea, Nova kalea, Carril dos Fornos kalea, Estantigas kalea... Nortasun eta edertasun handiko Lugo hiria, berriztapen-lanek ekarritako kolorez animatua eta baita museoz ere; hortxe dugu, esaterako, Mosai-koen Etxea museoa, domus erromatar baten aztarna esanguratsuak gordetzen dituena, margoak, kanalak, habeak eta mosaikoak dituena. Eta plazatxo umil eta ederretan, basa-arrosak, San Franciscoren gotikoa, arkuen perfekzio erdizirkularrak zabaltzen dituzten kapitela bikoitiez osaturiko klaustroa, San Domigos-ekoa isil eta gordea. Elizaren goiko hegian ikusi ahal izango dugu, zerbikalek laguntzen badute, begitarte eta animalia miresgarrienak. Merezi duen jolasa da.

Hasperen luze horren adarkatzeak dira Plaza Nagusikoak. Cortiñas Plaza zahar eta ikertua. Bere azken historia tristea da eta desamodioarekin zertxobait loturikoa, hortxe sikatu baitzituzten zumardiko zumar zaharrak, erdi-erdian zentzurik ez duen kiosko bat jarri dute, eta obra amaitu egin zuten gusturik gabeko hilarri poetiko bat ezarriz, eta hiriaren sortzaile diren Augusto eta Paulo Fabio Maximoren irudi errealista eta ikaragarriak ezarriz. Baina, Udaleko Jauregiaren aurrean irribarre egiten dugu, Ferro Caaveiro geure arkitekto estimatuaren obra ederra dena, atzealdeko ordulari altukoa, eta baita barrokoko gloria-aurrealde pertsonala ere baduena. Eta frantziskotarren komentua, bere estiloaren barruan apalagoa dena, baina bistarako eta armoniarako atsegina dena. Eskultura bikainak ere badira Folerena, plazaren goiko aldean dagoena, eta Luís Pimentelen omenezko monumentua, beheko aldean, poetaren bizileku izan ziren etxeen parean.

Bidai azkar honetan, ezin da mundu erromatarra osatu San Roque Museoa eta Termak ikusi gabe, hiriaren behealdean, Miño ibaiaren ondoan, geure Miño aita handia poetek deitzen duten moduan. Museoan iturri errituala ikusi ahal izango duzue eta erakusgai diren tokian topatu ziren antzinako hilobiak ere. Termetan, erromatarren bainuetxe zaharra, ur osasungarriak oraindik ere isurtzen dituena bere gorputz mindua osatu nahi dutenentzat. Eta hiritik hamalau bat kilometrotara, Santa Eulalia de Bóveda, beharbada ninfeoa, beharbada mausoleoa edo bainuetxea, ez dago argi, baina oraindik ere IV. mendeko grabatu eta pintura zoragarriak gordetzen dira, eta bertako hegazti, landare eta zuhaitzak geure begientzat atsegin iturri izango dira. Eta AMAIERA, pelikuletan bezalaxe, bidaia pertsonal eta hasperenduna amaitu da. Baina ez gara joango itzultzeko asmorik gabe, beste behin, aberastasun natural honetaz gozatzeko: bertako jakiak. Sukaldea ugaria eta gozoa, zapore onekoa, berriro ere itzultzera behartuko gaituena, bestelako bidai sosegatuago bat egitera. Ez ezazue gal.

Lugoko hiriari oda

Emagin eta ama, baso sakratu:
zure zuhaitzak orain harrizko dorreak dira,
hargintza eta zementu. Harresia
zeure zirkulu magiko eta sakratua babesten eta
gordetzen duen itxitura da begi
misteriotsu eta erraldoia bezala, zelatatuz
hodei tragiko handiak
zure gainean tristura kontsolaezinari
negar egiten diotenak. Zure
txoriak kanpai pisu melankoniatsu
gogorazleak bihurtu dira
eta zain dira, inoiz ere ez betirako,
dardarka den bere oroitzapen mehean,
kantu zeltak, erromatarrak eta sueboak
oihartzun egiten dutenak, neure antzinako bihotz
akitu eta zaharra, Miñoren
olatu magikoen zurrumuruarekin
–garbi, musikal, agian betiereko–
Oh hiri, bizitzeko hiri, eta ez hiltzeko!

Manuel María en *As lúcidas lúas do outono*
[*Udazkeneko ilargi argiak*] liburutik hartua.

Asmatuzkoaren klasikoak

Caterina Valriu Llinás

Inca, 1960.

Filologian lizentziatu nintzen UIB unibertsitatean (*Universitat de les Illes Balears*), 1983. urtean. Bi urte geroago, Mallorcako antzinako inauteriarri buruzko tesina irakurri nuen, ahozko tradizioan oinarritutako lana; lizentziatura saria lortu nuen lan horrekin eta bi liburutan argitaratu zen: *El Carnaval a Palma, com era abans* (1989) eta *El Carnaval a Mallorca* (1995). 1992an, unibertsitate berean doktoratu nintzen, fabulek eta elezaharrek gaur egungo haur literaturan duten eraginari buruzko tesiarekin: *Influències de les rondalles a la literatura infantil i juvenil catalana* (1998).

1990. urteaz geroztik, UIBko irakasle titularra naiz, eta kataluniar literaturako eskolak ematen ditut.

1987. urteaz geroztik, ipuinak eta fabulak kontatzen dizkiet Herrialde Katalanetako txoko guztietako haur, gazte eta helduei, “Catalina Contantes” izenordearekin. Mila inguru saio egin ditut, jendeari ipuinak eta istorioak kontatzeko. Gainera, haurrentzako ipuinak argitaratu ditut: adibidez, *En Galceran i les marietes* eta *Les banyes d’en Cucarell*, biak ala biak 2006an.

Kataluniako imajinarioko klasikoak (XIX. eta XX. mendeak)

Idazlea oinordeko bat da funtsean. Ondare baliotsu bat hartu eta birformulatu egiten du. Ondoren, bere garaiko irakurleei uzten die bere obra oinordetzan, baita etorkizuneko irakurleei ere, baldin denboraren proba zaila gainditzeko kapaz bada, denbora baita testu bat klasiko bihurtzen duena. Idazlea, bere bakardadean, maila bat besterik ez da katea luze batean, hari bat tapiz baten irazki korapilatsuan. Idaztean, literatur iturrietatik edaten du, letrak deszifratzen ikasi aurretik jaso zuen ahozko literaturatik; ondoren, irakurketa “triade” edo inposatuetatik, gizarteak klasikotzat dituen obretatik, gure bizitzaren zati den mundu

mitikotik, mundua ikusteko modua taxutzen eta errealitatea ulertzen laguntzen digun mundu horretatik.

Betidanik, leku guztietan eta kultura guztietan, gizakiak mitoak sortzeko premia izan du. Gure izaerak bere-berea du pentsamendu mitikoa, eta pentsamendu hori pentsamendu logikoarekin batera bizi da. Erljioak oinarri mitiko baten gainean eraikitzen dira, giza egoeraren ziurgabetasunari erantzuten ahalegintzen den oinarriaren gainean. Historia, aldiz, iragana egituratzen ahalegintzen den substratu mitiko baten gainean altxatzen da. Hedabide modernoak, zati handi batean bederen, hoztasun arrazionaletik harago gugan eragiten saiatzen den oinarri mitiko baten gainean artikulatzen dira. Imajinarioa, horrenbestez, ezinbesteko koordenatua da humanizazio prozesuan, eraikuntza kulturalaren prozesuan.

Zein dira Kataluniako literatur imajinarioko XIX. eta XX. mendeetako klasikoak? Galdera zail, multidirekzional eta konprometitua da, baita nahasgarria ere agian. Galdera horri orrialde gutxitan erantzutea lan nekeza da, erakargarria ere aldi berean. Hainbat ikuspuntu erabil daitezke horretarako, denak interesgarriak ziurrenik, baina bat aukeratu beharrean nago. Gure idazleek azken bi mendeetan behin eta berriro erabili dituzten alegiazko erreferenteak azaltzen ahaleginduko naiz, aberri “imajinario komun” bat eraikitzeke balio izan duen istorio, pertsonaia eta zio multzoa. Ez alferrik, kultura berezi eta aldi berean ireki bateko –kataluniar kultura– partaide izatearen sentimenduak erreferente horietan ikusten du ispilaturik bere burua.

Imajinario fantastikoa

Imajinario fantastikoa naturaz gaindiko izaera edo boterea duten izakiek osatzen dute: sorginek eta maitagarriek, deabruak, espirituak, arima herratuak, etxeko edo basoetako izaki ñimiñoek, mirarizko heroiek, herensugeak eta erraldoiek... Era honetako izakiak kultura askotan ageri badira ere, bereziki errotuta daude mediterranean tradizioan. Gurean, fisionomia bereizgarri eta ezohiko batekin ageri dira.

XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran, Kataluniako literatur mugimendu nagusietan neurri handiagoan edo txikiagoan eragiten duen ideologia nazionalistak garrantzi handia ematen dio bertako imajinarioa erabiltzeari, XIX. mendearen erdialdetik aurrera folkloristek bildutako eta ordenatutako iruditeria lantzeari. *Renaixença*-k, *Modernisme*-ak eta *Noucentisme*-ak lotura estua dute Kataluniaren egituratze nazionalarekin, baita frankismoaren ondorengo literaturaren zati handi batek ere. Horregatik soilik jarraitu ahal izan du bizirik hainbat erreferente mitikok.

Jacint Verdaguer-ek *Canigó* (1885) idazten duenean, poema narratibo luze bat sortzen du. Poema horrek Katalunia kristauaren jaiotza mitifikatzen du, kultura musulmanarekin aurrez aurre ezarriz. Bi elementu bilbatzen ditu horretarako: maitagarrien mito paganoa eta gerlari askatzailearena. Errepara diezaiegun maitagarriei, *urrezko bizitzaren* literatur topikoa hezurramitzen duten alegiazko pertsonaiei: edertasuna, atsegina, hilezkortasuna, gozamen maitatia, naturaren gozamina, arteak... Verdaguer-ek ahozko tradizioetik hartzen du beldurra ere eragiten duen gizakiaren amets zahar hori: munduan bizitzea baina mundutik kanpo, naturaz gaindiko boterea edukitzea baina aldi berean gizatasunik ez izatea... *Canigó*-ko maitagarriek, *Flordeneu* erregina buru dutela, lilura sortzen dute alde batetik; bestetik, baina, uxatu beharreko zerbait dira, oldarra eta zuhurtzia aurrez aurre, plazera eta betebeharra. Gure idazleek birsortutako maitagarrien artetik, erreka eta itsaso ondoan bizi direnak dira zalantzarik gabe aipagarrienak, Piri-*nioetatik* Balear uharteetaraino.

Canigó-tik hamabost urtera, *Visions i Cants* (Joan Maragall, 1900) izeneko poema bilduma elezaharren erabileraren adibide argia da, bi helbururekin idatzia: istorio erakargarriak birsortzeko eta erreferente identitario batzuk ezartzeko. Hala, Maragall-en ustez, poema horiei loturiko elezaharrek kataluniarren izaera *-arrazaren* esentzia, garai hartako terminologian- islatzen dute. Antzeko zerbait egiten du Costa i Llobera-k bere *Tradicions i fantasies* (1903) liburuan; Mallorcako elezaharrek birsortzen ditu, erlijio kutsukoak batzuk, historikoak bestetzuk eta jatorri profanokoak haietako asko. *Arruixamantells*, esaterako, elezaharretatik hartua eta Costa i Llobera-k birsortua, maitagarri limurtzailearen paradigma da, sentsualtasunaren bidez zentzua galarazteko eta zorigaitza ekartzeko gai den maitagarria.

Gure kulturako beste pertsonaia liluragarri bat Arnau Kondea da, zalantzarik gabe. Herrialde Katalanak alderik alde zeharkatzen dituen arima herratua da, bere bekatuen ordainetan sugarretan zamalkatzera betiko kondenatua. Ipuin eta kantu zahar ugaritan ageri da, *Catalunya Vella*-ko lurraldeetatik Valentzia eta Balear Uharteetaraino. Mallorcan, XVII. mendean, literatur pertsonaia pertsonaia historiko bilakatzen da *-Ramon Safortesa Fuster, Formiguerako bigarren kondea (1627-1694)-*, eta *Comte Mal* ezizena hartzen du. Erromantze kantetatik eta elezaharretatik, kondearen mitoa literaturara pasatzen da, eta garai, estilo eta genero askotako egileek erabiltzen dute: Frederic Soler *Pitarra*, Jacint Verdaguer, Joan Maragall, Josep M. de Sagarra, Guillem Colom, Gabriel Ferrater, Joan Brossa, Rodolf Sirera... Guztiek birsortzen dute kondearen mito madarikatu, kezkarri eta iluna, betiko kondenatua bere amodio sakrilego, iruzur eta okerren-gatik. Baten batek umorez esan duen bezala, Arnau Kondearen elezaharra *mito sindikalista* bat litzateke, “gaizki ordaindutako soldatak” liritekeelako haren kondenaren arrazoi handienetakoa. Txantxak txantxa, elezahar honek bizirik

iraun badu, herri xeheak boteredun maltzurak zigortzeko betidanik izan duen gogoagatik izan da. Arnau Kondea, *Mal Caçador*-aren elezaharrari ere lotua ageri dena, pertsonaia bitxia da Europako elezaharretan, eta oso eragin konplexua du literatura modernoan.

Oso bestelako izaera du kataluniartasunak duen beste erreferente mitiko nagusiak: Sant Jordi. Erdi Aroan sortutako mito hau historia erlijiosoaren eta zaldunen tradizioaren artean kokatzen da. Sant Jordi heroiaeren paradigma da, herensugea hiltzen duena, herria gaizkiaren eta kaosaren setiotik askatzeko gai den pertsonaia, trukean ezer eskatzen ez duena. Mito honen literatur tratamendua askotarikoa eta zabala izan da, poesian bereziki, baina baita eleberrigintzan eta antzerkigintzan ere: Sant Jordi salbatzaile eta irudi probidentzial gisa ageri da Frederic Soler *Pitarra*, Josep M. de Segarra, Salvador Espriu, Pere Quart eta beste hainbaten testuetan. Herensugeari aurre eginez, ongiaren eta gaizkiaren arteko betiko borroka adierazten du, irrazionaltasunaren eta arrazionaltasunaren artekoa, sena eta zibilizazioa. Tradizio erromantikoan, dontzeila Kataluniaren sinboloa da; herensugea, aberriaren etsaia.

Imajinario historikoa

Sant Jordi-k kataluniartasunaren beste zaldun nagusia ekartzen digu hizpidera, heroi fundatzaileen artean nagusi: Jaume I.a erregea, *el Conqueridor*. Izan ere, truka daitezkeen pertsonaiak direla esan daiteke, elezaharretako tradizio batzuk era berean egozten zaizkiolako batari edo besteari. Jaume I.a gure heroi epikoa da, britainiarren Artús erregearekin, frankoen Karlomagnoarekin edo portugesen Sebastian I.a erregearekin pareka daitekeena. Heroi indoeuroparrean adituak diren egileek eredu narratibo bat eraiki dute heroiaren bizitza zirriboratzeko, biografia mitiko ugaritan errepikatzen diren item batzuetan oinarrituz. Eskema hori herri literaturan nahiz literatura kultuan ageri den Jaume I.a erregeari aplikatuz gero, gure pertsonaiak baldintza guztiak betetzen dituela ikus dezakegu. Hau da, pertsonaia historikoari heroi mitikoaren eredu arketipikoa aplikatzen zaio, eta aberriaren sortzailearen eta askatzailearen irudi heroikoa da oroimen kolektiboan gelditzen dena.¹ Konkistatzailearen balentriak literatur gai bihurtu dituzten idazleen zerrenda oso luzea da. Bakar batzuk aipatzearen: Verdaguer, Maragall eta Carner.

Ramon Llull kasu berezi eta aldi berean paradigmaticoa da: literaturako

1. Ikus Caterina Valriu-ren "La figura mítica de l'heroi: el cicle llegendari del rei en Jaume I" artikulua, *Revista d'etnologia de Catalunya* aldizkariaren 27. zenbakian (2005eko azaroa) argitaratua.

pertsonaia bihurtzen den idazlea. Erdi Aroko jakintsu handiaren mirarizko irudia, haren biografiaren pasarte ospetsuak, alkimista ospea, haren pentsamenduaren unibertsaltasuna, egin zituen bidaia arriskutsuak, fedea eta arrazoia... idazleak limurtzen dituzten elementuak dira. Ramon *lo Foll*, oldarra eta zuhurtzia, ordena eta jenioa, jakinduria eta pertseberantzia uztartzen dituen arragoa gisa ulertuta, *Renaixença*-tik aurrera noizean behin agertzen den pertsonaia da, poema eta antzerki lanetan, eta batik bat eleberri garaikideetan. Gogora ditzagun Lluís Racionero-ren *Raimon o el seny fantàstic* (1985) edo Francesc Puigpelaten *L'últim hivern de Ramon Llull* (2004).²

Dena dela, historiak, tradizioaren begirada mitikoak berrikusia, beste pertsonaia eta gizatalde ugari eskaintzen dizkigu literatur materia eta sinbolo bihurtzeko. Adibidez, mundu klasikoko Balearretako habaila jaurtitzailak, XIV. mendean Kataluniaren ekialdeko mugetan amorrut borrokatzen diren *almogàvers*-ak, XVI. mendean nobleziaren aurka altxa eta *Germanies*-ak (1521-1523) eragiten dituzten Mallorcako nekazari eta langileak, *Corpus de Sang* (1640) matxinadako nekazariak, jazarritako eta sutan erretako juduak... Gertaera historiko horiek guztiak, beste askorekin batera, literatura bihurtuta ageri dira XIX. mendeko poesia historizistan eta lore jokoetan, baita nobela historiko garaikidean ere, bai gazteentzat idatzitakoan –Vallverdú, Vergés, Canela...–, bai helduentzat idatzitakoan –Carme Riera, Alfred Bosch, Rosa Planas...–.

Herri xehearen eta boterearen arteko borroka abiapuntu hartuz, literatura unibertsaleko pertsonaia erakargarrienetako bat sortzen da: legez kanpo baztertua bizi eta aginteari aurre egiten dion errebeldea. Matxinoaren arketipo honek –artista madarikatuaren irudi literario interesgarriarekin loturak dituena– sustrai sendoak ditu gure kulturaren, eta bidelapur edo pirata modura agertzen da hasiera batean; kontrabandista edo *maki* modura, ondoren. Bidelapurrek, boterearen aurkako borrokan eta gizarte ordena orotatik kanpo, idazleen eta irakurleen interesa pizten dute. *Cançons de bandolers* izenekoak literatur genero autonomo gisa ageri dira Katalunian, egitura guztiz zehatzarekin eta publiko leial batekin. Berrikiago, bidelapurak –edo haiekin pareka daitezkeen beste pertsonaiak– protagonista bihurtzen dira poema, nobela eta antzezlanetan, erromantizismo eta aldarrikapen kutsu batez markatuak betiere. Batzuetan, aura magiko bat erasten zaie: deserrituak ituna egiten du deabruarekin, ukiezin bihurtzen duen talisman baten jabe da, nonahikotasunaren dohaina du... edota “lladre d’amor” deritzonari lotua ageri da. Joan de Serrallonga, Perot Rocaguinarda, Tallaferro... galeria mitiko bat betetzen duten izenak dira, eta literatura kultuan agertzen zaiz-

2. Ikus Maria Isabel Ripoll-en “La desmitificació del mite: la recreació ficcional de Ramon Llull” artikulua, *Lluc*, 38. zk., Palma 2005.

kigu: Vallfogona Errektorea, Joan Salvat-Papasseit, etab. Serrat edo Lluís Llach bezalako kantariak ere aipatzen dituzte beren kantuetan. Literatura garaikidean, elementu hauetako asko kontrabandistaren irudian hezurramitzen dira: jatorri apaleko jendea babestu eta boteretsuei erasotzen dien pertsonaia hau ausardiaren, izaera zakarraren, misterioaren eta arriskuaren sinbolo da. Baltasar Porcel-ek maisutasunez lantzen du literatur arketipo hau “mite d’Andratx” deritzona osatzen duen obra multzoan.

Imajinario modernoa

Kataluniako literatura garaikidean betiko mito zaharrak aurki badaitezke ere –sarritan desmitifikazioaren bidez birformulatuak edo humanizazioaren bidez sakonduak–, nabarmen ageri da ere mito sail berri bat, globalizazioaren ondorioz mendebaldeko gizarte guztiek partekatzen dutena. Horrek mundura zabaltzen gaitu alde batetik, baina berdindu eta estandarizatu egiten gaitu bestetik. Zinema, musika, komiki eta zientzia fikzioko pertsonaiak, baita pertsonaia errealak ere, ikono bihurtzen dira, eta gaur egungo gizarteak –sortzaileek, hedabideek, kontsumitzaileek– bere pentsamendu mitikoa proiektatu eta aurrez ezarritako eredu arketipikoetara egokitzen ditu. Adibidez, Marilyn Monroe, J.F. Kennedy, Ghandi, Elvis Presley, James Dean edo Beatles bezalako pertsonaia errealak, edota Superman, Godzilla, Citizen Kane edo Harry Potter bezalako fikziozkoak, kultur erreferenteak bihurtu eta arketipo jakin bat hartzen dute: heroia, erasotzailea, santua, liderra, sentsualtasun femeninoa, sorgin ikastuna, matxinoa, manipulatzailea, etab.

Kataluniako literaturan, mendebaldeko literatur guztietan bezala, material hauen geureganatze prozesu bat bizi izan dugu. Prozesu honen bidez, fikziozko pertsonaia edo argumentuak sortu dira zinema edo literatura anglosaxoitik iritsi zaizkigun pertsonaien irudira, nahiz eta izaera berezi batekin eta hurbilekoak zaizkigun espazio eta denbora koordenatu batzuetan. Horrela, nobela beltzak edo filmeek ospetsu eginiko detektibea gure testuingurura egokitzen da; esaterako, Maria Antònia Oliver-en *Lònia Guiu* edo Andreu Martín eta Jaume Ribera-ren *Flanagan* ospetsua.

Edonola ere, badago ere hurbileko errealitateari –ez hedabide handiek inposatutakoari– loturiko prozesu mitifikatzaileak. Kataluniaren kasuan, Lluís Companys dugu horren adibide: Errepublikaren garaian Generalitateko presidentea izan zena protagonista da literaturan eta zinematan. Aura mitiko bat duen pertsonaia da, etendako proiektu nazional baten heroi sortzailea.

Amaiera

Elezaharretan aditua den Josep M. Grimalt doktoreak dioen moduan, mitoa presente egon da beti zibilizazio guztietan, gizakiaren betiko premia bati erantzuten diolako:

Mitoak alegiak baino garrantzi handiagoa du komunitate batean: mitoak indarra du gizartean, gizabanakoen eta taldeen portaeran eragiten du, esanahia ematen dio existentziari eta gurtu egin daiteke. Alegiaren eginkizuna apalagoa da: gurean, ihesbideko literaturarekin aldera liteke, balio estetikoetan parekatzerik egin nahi izan gabe. Herri bat alegiarik gabe bizi daiteke, baina ez mitorik gabe. Gizarte moderno teknifikatuek alegiak ahaztu badituzte ere, mito berriak sortu behar izan dituzte.³

Imajinarioa, horrenbestez, energia bezalakoa da: eraldatu egiten da. Ezin daiteke beraz galdu edo suntsitu. Eraldatze prozesu hori egiazta dezakegu, batik bat formari, transmisio bideari eta gizabanakoak ondare hori hartzeko duen moduari dagokienez. Dena dela, eraldaketa horrek eragin txikia du eraikuntza mitikoan oinarritu eta arketipoen bidez funtzionatzen duen imajinarioaren nukleoan. Bizirik jarraitzen badu, garai berrietara moldatzeko izan duen gaitasunagatik da. Gure etxetik, gure literaturatik –gure herrialde txikiaren gorabehera historikoen mende beti–, lanean jarraitu behar dugu gure imajinarioaren uniformizazioa saihesteko, jaso dugun ondarea lantzeko eta fruitu berri eta oparoak biltzen jarraitzeko.

3. Grimalt, J. A.: “La catalogació de les rondalles de Mossèn Alcover com a introducció a llur estudi”, *Randa* 7, Bartzelona, 1978.

Joxemiel Bidador

Iruñea, 1970.

Euskal Filologian lizentziatua, INAP-NAPIko euskaltegegiten du lan.

Bere sorkuntza lanari etorrita, hainbat aldizkarietan argitaratu ditu bere izkribuak: *Euskera*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Cuadernos de Etnología de Navarra*, *Egan*, *Revista del Centro de Estudios Merindad de Tudela*, *Txistulari*, *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta *Sukilen* orrietan hain zuzen ere.

Euskaldunon Egunkariak Nafarroarako argitaratzen zuen *Nafarkaria* gehigarrian, 1995-2001 urteen artean, “Klasiko bitxi arront klasiko” eta *Diario de Noticias* (1999-2002ra bitartean) “Vieja historias de Navarra” sailen egilea izan zen.

Iruñeako udalak idazle berrientzako antolatzen dituen literatur lehiaketan saritua izan da olerkian zein narrazio laburrean, 1993-95-98 eta 2000 urteetan. Honez gain, Nafarroako euskal literatura jasotzen duten zenbait antologia prestatu ditu.

Bilboko Udalak antolatutako Miguel Unamuno saiakera saria irabazi du 2005. urtean *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* lanarekin.

Irudimenaren klasikoak Euskal literaturan *Eliz idazleek irudimena erabiltzen: antologia txikia*

Atarikoa

Irudimen fantastikoaren klasikoak euskal literaturan, horixe da proposatutakoa. Eta ez da makala, ez ondikotz! Izan ere, euskaldunok berok ez omen garelako sobera laketu irudimenaren erabileran. Hala idazten zuen Sarrionandiak afera honetaz: <Euskalduna ez da sekula izan imajinazioaren aldekoa, imajinaziorantz etorria. Euskaldunak ez du imajinazioa habitatzen. Euskal artea eta euskal literatura, euskal pentsamendua bera bezala, abstraktuak eta laburrak dira (...) Euskal

literaturaren historian ere, pinturan bezala, harrigarria da zer atseginzaletasun eta imajinazio guti agertzen den, eta zer kolore guti. Klasikoetan nahiz berrietan¹.

Sarriren hitzok badute jakinduria askoa, eta erreparatzen badiogu gurean eginiko literatura zaharrari, berdin euskaraz zein erdaraz eginikoari, aisa ikusiko dugu zeinen egiaiak diren Sarrirenak, eta zeinen bakanak diren salbuespenak. Bakar bat ekartzearren, hortxe dugu Jose Yanguas Miranda tuterarraren *Vida del Capitán Juan Lanas*, Donostiako Barojatarrenean 1845ean inprimatua. Egun Yanguas ezaguna da bere ekarpen historiko politikoarengatik, Nafarroako Aldundiko artxibozaina eta idazkaria izan zelako, eta liberala izanki foruen alde egin zuen lanarengatik. Alabaina, horrelako *curriculum* serioaren barruan eleberri fantastiko batendako tokia ere izan bazen. Sarreran berean trikimailu literario batez baliatu zen Yanguas lana aurkezteko, eta Parisen topatutako eskuizkribua zela ziotsan irakurleri. Bertan frantsesealdian Mendigorriako Eguagirre gerrilari ankerraren aginduetara soldadu ibilitako Juan Lanas aragoitarraren ibilerak azaltzen zituen, baita gerra amaitu ostean eguzkira egin zuen bidaiaren ingurukoak. Edozein modutan ere, Yanguasen liburu hau aipatzen badut, euskaraz eman zuen orrialdearengatik da, izan ere, Lanas kapitaina eguzkian preso zegoela, ateko zerrailatik atera zen ziegatik, sorgin baten laguntzaz eta sorginak berak erakutsitako konjuroa esanez. Eta hauxe gauza bitxia dugu, seguraski ere nigromantziarekin zuzenean loturiko euskal testu bakarra gure literatura 1545ean hasi zenetik hiru mendeetara. Hona hemen:

“Infernuetako jaun ta jabe eta agintari nagusia, zeure serbitzari leialen estalpelari eta laguntzalle aberats errutsua, ez dezazula arren zeuregandik laga estura larriko, lantze onetan, zure biotz ukitze jakintsuak zintzoki entzun eta maizaro gorde izan dituelako persegitua arkitzen dan gizagaixo errukarri ilkor bat; eta egizu al dezun guztia zure morroi esangille umil Adarreko lepoak agertu dezan indar sendo iñork azpiratu ezin leikeana, zeñarekin anparatu izan dezun beti Izarretako biztanleen bidebagekeriaz burlatzen (etsai uritarmenarenak) peleatu ziñan beraren alde alper alperrik, bañan guztiz ondra andian, gogolibredunen matxinadako egun izugarri artan, erresuma menpekoen Agintza biurri urgullusoaren kontra”.

Salbuespenak salbuespen, alta, lot nakion lanari, eta lehenbiziko lana, mugatu baharra. Hasteko, zeintzuk dira euskal literaturaren klasikoak? Ez litzateke gai itsusia heldu den Galeusca baterako. Hau da, gerta liteke nik klasikotzat hartu ditudan lanak beste inork literaturatzat ere ez jotzea. Izan ere, ez al da Atxagaren *Obabakoak* geure klasikorik klasikoena honezkero? Baina badirudi klasikoia diogunean zaharra esan nahi dugula, eta ohiko esku-liburuetan aurreko

1. Joseba Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*, Iruñea, Pamiela (1985), 2006, 147-148 or.

mendeetako idazle aintzindarietz ari direla. Nik bederik horrela ulertu dut, eta muga horretan jardun nahi dut. Hau da, jakinki klasikoaren esparrua beste moduz ere uler daitekeela, eta irudimenaren erabilera literarioa berezkoagoa dutela XX. mendeko idazleek, nahiago izan dut aurreko mendeetako idazle zaharretara jotzea eta euren lanetan arakatzea. Lan zaila bestalde, bada, idazle zahar horiek gehienak, ia guztiak, gai erlijiosoko testuak zirriboratu baitzituzten, *a priori* behintzat fantasiari toki handiegirik uzten ez diona.

Egia da eliz literatura klasikoa ez dela sobera baloratua izan gurean, are gehiago alde linguistikoa kontuan hartu ez denean. Zer izan du interesgarri, bada, Leizarragaren *Testamentu Berria*-k hizkuntza bera ez bada? Baina asmo erlijiosoko literatura, gurean nagusi izateaz gain, zabala ere bada, eta hamaika itzulpenekin batera, eta hauek ere bere garrantzia izan dute alor literariotik ere, bestelako lanak ere izan dira, dotrinak direla, aszetika liburuak direla, sermoitegiak direla, eta abar. Lan guztiak ez diote toki bera uzten fantasiari, irudimenari, baina hartzailea herri xumea izan den neurrian, egileak irudimenari leku handiagoa utzi behar izan dio, batez ere adibideetan, *exempla* horietan, hau da, gertaeretan, ipuin motzetan, narrazioetan, anekdotarioan alegia.

Bistan da apaizek erabilitako istorio guzti horiek ez zirela haiek berek sortuak, ez eta hurrik eman ere, eta kasurik gehienetan inondik hartuak ziren. Anplifikazioaren teknikaren aurrean geundekete beraz. Iturriak arras zabalak zirrotekeen, eta apaizgaitegi, abadetxe zein komentuetan liburutegi ederrak bazituzten ipuin sakratuez ongi hornitzeko. Literaturaz denez bezanbatean, ezin ahantzizkoa da zeinen inportantea den idazlearen elikadura, hau da, idazlearen lana sorkuntzan baino bersortze lanetan kokatzen da, hitzezko ekai zaharra egoera berrietara txertatzean, eta inoiz aditutakoaren aldaera berria da komunzki ematen duguna. Hortaz, eliz egile haien lan literarioa ezin ukatuzko agertzen zaigu.

Trentokoa saihesten saiatzen: Tartasen istorioak

Juan Tartas Sohütako baserritar aberats xamar baten semea izan zen, Oloroeko elizako prebendatua izan ostean, Arueko erretore jardun zuena. Zuberera literarioaren aitzindari lehena, bi dira XVII. mendean Orthezen argitara eman zituen lanak, biak eliz liburuak: *Ontsa hiltzeko bidia* (1666) eta *Arima penitentearen okupatione debotak* (1672). Orain dela dozena bat urte eman zuen argitara Patxi Altuna euskaltzainak Tartasen lehenbiziko liburuaren edizio berritua². Honi ongi etorria emateko *Euskaldunon Egunkaria*-ko literatur kritikariak “Benetako kla-

2. Iuan Tartas, *Ontsa hilceco bidia*, Deustuko Unibertsitatea, 1995, Patxi Altunak apailaturik.

sikoa” iruzkin llaburra atera zuen, zuberotarraren interes filologikoak azpimarratzearekin batera, bestelako dohai literarioak txikertuz: “Ez da literatura moduan irakurtzeko lana. Literatura bila dabilenak nekez aurkituko du atsegin handirik orrialdeotan”. Eta zoritxarrez horretan dirau oraino geurean uste oker honek. Izan ere, geure klasikoetan ere izan badirelako interes literarioak, hortxe irakurgai daudenak, geure esperoan. Kontua dateke ez dugula ikasi testu bakoitza bere kontestuan paratzen, kontestualizatzen alegia. Edota deskontestualizatzen ere. Ez nuke nik XVII. mendeko eliz testu klasiko bat egungo balio literarioen iragazkitik bakarrik pasaraziko bere kontestua haintzat hartu gabe, baina halaber, kontestua jakinda eta kontuan harturik, testuak berak duen literaturtasunean erreparorik gabe barneratuko nintzateke, kontestua ere alde batera utzita, fikzioaren bila, edertasunaren xerka, hitz-jokuari aiduru, dakarzkidan istorioek ene errealitatea morfinez ere balio dezaketen neurrian.

Tartasi aitortu ohi zaion balioetako bat testuarekotasuna da, hau da, bere liburuak idazteko baliatu dituen iturri ugari, kontatzen dizkigun istorioen jatorri ezberdinak. Trentoko kontzilioak irudimenaren hegialak moztu omen zizkien herriko apaizei. Ordura arte behintzat, badirudi eliz gizonen irudimenaren erabilera sutsua egiten zutela, entzule apalei ipuin eta istorioen bidez nahi zutena ulertarazi eta sinistarazteko. Halako demasa ezin onarturik, kontraerreformaren seriotasunak apaizgo kultura abiarazi zuen, anekdotarioa bazterrean utzi zuena, egia teologikoei atxekiago omen zena. Honen adibiderik nabarmenena Urdazubiko Axular handia izan zen, euskal literaturaren libururik gogoangarriaren egilea alegia. Ez zatekeen ordea Tartas honen eredu zuzena, eta errenazimenduko eliz idazle horien azkenetako hatsetakoa bide zen. Mitxelenak berak ez zuen sobera juzku onik zuberotarrak: “*Comparado con Axular, la erudicción que despliega Tartas resulta ociosa y extravagante, lo exagerado y lo tremendo*”.

SETIOA

Gaztelu eta jauregi eder eta bortiz bat, etsaiak kanpotik inguru-inguru, asetiaturik edukiten dianian haren, edo bortiaz edo konposizioez hartzeko, eta haren gehien, eta nabusi izateko, gaztelu eta jauregi haren barnian balin bada garnisone on bat gerlako, eta ahoko munitione franko, eta orenen burian kapitana, eta soldadoa, badira koraiosak eta deliberatoak behar denian, onsa defendiatzeko, eta onsa atakatzeko, barnekoak trufatzen dira kanpoez, eta azkenekotz gaztelu, jauregia, ohorian gelditzen da, eta etsaia, bere pena eta bere denbora galdurik, desohorez betherik, bere jendiarekila retiratzen da. Baiña jauregi hartan ezpada armarik, ezpada zer Ian eta edan, ezpada kapitanik, eta soldadurik, edo izanik ere ezpadira koraios, eta deliberatu, eta diren poltroiñak, eta bihotz gabiak, adios gaztelia, adios jauregia, *Ville gaignée*, hiria hartu da, etsaiak eginen du jauregi, eta gaztelu harzatz nahi diana. Gure arima da, gaztelu eta jauregi eder bat, eta bortiz bat, momento oroz gaztelu haur, kanpotik eta barnetik asetiatu da, atakatu da furioski, eta pausu gaberik, haren

etsaiak dira, deabrua, mundua, haragia, eta bertze etsai bisibliak, eta inuisibliak, gerla kanpotik, eta barnetik, etsai gaixto hek, jauregi eder hari, arimari, egiten dute, hala, nola, lehoiñ furiosak, eta otso gose minthiak, ardi gaixoari egiten baitu.

ESPAINIARRA ETA TXAKURRA

Egun batez español bat bere bidian zoala ediren zian hor bat borta batetan, eta horak usiki zian española igaraitian zankotik horaren kontre aski onsa defendiatu faltaz. Bertze egun batez españolak hor hura bera ediren zian borta hartan berian lo zantzala, eta ezpata baitzian bere saihsian, idokirik eta buluzirik bere magiñatik eta bere furrebotik, hora hil zian ezpata kolpu bat emanik, eta gero ikhusi zinian hora hilik, edo hilzen, erran zian horari bere lengüajian españolaz, *Inimigos tienez é dormés*, erran nahi baita gure lengüajian euskaraz, etsaiak ukhen eta lo egiten duk. Arrazoin zian españolak hala erraitera horari, zeren etsaiak dutianak ezpaitu behar lo egin, baina bai egon iratzarri, zoin aldetik jinen den egunaz, edo gaüaz, haren atakatzera.

HERIOA KONPARATZEN

Herioa eta otsoa biak bat dira, otsoak iaten du, iresten, eta deboratzen, otsoak bezala, bena deusek ere ezin asetzen, ianago nahiago, gormand, eta gulos da animale hura, bertze ororen artian, deusek ere ezin ase diru.

Herioa, bipera suge mota gaixto bat iduri da. Suge harzatz minzo direnak diote, haren humiak, bere amaren sabelian konzebitu, eta formatu direnian, ez tutela egurukiten sortze-ko denbora, naturak behar dian operatione, eta termaiño ordinaria, bena bere amaren sabela mokoaz xilaturik, eta hautsirik, sortzen direla ordu gabe, eta sortzian bere ama hiltzen, hantik ardiatsi du suge hark bere izena, *Vipera, quasi vi, pariens*, bipera dela biolentziaz, eta bortxaz sortzen diana.

Herioa, hor errabiatu, gaixto bat iduri da horak jendia edo kabalia usikiten dianian, parte bat eramaiten du, eta parte bat kitatzen, bena eztu peza oro eramaiten eta hora errabiatu bada, usikiten dian gauza bere usiki satsiaz, eta korronpitiiaz, kozatzen du eta korronpitzien, halako moldez non lehen beno lehen ezpadu itsasoko urian ukhutzen, eta xahatzen, errabiatzen baita eta hiltzen, bere forman, herioak, gizona, eta emaztia usikiten du, eta bere usiki gaixtoaz kozaturik, eta korronpiturik parte bat gizonari eramaiten du eta hiltzen, eta bertze partia osorik kitatzen du, eztu hunkiten, gorpitza arras eramaiten du, eta arima ezin baitiro, hunki gabe, kitatzen du osorik, zeren imortal baita bere naturaz, eta ezin hiltzen baita, hargati herioak du izena, *Mors à morsu, siuè à mordendo*, eta hark gorpitzari ejinten dian usikia, hanbat da kruela, eta pozoatia, non haren zauria, eta kolpia, baita inkurabilia, eta erremedio gabia, ezta urik, ezta itsasorik, ezta kontrepozoarik, ez barberik haren kozia sendotzen ahal dianik, ala den Aita Saindia, eta Kardinalia, ala den Erregia, Prinzia eta laboraria, aberatza ala pobria, hor hark behin usikiz geroz hil behar du, eztadila nehor tronpa, gogoa eman beza hor haren usikiari, hargatik erran du Poetak ederki; *Mors aequo pede pulsata pauperum tabernas, regumque turres*, bardin bardina, eta egoalki galtzen, eta ruinatzen dutiala pobren bordak eta kabanak, nola erregen torriak, eta iauregi gatzeliak, ezta han diferentiarik, reserburik, ez eta pribilejiorik aberatzaren eta pobriaren artian.

XVIII. mendeko loraldia: josulagundiaren ekarpena

Hegoaldean eta Larramendiren bultzada lagun, XVIII. mendeko eliz gizonen ekarpen garrantzitsuan toki gutxi dago irudimenerako. Hortxe dugu Kardabera-zen ekoizpen itzela, non nekez topatuko dugun anekdota fantastikoei eginiko tokia. Baina bazen liburuez haratago esparru bat irudimenerako aproposa izaten ezin hobe segitu zuena: sermoigintza. Gutxi dira Larramendik berak euskaraz tajaturik iritsi zaizkigun lanak, baina dauden gutxi horiek berebiziko kalitatea badute, eta ukaezina da andoaindarrak belaunaldiko beste idazleengan izan zuen eragina. Hona hemen 1737an Azkoitian eginiko eta San Agustin egunerako presaturiko sermoien pasarte bana:

MARTIRIEN TORTURAK

Gogora ditzagun iñon edo aditu edo irakurri ditugun martireen tormentuak: zein aundiak aek, zein gogorak, zein izugarriak: batzuek burubagetuak, besteak elorri arantzetan arrastatuak, batzuek azotez mallatuak, besteak berun urtu gorian irabiatuak, batzuek surtan erre kiskalduak, besteak putzu izoztuetan itoak, batzuek laurgituak, besteak erdiratuak, batzuek lauridikituak, laurenduak, besteak beren ezur guzietan abarrakituak, zeatuak, zati-
tuak, eta ezin konta lekizkean beste eriotza mota asko.

PROMETEOREN GOLEMAK

Prometeo zeritzan batek, diote ipuiak, egin zituela gizonak ala emakumeak are eta lurrez naazte, eta gero oiek pixteko eta bizi-erazotzeko, ostu ziola eguzkiari sua eta argia. Etzuen orrelakorik egin gure aita San agustinek...³

Baina sermoigintzaz dihardugunean ez diogu erretoreen lanari bakarrik aipu egiten, ezpada misiolari apostolikoen prediku hertsiei baizik. Larramendik berak goraiatu zuen Frantziskotarrek Zarautzen kudeatzen zuten misiolari eskola, baina misio apostolikoen ardura ez zen frantziskotarrena bakarrik, eta hortxe ibili ziren jo ta su josulagunak ere. Hauetan ezagunena Sebastian Mendiburu izan genuen, euskal Zizeron deitua, Iruñeko komentuan bizi zena, eta Nafarroako herri aunitzetan predikatu egin zuena. Mendibururen ekoizpen literario guztia iritsi ez bazaigu ere, eta nahikoa zabala bazen, argitara emandakoen artean izen handikoak izan ziren Jesusen Bihotzaren debozia piztu eta zabaldu zuten 1747 eta 1759-60ko lanak. Bigarren Hezkuntzarako behiala Mendiguren-Eizagirrek

3. Manuel Larramendi, *Euskal testuak*, Andoain, 1990, Patxi Altunak eta Joseba Lakarrak apailaturik, 50 eta 71 or.

apailaturiko literatur antologian⁴ Mendibururen “Sorginketako gauzak” pasartea sarrarazi zuten, “izu-literatura katekesiaren zerbitzura”. Honetara Xabierko Frantziskoaren bederatzurruneke irakurraldi bat ekarri dut.

SOLDADUAREN LIMOSNA

Zerbait ondasun zeraman soldadu bat utzi zuten bage itsas lapurrak eta zuenarekin batean bizia galtzeko beldurrez ontzitik itsasora saltatu ta igerian itsas bazterreta zen ta al zuen bidez bere burua estali ta asi zen eskean, ta eskean zebillela besteen artean arkitu zuen S. Franzisko Xabier aldi artan an predikatzen zebillena ta Jangoikoaren izenean eskatu zion zerbait. Urrikariz eskua bere sorbaldan ezarri ta, ez dut korradu bat ere, erantzun zion S. Franzisko Xabierrek, eta begiak gero zerura jiratu, otoitz zerbait egin ta esan zion behartsu gaisoari, Jangoiko berak dizula oraingo zure bearrak eskatzen duena. Santuaren aotik au aditu ta agur umil bat ari egin ta artu zuen soldadu beartsuak bere bidea bestetan billatzeko an arkitu etzuen, ta etzen luzaro egondu arkitu bage; bada aren ondotik kendu ta laster ots egin zion S. Franzisko Xabierrek, eta hura aren aldetik kendu ezker, Santuaren sakelan egin edo utzi zituen Jangoikoak munduan egiten ziranak ez bezalako diru zenbait, eta an eskua sartu ta atera zituen urrezko ta zillarrezko berrogei ta amar ta eman ziozkan soldadu beartsuari esaten ziola, orra Jangoikoak bidaltzen dizun limosna, on dagizula, baña begira nondik dezun ez esan mundukori bein ere. Baña soldaduak hura artu ta bere pozarekin lasterkari eman ta asi zen ojuka esaten, milagroa, milagroa!; ta au ziola bazebillen pozez batetik bestera. Zer milagro da, gizona?, galdetu zioten aditzen zutenak, gaur zuk banatzen dezuna? Orain nerekin S. Franzisko Xabierrek egin duen bat. Zer egin du zurekin Santuak, gizona? Orra, erantzun zien, nere bearra estaltzeko eman dit gizonek oraindik ekusi ez duen diru sall hau; ta agertu zien diru guzia. Diru berria ekusi ta an arkitzen ziran merkatari ta dirutan zekiten beste guziak esan zuten etzela munduan gis artako dirurik, ez eta diru ark bezain urre ta zillar ona zuenik ere, ta ura berak debozior artu ta eman zioten zebillen dirutik beste anbat eta anitz geiago ta soldadu beartsuarentzat anditu zen S. Franzisko Xabierren limos-milagroa⁵.

Espainiako Karlos III. errege ilustratuak josulagundia 1767an debekatu zuenean Joatxin Lizarraga josulagungai zegoen Camposko Villagarcian. Hasiera batean Boloniarako bidea hartu bazuen ere, gauza ezaguna da sorterrira joko zuela azken momentuan, eta bertan, Iruñetik hamar bat kilometrorra dagoen Elkano herrian, eman zuen bizitza osoa herriko erretore lanetan 1835ean zendu zen arte. Nafarroako idazlerik emankorrena, bizi zela deus argitaratu ez bazuen ere, bere eskuizkribuek 5000 folio inguru betetzen dute. Euskarari zegokionean Larramendiren aitagoitasuna onarturik, hala edo nola Lizarragak misiolari jesuiten lana parrokiara luzatu zuen, dotrina, sermoigintza, hagiografia zein bertsogintzan lan itzela izkiriaturik utziz.

4. Xabier Mendiguren&Koldo Izagirre, *Euskal Literaturaren Antologia, DBH-Batzilergoa*, Donostia, Elkarlanean, 1998, 167-168 or.

5. Sebastian Mendiburu, *Euskaldun onaren biziera*, Iruñea, 1762.

BALTASARREN EPAIA

Baltasar errege gúra zegoláik afari báten póstreatan atzendurík Jangoikoas ta bere ari-mas, brindátzen, orditzen, erokéria egiten, bitárteo zeukáte Jangoikoaren justiziarén minis-troek pizátzen juizioko balántza lotsagarri gártan, ta aurkitu zé arin ta eskás obra onetán, kontrapizatzekó bere bekatuéi. Eta alá notifikatzeko senténtzia, gutienik uste zueneán, agertu zireán parétean kandeleroain aurkásean eri batzúk eskribitzen irur létra, zeintan notifikatu baizitzáio merexi zuén senténtzia. Bátean zió Thecél, nai baitu erran: pitzátua izan zára Jangoikoarén balántzan ta aurkitu zára eskás obra onés⁶.

Zarauzko misiolarien testigantza idatziak

Aipatua dago jada Zarauzko misiolari apostoliken eskola. Etxe honetan bizi ziren frantziskanoen zeregin nagusia zen herriz herriko misioak ematea, Europa mailan bakantzen hasia zen kontua, baina gurean berebiziko indarrez mantentzen zen jarduera. Zarauzko etxean izan ziren fraide sonatuenen artean Frantzisko Palacios oñatiarra genuen, hainbat erdal libururen egilea, eta euskarazko sermoi ugarirena ere, egun argitaragabe segitzen dutenak. Palaciosen etxekide eta itzultzailea Pedro Antonio Añibarro frantziskanoa genuen. Bizkaieraren aitzindaria, lau bat liburu eman zuen argitara bizi zela, eta hil ostean beste horrenbeste atera ziren, tartean gramatika eta hiztegia. Alabaina bere lanik gotorrenak argitaragabe darrai, *Misionari euskalduna, kristau dotrina eta sermoiak bizkai-errietan irakasten*, mila orrialde inguruko eskuizkribu erraldoia. Lana dotrinetan banatzen da, eta dotrina bakoitzaren bukaeran *exempla* bat dago.

DANTZARIAREN ZIGORRA

Mutil dantza zale batek entzunik predikadore baten aotik, dantzak ziriala infernurako bidea, atea ta pekatu askoren sustraia, azartasun lotsa bageaz esan eban: dana dala, ta esan begi predikari estu onek nai dabena, nik diñot eta uste dot, dantzak eztiriala pekatu, eztagola euretan peligrurik; dibersión olgura, ta pozkaria inozenteak direala, nik beintzat largako eztodaz. Au esan ta laster joan zan dantzara, ta an bertan gente guztien aurrean jausi zan goitik arri andi bat bere gañera, zapaldu, zatitu ta lurrak iruntsi eban⁷.

Añibarroekin batera Zarautzen zeuden beste misiolarien artean Mateo Zabala bilbotarra aipatu behar da, ikastetxean 1815-1840 bitartean izan zena. Ezaguna

6. Rosa Miren Pagola, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, Hegoaldeko goi-nafarrera 1, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1996, 379 or. (*De correspondenti satisfacione*, 1781).

7. Joxemiel Bidador, “Pedro Antoñio Añibarro aitaren *Misionari euskalduna* liburuan dantzei buruz dakartzan 66 eta 67 doktrineak bere adibideekin”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 61, 1993, 39 or.

bere lan gramatikal zein bibliografikoengatik, baita tajutu zituen alegiengatik ere, sermoi mordo bat utzi zuen, Villasantek bi alekitan ekarri zituenak. Sermoiak aterbetzen dituzten hiru eskuizkribuak toki ezberdinetan ageri ziren, eta Jerusalemen frantziskanoek duten konbentuan gordetzen zenetik hartua da pusketatxo hau.

INFERNUA

Beda izen andiko gizon jakitun eta santuak esaten dau eze Norunbria aldean iltzala Dritxelmo eritxon gizon bat, eta gero barrero biztu zala mundu onetako argitara. Oneri ilik egoan artean erakutsi eutsan Jangoikoak infernu gogorra eta ango suak, eta beste an ikusi bearreko guztiak. Berak esan eroian zer eta zelango bildurgarrizko itzalak ikusi bear izan zituzan, baia berak esan ez-ta bere, ondo ta ondo agiri eban bere bizi-moduan, nobaiste bere gogortasun ezin ikaragarriagoren batzuk ikusi bear izna zituzala, ze edozeineri arritu eragin leikion berak bere buruari emoten eutsan bizitza, ezin da geiagoan gogorrak. Sartu zan konbentu baten, eta an guztizko bere barau latzak egin eroazan; lo lur gogorraren ganean, zilizio ikaragarriak soñean erabiltzazan, garrian, barriz, erabilen burdiñazko katea orratz txikiz alde guztietatik bete beterik egoana. Bere burua azote krubelez apurtu bear eban, odol beroa ugarri gorputz guztiti eriola. Eta iñok esaten beeutsan ea zegaiti orren gogor artuten eban bere burua, erantzun eroian: oneek baxen gauza gogoragoak ikusita daukadaz nik beste aldean. Neguaren biotz biotzean konbentuen parean leiturik eta engalasaturiik egon ioian errekan, lei-karraldoa alde bateti zatitu, eta antxe sartu oi zan abitu ta guzti iduna-giño: eta andik urten da berem, ez eban soñekorik aldatu bearko; eta iñok ezer esaten eutsanean erantzun oi eban: oneek baxen otz gordinagoak andiko aldean ikusita nago ni⁸.

Bizkaieraren klasiko bi

Bizkaierazko lehenbiziko idazleen artean garrantzi berezia izan zuen Juan Antonio Mogeleg, apaiz setati baina formazio ilustratuko gizona, inkisizioaren aztertzaile izan nahi zuena baina aldi berean alegiak idatzi zituena, baita *Peru Abarka* lan sonatua ere, euskarazko lehenbiziko eleberrizat askok jo izan dutena, basati onaren eredutik abiatuta. Jon Kortazarren hitzetan ideologia tradizionalako idazle neoklasikoa genuen. Argitara eman zuen lehenbiziko lana aitormenaren gaineko liburua izan zen, 1800ean, gizpuzkeraz. Hiru urte beranduxeago honen aldaera bizkaieraz atera zuen, Añibarroren hitzaurre bero batekin.

PELAIOREN DAMUA

Pelaio eritxon gizon gazte, edo mutil batek egin eban bein ardi bategaz onelango pekatu ezain bat. Bere konzienziak, bakerik emoten ez eutsan; laster damutu jakon egiña, baña

8. Mateo Zabala, *Sermoiak I*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1996, Koldo Villasantek apailatua, 257 or.

lotsatu zan konfesetako. Sinistu eragin gura eutsan Gaiskiñak, penitenzija gogorak eginda, salbauko zala konfesau baga. Sartu zan bakartade baten eguan konbentuban; artu eban an abituba. Bere orazino luze, erretiro, ta penitenzija andijak gaiti, eukeen birtute andikotzat. Baña sugia barruban, ta diadarrez konzienzija zirautsala: Pelaio, alperrak dira zure penitenzija guztijak konfesetan ez badozu dakizun pekatuba. Agaz guztiaz, geruago ta gatxago egiten jakon konfesoriarri agertutia, eukeelako santutzat. Ill zan guenian agertu baga. Egin zan bere enterruba, ta uste eben beste fraile bere lagunak, milagro andiren batzuk egingo zituzala ill onduan. Urrengo gabian topau eban sakristaubak bere gorputz enterrauba sepultura ganian, ta sartu eban ostera lur barruban. Bijaramonian bardin topau eban sepulturati kanpora, ta ikaturik, emon eutsan kontu konbentuko buru, edo nagusijari. Jatsi zan au beste frailiakaz gorputz illa eguan tokira, errekeridu, kontu artu edo itandu eutsan onelan: Pelaio, izan zariana zeure bizitzan ain humilde, ta esanekua, esan egidazu, zer gura dozun? Zer esan gura dau sepulturapeti urten, ta kanpouan egotiak? Biar ete deusugu emon sepultura onra andijagokoren bat? Eranzun eutsan difuntubak: Ay ene galduba! Kondenauta nago betiko. Ez dau leku santurik biar nire gorputz madarikatubak. Infernuban nago, ta egongo nas betiko. Egin neban ganadu bategaz pekatu habituba artu baño leenago; ez deuste ezer balijo izan neure penitenzija guztijak. Jangoikuaren borondatia da, enterretia ni leza baten animalija zantar bat legez⁹.

Jose Antonio Uriarte ere frantziskano sartu zen. Esklaustrazioak harrapatuta, Markinan ibili zen misiolari lanetan bereziki. Bonaparte printzearen kolaboratzaile fermua, beste lanen artean biblia osoa itzuli zion gipuzkerara. Edozein modutan ere, bere lehenbiziko liburua Bonaparte ezagutu aitzin atera zuen. Hor-tik hartu dugu ipuintxo hau.

LETRADUAREN TXIMINOA

Venezijan bizi zan letrau jakitun bat, bide txarretik egin zituzan irabazijakaz aberastuta, eta augaitik Jaungoikuaren aserre ta gorrotuan. Ez eukan biar bada beste gauza onik, ezpada Marijari egunoro erregu bat egitia: eta deboziño labur onexegaitik librau eban Marijaren ontasun ta errukijak betiko erijotzatik. Begira zelan. Adiskidetu zan gizon jakitun au fray Mateo Baso eritxon kaputxinu bategaz, eta egun baten alako erreguak egin eutsazan juateko bazkaritara bere etxera eze, azkenik juan zan. Eldu ziranian etxera esan eutsan jakitunak: Aita, erakutsi biar deusat iñoz ikusi izango ez daben gauza bat. Nik daukat tximiño miragarri bat, otsein batek legez serbietan nabena: garbituten ditu ontzizjak, iminten dau maija: idigiten deust atia... Erantzun eutsan Aita erlijiosuak: gero tximiñua baño beste gauzaren batek izan biar leuke onek... ekarri dagijela ona. Deituten deutse; bigarrenez ta irugarrene bere bai, billatuten dabe alde guztijetatik, baña ez zan iñun tximiñorik agiri. Azkenik aurkituten dabe oe baten azpijan ezkutauta, etxeko bazter baten: bala ezelan-bere ezin atera izan eben andik. Orduan esan eban Erlijiosuak, guazan geu bera daguan lekura:

9. Juan Antonio Mogel, *Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu biar deutseen konfesinuari ondo egiña izateko*, Gasteiz, Fermin Larunbe, 1803.

juan zan letrau jakitunagaz batera, ta esan eutsan: infernuko pistija madarikatua: Jaungoikuaren aginduz ta ordez berba egiten nor azan, ta zetarako agoan etxe onetan. Ta orra nun erantzuten daben tximiñuak, dala demonioa, eta daguala zain ta itxaroten pekatari arek Marijari egunoro egiten eutsan erregua egun baten itxi artian, orduantxe eruateko infernura; bada Jaungoikuak emonik eutsala eskubidia beriala ito, ta bizitzia kenduteko. Au entzunik, entzun zan beriala letraua negarrez Jaungoikuaren serbitzari aren oñetan, laguntasunaren eske: sendatu eban egijala laster etxe atatik iñori ta ezeri kalterik egin baga: bakarrik emoten deuat eskubidia, esan eutsan, urratuteko orrako orma ori, ezagutu jaijaguan urte duala. Berba onek amaitu orduko, ots ikaragarri bategaz zulatu zan ormia, eta ezin iñoz zarratu izan ebeen kare ta arri guztijakaz bere, Jaungoikuak alan nairik. Azkenik imiñi eben zulo atan Aingeruaren irudi bat. Letraua ondu zan, ta uste uzan lei iraungo ebala bizitza onian. Orra zenbat balijo daben Ama oni errezetiak¹⁰.

Gipuzkerazko adibide bat

Juan Bautista Agirre Asteasun jaio zen 1742an eta bertan jardun zuen apaiz ere 1770etik 1823an hil zen arte. Garaiko beste euskal idazlerekin harremanen bat izan zuen, Mendiburu, Añibarro eta Mogeekin behintzat, eta egun gipuzkeraz idatzi zuten idazle klasiko hoberenetzat jotzen dute askok. Bere lan zabala bi alditan eman zen argitara, 1803an eta hil osteko 1850ean, beti ere *Erakusaldiak* izenpean. Bigarren aldikoan meza nagusietan egindako hitzaldiak biltzen dira.

ADARBAKARRA

Bazijoan au bere bidean eta aditu zuan atzetik lasterka zetorrenen baten oñotsa. Begiratzen du zer ote dan, eta ekusten du nola darraikion aberetzar izugarri bat adarbakoitza. Bereala asi zan lasterka alegin guziaz, baña adarbakoitza zerraikion, inguru guziak orroaz izutzen zituala. Arkitzen du lize-zulo bat eta saltatzen da ara. Lizearen saiets batetik zabalduarik zeuzkan adarrak lertxun batek. Eldu edo itsasi zien oei eta geratu zan zintzilika. Onela zegoala, begiratzen du gorontz eta ekusten du adarbakoitza lizearen goiko ertzean berari itxedoten. Begiratzen du berontz eta ekusten du dragoitzar bat begietatik sua dariola eta autzarra zabaldurik irintsitzeko zintzilika zegoana. Begiratzen dio lertxunari eta ekusten du sustraiak ebakitzen ari zaizkala kirra-kirra bi sagu, bata zuria eta bestea beltza. Perill andian zegoan zintzilika zegoana. Ala ere an txorrea eta ezereza izan zan, non ardurarik gabe zegoan, lertxunaren orrietatik erortzen ziran tanta edo txirrista goxo batzuek auaz artzen zituala. Asma diteke zentzugabekeri andiagorik?¹¹

10. Jose Antonio Uriarte, *Marijaren illa edo maijatzeko illa*, Bilbo, Delmas, 1850.

11. Juan Bautista Agirre, *Erakusaldiak, antologia*, Donostia, Klasikoak, 1999, Fidel Altunaren edizioa, 212 or.

Darío Xohán Cabana

Roás-en jaio zen (Terra Cha) 1952. urtean. Lugon egin zuen batxilergoa, eta ez zuen egin ikasketa akademiko gehiagorik. 1968. urtean UPG-n sartu zen; orain FPG-ko kide da. 1971etik 1975era Vigoko Edicións Castrelos-en lan egin zuen Xosé María Álvarez Blázquezekin batera. Lugora itzuli zelarik, bizirauteko hainbat lanetan jardun zuen, Central Sindicalista nazionalistak liberatu zuen arte. Corcubiónen hainbat urte egin ondoren udaltzain-lanetan, 1986tik aurrera Lugoko udaleko funtzionarioa da, eta Romeángo parrokian bizi da. Ezkonduta dago eta bi seme ditu. 1987. urtetik egunero dabil kolaboratzaile-lanetan *La Voz de Galician* galegoz eginiko gurutzegrama bat sortuz, eta *A Trabe de Ouro*-ren Idazketa Kontseiluko kidea da. Redes Escarlatako partaide da, eta Akademia Galegoko kide numerarioa.

Bere liburuen artean, berrogei bat, honako hauek daude: poesian, *Romanceiro da Terra Cha* (1973), *VIII fragmentos* (1987), *Amor e tempo liso* (1987), *Patria do mar* (1989), *Canta de cerca a morte* (1994) e *Cabalgada na brétema* (2006); narratiban, *Galván en Saor* (1989), *Fortunato de Trasmundi* (1990), *Vidas senlleiras* (1992), *O cervo na torre* (1994), *Morte de rei* (1996), e *Mitos e memorias* (2003). Poesia galegoaren hainbat antologia ere egin ditu eta baita ikerketa historikoak ere, besteak beste, *Modios e moios: nota sobre metroloxía galega medieval*, *A chegada a Lugo do primeiro tren* eta *Cunqueiro e Don Hamlet en Lugo*. Itzulpenak ere argitaratu ditu, Petrarcoren *Cancioneiro*, Danteren *A Divina Comedia* eta *Vida nova*, eta Alexandre Dumasen *Os Tres Mosqueteiros*; A Divina Comedia-ren itzulpenagatik Florentzia hiriko urrezko domina jaso zuen. 2003. urtean aurreko poesia guztia bildu egin zuen, *Vinte cadernos* izenburupeko bilduman.

Iruditeria Literatura Galegoko Klasikoetan

Nabaria den zerbait baieztatuz abiatuko dut hitzaldia: literaturak ez dira berdin-berdinak. Jakina, literatura –poesia– fenomeno unibertsala da, eta modu batera

edo bestera, garapen maila batean edo bestean, herri guztiek eta hizkuntza guztiek *poesia* ezagutzen dutela badirudi, gutxienean hiru forma aristotelikoetariko batean: poesia lirikoa eta poesia epikoa, edo narrazio fantastikoa. Baina, jakina, literatura bakoitzaren moduak, berau sortzen dueneko herriaren garapen mailaren arabera dira. Lehenik, bi estadio erabat ezberdin bereiz daitezke –nahiz eta batera existitu daitezkeen, eta izan ere, batera existitzen diren beti neurri ezberdinean–, fenomeno literarioaren bi funtsezko estadioak: ahozkoa edo agrafoa, eta literatura idatzia. Eta bi estadio handi horien barruan ere ezberdintasunak infiniturantz bereiz daitezke, eta beharbada dibertigarria litzateke orain horien inguruan gogoetatzea, baina ez da horrela izango. Premisa modura ezartzea interesatzen zaidana, horixe da beraz, literaturak ezberdinak direla, ez bada esentzialean, bai ustekabekoan, eta alderdi ustekabeko hau, kasu nazional bakoitzari berezko zaiona, horixe da guri gehien axola zaiguna, estaturik gabeko idazleoi, maila pertsonalean eragiten digun denbora-horizontean, alarma-maila batean edo bestean, baina arriskuan diren hizkuntzen idazleak garelako. Izan ere, ez da italieraren kasu bera, teorikoki 300 edo 500 urte barru desager litekeena, galegoaren mehatxua larria da, irtenbiderik jartzen ez bazaio –eta jarri egingo diogu- Irlandako gaelikoaren antzeko egoeran egon daiteke hemendik 50 urte-tara, geure seme-alaben bizitzan, edo zuetariko askoren bizitzan.

Duela zenbait urte geure artean, galegoen artean, egon zen mania xelebren bat: geure literatura “normalizatzearena”. “Normalizatzea” deitzen zitzaien, gutxi gorabehera, nobela beltza egoteari; hau da, zoriontsu izateko hemen ere idazle anglosaxoiek egiten dituzten gauza bertsuak egin behar zirela ulertu egin zen, edo gutxien-gutxienean espainolek egiten zituzten modukoak. Kontua zertxobait puzean ari naiz, baina ez gehiegi. Ni neu behintzat, horrelako homologazio-programa baten egokitasuna ukatu egiten dut, eta aurrera ateratzeko aukeraren ezintasuna ere adierazten dut, neurri batean behintzat. Literatura bakoitza sortu egin da eta garatu egiten da egoera historiko, politiko, ekonomiko jakin eta zehatzetan, eta literatura errealtate autonomoa izanda ere, betiere egoera hauekin guztiekin harreman dialektikoan egon badago. Literatura bada autonomoa, jakina; ondo dakigu hori galegoek, literatura bat sortu baikenuen –sortu baitzuten geure arbasoek–, pertsona on, demokratiko, ilustratu eta azkarrez osaturiko talde txikitxo baten borondate ekintza huts eta bikainari esker sortu ere; geure dialektoa kondentzen zuen historiaren haize beltzari aurre egin zion borondate horrek, haize beltz horrek kondentatu egin zuen geure dialektoa, kasik langileklase zapalduetara murrizturik egoteraino, ia-ia ustelkeriara eta loriarik gabe desagertzera behartzeraino.

Rosalíak, Pondalek eta Currosek sorturiko literaturak literatura espainolaren, edo literatura frantsesaren, edo ondoan dugun eta ia hizkuntza berean dagoen literatura portugesearen modukoa izateko asmorik izan al daiteke? Geure lite-

ratura nazio-tresna bezala sortu zen, eta baita nazio-fabrika modura ere. Jakin badakit horixe esatea zertxobait sinplifikatzea dela; ondotxo dakigu literatura galegoa egun badela horixe baino zer edo zer gehiago, eta ondotxo dakigu Rosalía eta Pondalen aurretik ere egon zela beste ezer; baina zertxobait sinplifikatuz ezarri ohi dira egia garbi esentzialenak.

Bai, kontuan hartu behar da aurre-historia; ezin da ahanzturara eraman Francisco Añónek galegoz idatziriko obra zoragarria, obra laburra abileziaz betea; ezin da ahanzturara eraman Pintos Villarren obra itzela, *A gaita galega* liburu aitzindariaz gain, gure hizkuntzan idatziriko mila bertsoetik gura utzi zituena, María do Carme Ríos Panisse-ek taxuz bildu eta editatu berri dituenak; ezin da ahanzturara eraman Antonio Fernández Morales jeneral progresistaren kasua, galego *bercianoan* sei mila bertso argitaratu baitzituen Rosalíaren *Cantares galegos* baino bi urte lehenago.

Baina hain justu *Cantares galegos* lanean abiatzen da sinbolikoki literatura galegoa, eta kasu honetan sinbolismoa oso erreala da, liburu handia delako, liburu aparta delako. Aurrekoak berriz, ez, ez dira. Ez Pintos Villar, ez Fernández Morales, ez ziren jenio literarioak; nahikoa txukun idazten zuten, abileziaz erri-matzen zuten. Francisco Añónek gaitasun handiagoa zuen, baina ez zen hain goren heldu; eta ez zen jenioa ere Nicomedes Pastor Díaz, sentimentalismo hiperbolikoa gazteleraz landu aurretik eta Madrileko ministro-karrera abiatu aurretik bere jaioterriko galegoan bi poema luze idatzi zituena, 400 bat bertso estimagarriak oso erromantizismo klasizistago baten bidetik.

Baina Rosalía poeta jeniala da. Zorte onekoak izan gara, bazterrean utzi den Europako txoko pobre honetan, geure literatura modernoaren hastapenetan bi poeta jenial izan ditugulako, Rosalía eta Pondal, garai hartan Iberiar Penintsulan egon zen gauzarik modernoena izan ziren, Portugal barne. Mundu-mailako bi poeta handi, hauei lotu zitzaizen hurrengo belaunaldiko promozioan –baina aldi literario berean– Manuel Curros Enríquez handia, hain berritzaile izan ez bazen ere, bere garaian Europako hiri-poesiaren gailurretariko bat izan zen, esaterako, Eugéne Pottier-ren mailan zegoena; ezin liteke, beraz, Curros baldarragoekin alderatu, –aipa dezadan adibide gisa– Núñez de Arce baten mailan jartzea, esaterako, zenbaitek egin nahi izan duten bezalaxe. Jenio handiagoa dago Currosen poema bakar batean –*Nouturnion* esaterako– kontrairaultza erdi-liberal on pent-salariaren poeta ofizialaren hotsandiko prosopopeia hartan baino.

Rosalía de Castroren *Cantares Galegos* liburu jeniala da. Poesia kostunbrista da, diotenez. Rosalía bera erraturik zegoen bere kantekin, eta uste zuen, edo hala zioen, Antonio de Trueba edo Ruiz Aguilerearen antzekoak zirela. Ez ziren. Rosalíaren *Cantares*-ak epopeia nazional popularra dira, eta epopeia femeninoa. Ez da epopeia femeninoa Mistralen *Mirèio* izan daitekeen modura, zeinetan gizonezko batek –poeta handia gainera– maitasun istorio eder, asmatu eta tragikoa

kontatzen du bere –eta gure– Proventza maitea aurkezteko aitzakia bezala. “Cante uno chato de Prouvènço/ dins lis amour de sa jouvènço,/ à través de la Crau, vers la mar, dins li blad...”. Ederra da. Baina ez, Rosalíarena areago doa, Rosalíarena epopeia bat da –hitza botako dut gidoi eta guzti- epopeia nazional-popularra da, lehen pertsonan emakume erreal eta formaniztunak hitz egiten du, baina beti pobre, langile eta herrixkakoa, eta beti ere izpirituz libre, “neskatxa gaita-jolea” hori, mundua kantatzen duena eta bereganantz zuzentzen duena, eta halaber, Rosalíaren irudi magikoa dena, pobrea, kapare eta herrixkakoa, baina aldi berean, kultura maila altuko emakumea poeta frantses handiak bere hizkuntzan irakurtzen dituen eta hikatu daitekeena altura handiagoko bere garai-kideekin. Follas novas-en prestigio mingarriak Cantares Gallegos-ena apaltzea ekarri du ia, batez ere hauen kontra egin zutenetik iragan mendeko zenbait kritikok. Ez dakit nik bi liburu horietatik zein den hobea; ziur asko, auzia bera nahikoa tontoa da, hiru liburu handi poetikoen Rosalían ezin baita hautatzen ibili: horietariko bakoitzak eta guztien osotasunak osatzen dute poesia unibertsalaren gailurrik sendoenetariko hau. Halaber, honako hau diotsuet zintzoki: galdetuko bazenidate, hiru hauetariko zein eramango nukeen uharte bakarti klasikora, nik neuk, nahiz eta beste bien galerak min eman, baina munduko hitz ederrenen konpainian joatearen pozak hartuta, *Cantares galegos* eramango nuke, liburu polimorfoa, jeniala, totalitarioa, non Galizia Rosalíaren beste liburuetan baino edo beste edozein liburuetan baino ederrago eta kementsuago eta herrikoiago dagoen.

Hortxe dago, *Cantares galegos*en, duela ia mende eta erdi herri galegoa blaitzen duen iruditeriaren zati handi bat. Izan ere, herri galegoak – hau da, guk geuk- hortxe ikusten dugu geure burua, poesia argi eta sakon-sakon horretan gugan den onena eta nobleena eta egiazkoena topatu izana begitantzen zaigu. Gizon eta emakumeak garela: zoriontsuak, hainbat eta hainbat dohakaitz izanik ere, geurea bezalako fundatzailea duen nazioa izateagatik, jada bidea egin dela adierazten duelako.

Eta fundatzailea diot, izan ere, nazio-kontzientzia, nazio bat osatzen duen herri bat izatearen eta osatzearen kontzientzia, gure artean batik bat geure buruaz irudi bat ematen digun literaturatik sortu zelako, ordura arte bakar-bakarrik modu lainotsu batean genuena, modu zehaztugabea, modu antzuan, modu ez eraginkorren. Ispilu lausotu batean geure burua begiratu izan bagenu bezala...

Galizia nazio modura Murguíaaren pentsamendu joritik sortu zen –Rosalíaren ohe-laguna, ez dezagun ahantz; Rosalíaren gogaidea, ohe- eta alderdi-laguna. Murguíaaren pentsamenduak zerikusi handia du Rosalíaren eta Pondalaren poesia-rekin – jada independente direnak; Murguía poeta bezala ez zuen balio handiegirik edo batere ez; baina oso ondo pentsatzen zuen, eta bere pentsamenduak definitu zuen zeregina, argialdia inspiratu zuena.

Cantares Galegos-ak, eta geroxeago *Follas novas*-en dagoen minaren eta tragediaren zamak, geure salda nazionala egosten duen pertz magikoa eusten duen euskarri handiaren oinarrietariko bat osatzen dute, edo beharbada oinarri nagusia. Izan badira, esango nuke, orainaldiko oinarri ere, beraz, ez dut esango. Baieztatuko dut, hori bai, Rosalía de Castroren poesian sutan dagoena eta erretzen gaituena fede demokratiko erradikala dela, eta esango dut “neskatxa gaitajolea” forma anitzetan etengabe agertzea, eta herri-langilea osatzen duten pertsonaia ezberdinak igarotzea bertsorik ederrenetan, hoskideen diren bertsoetan, bertsorik jakintsuenetan eta munduan eratu diren bertsorik onenetan, bat-batean nazioa ageriko, zirrarragarri, halabeharrezko, justu bilakatzea eragin dutela.

Eta euskarri handiaren beste oinarrietariko bat *Queixumes dos pinos*-eko Pondal dugu, eta geure ereserki nazional ederra egin zuen Pondal, duela ez asko Madrileko eskuin muturreko ilun eta ergel zenbait zalaparta sortu dute horren inguruan. Baina Pondalek nazio-iruditeriaren eraikuntzan eginiko lana ereserki galegoa sortu aurrekoa ere bada, hain demokratikoa eta laikoa, mendeurren ofiziala ospatuko dugularik, *Queixumes dos pinos*-en aurreko hori. Pondal Rosalía baino bi urte zaharragoa zen, eta jada 1856. urtean, hogeita bat urteko mutikoa zela, eta Carralen fusilaturiko askatasunaren martirien heriotzaren hamargarren urteurrena betetzera zihoala, Eduardo Pondalek –oraindik gaztelaniaz- egin zuen bere lagun Aurelio Aguirreren omenez Conxoko Oturuntzan topa ospetsua: “Decid: ¿quién hizo al hombre diferente / de su hermano? ¿quién dio mayor nobleza / al corazón de un déspota tirano / que al honrado sudor del artesano?”. Conxoko oturuntza! Manuel Murguía esan zuen “orduan miraria gertatu zen Santiago hiri mortuan, bi mutikoen ahotsen aurrean, altxatu egin zen proletalgora”. Oturuntza honetan jauntxoek, kapareek, burgesek eta ikasleek Compostelako artisauak eta langileak zerbitzatu zituzten, iskanbila eta amorru lebitarra piztu zelarik, eta horiek horrela, oturuntza honek mitologia progresista eta demokratikoaren parte handi bat osatu zuen, eta horixe izan zen Galiziako nazio-idea eta pentsamendu galego historikoa eratzeko hartu zen osagaietariko garrantzitsuena, alde nabarmenez. Zenbait ergelkeriek—esate baterako, Pondal poeta aristokratikoa zela zioenaren modukoak, edo Otero Pedrayo karlismoarekiko sinpatia zuen karka bat zela zioenaren modukoak- zenbait unetan ekarri izan dute –beste interes batzuekin batera- batzuek Risco gailendu izana Castelaoren ondoan. Froga argia honako hau: 1936ko otsaileko hauteskundeak eta Estatutuaren erreferenduma irabazi zituen Fronte Popularra osatu zenean, Partido Galegistak bost mila edo sei mila afiliatu zituen, eta Vicente Risco eta Filgueira Valverde, antikomunista profesionalak zirenak, Eskuin Galegista osatu nahi izan zuten eta Castelaoren eta Bóvedaren –eta Otero Pedrayoren- alderdia utzi egin zuten beste militante batzuekin batera, guzti-guztiak batuta berrogeita hamar bat lagunetara ere heldu ez zirelarik.

Baina itzul gaitezen Pondalera: 1861. urtean A Coruñako Lehen Lore Jokoen kariatara argitaratu zen antologia elebidun ospetsuan, *Álbum da Caridade*-n, “A campana de Anllóns” bere poema disdiratsua agertu zen, jada hiru urte lehenago argitaratu zena *El País* deituriko Pontevedrako egunkari batean. Poema hau, jada klasiko jaio zena, mordoxka bat aldiz inprimatu zen leku prestigiosuetan, eta Pondalaren osperako liburu baten modura funtzionatu zuen... Kontuan hartu beharra dago orduan poesia zabaltzeko ez zela liburu pertsonala bitarteko bakarra, ezta beharbada nagusia ere. Francisco Añón-ek, bere garaian prestigio handikoa izan zenak, ez zuen liburu bat bera ere argitaratu bizi izan zen bitartean, hirurogeita bost urtez bizi izan bazen ere; eta Xoán Manuel Pintos opa-roak ere, munduan zehar 15.000 bat bertso zabaldu zituenak, ez zuen bildu horien laurdena ere bere liburu bakarrean, *A gaita gallega*-n, gainera emanaldika agertu zena. Pondal jada bazen Pondal *A campana de Anllóns*-ekin, eta *Rumores de pinos*-ekin, bere bakardade eta sufrimendu urteen ondoren, bazen jada Bardoak. Baina *Queixumes dos pinos* da, osotasun kanoniko modura, iruditeria nazional galegoaren bigarren oinarri literarioa ulertzeko aipatuko duguna. Baina gutxi hitz egingo dugu, behar dena baino gutxiago, premiazkoa baino ez dugu esango, esentziazat ditudan bi kontu zehaztuko ditut.

Lehen kontua: aipatu dudana bezala esan izan da Pondal poeta aristokratikoa dela, horrelako adierazpenarekin esan nahi izan da bera aristokrata zela eta bere poesia aristokratizatzailea zela, hitz horrek hesitzen duena hesitzen duela. Lehenik, ez da zehatza Pondal aristokrata zenik. Pondal kapare-jatorria zuen familia batekoa zen, nahikoa aberatsa zen baina ez oparoa, eta are gutxiago aristokratikoa zehatz-mehatz, eta merkataritza— eta industria-negozioak zituen. Eta gainera aitaren aldetik jatorri asturiarra zuen, komeni da gogora ekartzea, izan ere, nazio galegoaren eraikuntzan odola eta abizenak ez dira sekula garrantzitsuak izan: Pondal erdi asturiarra, Murguía erdi euskalduna, bere editore handia Martínez Salazar Astorgakoa osoki, Alvareztarren Leongo dinastia, gaur-gaurko Álvarez Cáccamoen belaunaldi bikainak odol-galegotik zortzirena baino ez du, halakorik existituko balitz... Ez daitezela zuzendu niregana arrazismo kontuekin. Eta Pondal kaparea izanda ere, ikasketaz medikua zen, nahiz eta kasik ez zen horretan jardun, zeraman mutilzahar bizimodu apalari aurre egiteko, Pontecesoko etxearen eta A Coruñako familiaren ostatuaren artean, familiako errentak nahiko zitzaizkion. Beste alde batetik, Pondal hiritar bezala demokrata zen, eta poeta bezala errotik zen demokrata, pobreen samin eta miseriez kexu den burges errukiorra baino modu sakonago eta egiazkoagoan. Pondal poeta bezala errotik zen demokratikoagoa, ez baitzen negarrez ibiltzen besteen miseriak zirela eta, baizik eta bere poemetan pobreak, langileak, nekazariak, arrantzaleak eta zerbitzariak printze, heroi, eta errege modura irudikaturik agertzen ziren: izan ere, horiek dira Bardoaren lagunak. Eta Bardoak Anllóns ibaiko bokalearen ondoko muino bate-

an bere burua lurperaturik ikusten duenean, hauxe da etorkizunaz ondorioztatzen duena:

Zisnetik datzanean
hondakin sukartsurik
ur-bazter ilunaren berdearen gainean
eta jada ez da ulukatzen kantu armoniatsurik,
hilobira ezazue
muino hareatsu eta babesgabe hartan,
Anllóns den horretan, bertako ibaia,
(hark gehien maitatu zuena guztien artean)
haren peleginazio antzinakoa
eta lan luzean hartzen du atsedean.

Esan dezala arrantzaleak,
Osmoko¹ seme latza,
Barratik sartzean,
begitarte iluna bihurtuz:
Han datza beste
garai batean geure eremuaren kantore zena.

Hau da, bardoaren ofizioa begitarte iluneko itsasoko langileak justifikatu eta laudatu egiten du, eta horixe da, noski, kantatzen duen nazioaren jabea, bera baita pobreen Bardoa, berataz galdetuko dute, hil ondoren, *anduriñek* Afrikatik bueltatzean:

... zerbitzariak eta ilotek bardoaz
galdetuko dute.

Ados gaude: ona da burges errukiorrak samina adieraztea nekazariaren bizitza hutsala dela eta, baina ziur asko nekazaria hobeto dago Pondalen, *Queixumes dos pinos* abiatzen baitu honako hau esanez:

Baxu-baxu kantuan
bergantiñar ona
akuilua lepoan

1. Osmo Cormeko badian dagoen hondartza bat da, arrantzarako itsasontziak ainguratzeko egokia; egon behar du –errima dezan- kasik Corme beraren zentzua izanik. Barrak Anllónseko zingiraren ahoa estutzen du.

eta dotore manerak,
Pontecesora darama,
ilargi argiko gau batean,
taulaz pisutsu gurdia,
beharbada aurrez jarriak;
gogo sakon eta alferrak
azaltzen ez dituen gauzengatik,
mila bakardade ilun
doaz oihartzunak libre egiten;
eta aberriaren morrontza zorrotza
gogoratzen duela dirudi.

Eta horrela segitzen du. Tonu noble serio hori gerrillari edo antzinako errege mitiko baten deskripzio epikoari dagokio; baina deskribatu duena Bergantiñoseko nekazari bat baino ez da, behi-gurdi bat gidatzen doana, eta deskripzio hori ondo dagokio nekazari horri Eduardo Pondal hiritarraren aldekoa delako, Eduardo Pondal bardoaren aldekoa delako, bere anaia eta burkidea; eta igualak direnez, Bardoak Nekazaria deskribatzen du munduaren erdian iltzaturiko gizona balitz bezala, munduaren jabea balitz bezala, beharko lukeen moduan. Eta amaitu da demostrazioa: hori da demokrazia.

Pondalen poesiak Manuel Murguía-ren programa politiko eta kulturala bete egiten du Rosalía-k berak baino modu argiagoan. Murguía-n dagoen guztia Pondalen dago: demokrazia, errepublikanismo esentziala, atlantismoa, zeltismoa... Murguía-k irakurri zuen Breoganen dorrearen historia eta bere leinuak eginiko Irlandaren konkistaren historia, mitikoki geure leinu bera dena, eta Pondalek hau guztia materia poetiko bihurtu zuen; eta are gehiago, ereserki nazional: “Itzelezko lekutan/ geure ahotsak aldarrikatzen du/ Breogan nazio/ onaren luditzea”. Murguía-k folklore zeltiko irlandarraren eta geurearen arteko harreman estuak atzeman zituen, hango eta hemengo mitoen artean, beharbada jada Mirandak zertxobait hitz egin du horren inguruan gaur goizean, Pondalek asmatu egin zuen Bergantiños toponimo zertxobait opaku horretan noble gerrillari zelta, edo antzinako bardoa. Edo agian emakume noble gerrillaria, “Maroñas, birjin izukaitz / ibilera dotorea duena”, zauri izugarriek hil baino lehen “borrokaldi gogorraren ondotik / Folgar noble zeltak / erromatar mukerraren kontra / egin zuena Xallaseko zoruan”, zentzuak galdu aurretik eskaera hau egiten du “Margaride, parekorik ez duen ahotseko bardo”:

Margaride gozo eta samurra
begirada xelebrea duzuna,
zeini lantza gogorrenak ere

ez dizkion eskuak mokortu,
hagin-ote gozoa
bezain lirain eta beratza
azienda ilunean hazten dena
bere joko-denboran,
Oh Margaride, zeure harpa
entzutea gozo zait oso!

Beste zati batzuk aipa nitzake, baina hori hautatu dut oso gustuko dudalako, eta are gehiago, askotan esan izan delako Pondal matxista nazkagarria izan zela... Ondo da, neuk ez dut ukatuko; baina irakurri berri dudan horixe berak idatzi zuen, eta rol maskulino eta femeninoen ideia horretan oso zegoenik ez dirudi, horren moduko kontuak topa daitezkeelako gutxienez dozenaren bat bere obra laburrean.

Poeta jenial baten obra labur handia. Azken egun hauetan Carducci irakurtzen egon naiz, bere garaiko poeta handi bat -biak 1835. urtean jaio ziren- eta bada antzekotasunik hauen artean. Carducci oso ondo dago, oso gustuko dut nik, nahiz eta pixkatxo bat desprestigiatu izan den idatzi zuen poema txar bat zela eta, eta zoritxarrez horixe da gehien errepikatu izan dena: "T'amo, o pio bove; e mite un sentimento / di vigore e di pace al cor m'infondi...". Bai, Carducci oso ondo dago, baina Pondal poeta hobea da; Pondal jenioa da, miraria; irakurtzen den aldi bakoitzean, Pondal berria da, eta handitzen doa, eta erraldoi egiten... Eta bera da bigarren oinarria, fundamentu mitiko eta heroikoa, eta aldi berean, demokratiko eta herrikoa, geure nazioaren iruditeriaren pertza eusten duen euskarriaren bigarren oinarria. Breoganen semeak gara, agian ez zen existitu, baina ez du axolik; ez zen Santiago de Compostelarik egon, eta ikusi baino ez dago horren inguruan sortu den zurrumbiloa, eta zenbat diru irabazi den negozio horrekin. Breoganen semeak gara horrela esan zuelako Bardoak bertso hilezkorretan, geure ereserki diren horietan; Pondalen seme gara egiazki.

Eta euskarriaren hirugarren oinarria Curros dugu. Manuel Curros Enríquez, beste bi horiek baino askoz gazteagoa, batez ere poeta zibil, politiko eta soziala kontsideratu izan dena. Horrela da osoki, nahiz eta bere buruaz ere idatzi zuen, eta zalantzarik ez, legenda zoragarria, hain katolikoa dena, *Virxe do Cristal*-ena, adierazteko dohain guztien jabe den poeta dugu, Celanova jaioterriko tradizioei zien maitasunagatik kantatu zuena -eta baita saritzat jaso zituen bi mila erreallengatik ere, premia bazuelako-, nahiz eta protestantea izan erlijioz. Curros poeta handia da, serioa eta sakona. Aipatu dut jada *Nouturnio*, poema liriko-narratibo ederra, poema honetan ahots nagusia nekazari zaharra da atez ate ibiltzera beharturik dagoena, lur jota eta bakarrik dagoena emaztea hil zuen sute baten ondorioz, zuten guztiarekin batera erre zena. Poema ikaragarria, errepublikarra eta errotik demokrata den poeta honen beste hainbeste poema bezalatsu, herri

galegoak maitatu zuen poeta hau, Frantziak, esaterako, Víctor Hugo maitatu zuen bezala; edo agian gehiago, pobreagoak garelako. Ez dut gehiegi hitz egingo gizon noble honi buruz, ez dut aipatuko bere bizitza errebeldea eta gogorra, ez ditut aztertuko bere poema handiak zeinetan hainbeste hunkitzen gaituzten fede demokratikoak, zapalkuntzak eta obskurantismoak sorturiko herrak, eta herriak eta aurrerapenak sorturiko maitasunak. Poeta handia izan zen; Pondalek esan zuen, bederatzi urte gehiago bizi izan zituela nahiz eta hamasei zaharragoa izan: “Ez bada Ponte-Ceson / lurpera nazazue A Coruñan / Curros handiaren ondoan, / bere musa baita neurea ere / Breoganen mintzoa / egin zuen noble eta sendo: / nahi nuke nik etzan / halako hilobi noblearen ondoan...”.

Ez dut ia Currosi buruz hitz egingo, baina gauza bat esango dut: bi lekutan, *Aires da miña terra*-ren poema batean eta *O divino sainete*-ren kantu batean, ziur asko lehen aldiz Currosek abian den, dialektikan den literatura galegoaren ideia organiko eta dirdiratsua eraiki zuen, jada ez dena lurralde-iritzi erudituan oinarrituriko ideia soila, Galizian jaio edo Galiziako auzotar eginiko idazleen zerrenda baten metatzea baino areago doan ideia baizik. *Aires da miña terra*-ren hirugarren edizioan “O Cipriano” poema ere bildu zen, “Xan de Deza, nekazari on”-ari zuzendurikoa, San Cipriano liburu apokrifoiari kasu eginez lurperaturiko altxorren bila ibiltzeagatik dena galdu zuen gizona. Eta Currosek aholku ematen dio:

Begira, Xan: itotzen zaituzten
tristura horientzat, min horientzat,
badago errezetarik;
utz aztien irakurtzeak;
irakur itzazu idazle galego eta
poetak.

Ez ezazu amets egin, nekazari on,
ez egin amets urrezko mendi
ez mordoekin.
Zeure liburu onena galegoa da,
zeure altxor handia ideien
altxorra.

Kontsultatzean Murguía,
Paz², Pondal, Añón eta Lamas,

2. Xoán Manuel Paz Nóvoa, Currasen lagun eta defendatzailea, aldikako poeta ertaina baina jurista handia, militante iraultzailea eta artikulu entzutetsu batzuen egilea, liburu batean bildurikoak, foruen erredentzioari buruzkoak.

eta ahoan
Rosalíaren kantuak
beti dituzunean, hainbeste maite dituzunak,
izango zara aberats!

Eta orain ekar genezake hona *O divino sainete*-ren III. Kantua, bertan Pardo Bazán kondesak, Currosek adeitasunez gorrotatzen zuenak, Erromako jubileura doan Zazpi Bekatuen Trenean literatura galegoa definitzen baitu nahigabe ukatzen duen amorru bekaizti hori agertzean... Literatura berri honen ikuspegi dialektikoa are argiagoa da pasarte zoragarri honetan, baina ez dugu denborarik.

Uste dut nahikoa dela esandakoa amaierari lotzeko. Hogeitabat urteko tartetan, hiru poeta handiren eta maila handiko historiagile eta pentsalari baten batze zoriontsuak, nire ustez, iruditeria nazional baten funtsezko oinarria eraikitzea ahalbidetu zuen, gaur egun ere indarrean dagoena, batetik, bere aberastasun simbolikoarengatik, eta bestetik, jenio literario zenbait elkartzeagatik eta zeregin komun bati ekiteagatik, oso gutxitan historian hain denbora gutxian bildu izan diren bezala, eta ziur asko sekula gertatu ez bezala Galizia bezain txikia den herri batean. Baina, baita beste kontu bati esker ere: amets nazional honen materia errotik demokratikoa delako. Estaturik gabeko nazioetan literaturak leku esentziala du: lehenik, nazio dinamikoa, historikoa sortzeko zeregina du, bere formulazioaren bitartez, ez formulazio teorikoa bakarrik, baita formulazio mitikoen bitartez ere, mitoek izan dezaketen zentzu eta balio nobleenari erreparatuz. Jakin badakigu agian ez garela Breoganen semeak; baina halaber, jakin badakigu bagarela, Maroñas gerrillaria garela eta Margaride bardoa, eta atez ate doan nekazari zaharra, gau sakonean zapoa kantari entzuten duena, eta Rosalíaren neskaxa gaita-jolea gara, alarguna garen bezalaxe eta hura abandonatu zuen emigrantea garen bezalaxe, eta Bastavaleseko kanpaiak geure herrixkako kanpaiak dira, eta Santiagotik Padronera joatea “euria barra-barra ari zela” Galizian bide guztiak ibiltzea bezalaxe dela badakigu. Garena gara haiei esker; eta noiz edo noiz zerbait izatera helduko bagina, haiekin egongo gara zorretan. Haiek jarri zituzten zimenduak.

Bai, zoritxarrez zimendu horretan oraindik ez zegoen industriako langile-klasa, garai hartan ia ikusezina zena, eta beste hainbeste gauza ere ez zegoen; baina baliteke aurre-itxuratuta egotea. Eta ez bazeuden ere! Rosalía, Pondal eta Currosen ondoren Manuel Antonio etorri zen, poeta pilotu anarkista, munduan parekorik ez duena; Castelao etorri zen lider handia izan zena, gure gidari, eta idazle ona izan zena; Blanco Amor etorri zen, Ourense langilea aberriaren bihotzean pausatu zuena; Otero Pedrayo etorri zen, guretzat geure errepublika sekretuaren lehendakari izan zena; Lorenzo Varela etorri zen, borrokalari komunista, munduan bertso gutxi erabiliz mito gehien sortu dituen poeta izan zena; Álvaro

Cunqueiro etorri zen, zorionen ameslari tristea, poeta jeniala, mitografo itzela; eta egon badago Méndez Ferrín, geure literaturako irudi handia, Rosalía, Pondal, eta Curros eta gainerako guztien sintesia izatera datorrena, Tagen Ata asmatu zuena, Europako nazio zanpatuen fabula handiena altxatu zuen Printzearen kartzelan, geure iruditeria nazionalan Gran Sol eta gerrilla sartu zituena, eta langile-klasea, eta Arturo erregea, eta Guardia Zibilak beren lurretatik bota zituzten nekazariak ere ekarri zituen iruditeriara, nolabait azken horixe herenegun izan zen. Eta egon dira eta egon badaude dozenaka eta dozenaka bigarren mailako, hizlari honen modukoak –jada bukatzeaz dena–, eta baliteke, zorioneko egun batean, zer edo zer txiki asmatu izana literatura galegoa den masa mitiko handi horren parte izatera igaroko dena, literatura nazional bat, lurralde liberatua Galizia libre baten itxura hartzen duena. Literatura bat ez dena gainerakoak bezalakoak, izan ere, literatura hau bada –ere– borrokarako arma. Breogan aita eta Carraleko martiriak, Maroñas eta Manuel Ponte, Margaride eta Manuela Sánchez, “neskatxa gaita-jolea” eta María Balteira, Añón Currosen gidari Zazpi Bekatuen Trenean eta On García erregea kateaturik, Solísen sablea eta Foucellasen pistola, segalariak Gaztelan eta itsasoa, itsasontzia eta gu, Merlín Mirandan eta itsasoan hil ziren hiru arrantzale lider horiek izuari ihesi, Bran jainko zena bere herrirantz zubi egiten eta Amaury Printzearen kartzelan, justizia berek kabuz eginez eta Rotbaf Luden Grande Fragan sartuz, Pondalaren arkatza eta Rosalíaren luma.

Asmatuzkoa gaur egundo literaturan

Xabier Gantzarain

(Azkoitia, 1975).

Arte Ederretan lizentziatua. Lubaki Bandako kide izan zen 90eko hamarkadan, beste hamaika idazlerekin batera. Hainbat komunikabidetan kolaboratu izan du: *Berria* egunkarian eta Euskadi Irratian, besteak beste. Euskal Idazleen Elkarteak Herri Irratiaren bidez hedarazten duen *Testuketan* irratsaioko esatari izan zen urtebetez, eta gaur egun ETBko *Sautrela* literatur saioan ari da lanean.

Liburuen azal askoren egilea da. Bi liburu ditu argitaratuta, biak ere biografiak: *Van Gogh, bihotzean eguzkia* (Txalaparta, 2002), haurrentzat sortutakoa eta *Epelde, mende baten soinua* (Trikitixa Elkartea, 2004).

Maitetasunaren koordenadak

Lurrak ez dauka izenik, urak ez dauka izenik, harriak ez dauka izenik. Eman egin behar zaio.

Lurrak, urak eta harriak Azkoitia izena hartzen duten lekuan jaio nintzen, eta euskaraz hasi nintzen, izenda zitekeen guztia izendatzen. Nire mundua txikia zen, eta ez neukan arazorik ingurua izendatzeko orduan: lurra Azkoitia zen, ura Urola zen, harria Izarraitz zen. Nire mundua txikia zen, eta mintzamoldea, bakarra. Orduan ez nekien hiztegietan hiltzera kondematutako hitzak erabiltzen zituztela gurasoek. Ez naiz ari hizkuntzaz, sentimenduez ari naiz. Ez naiz ari nostalgiaz, bakardade linguistikoaz ari naiz.

Tutik ez dakit linguistikaz, eta nire teoriak, sentitzen dut esatea, neuretzako baino balio ez ote duen, daukat irudipena. Begietan jotzen du, eta ezin hasiko naiz ukatzen, hizkuntza komunitate batena dela, hizkuntza hori dakiten guztiena, hitz egiten dutenena, ulertzen dutenena, irakurri eta idazten dutenena. Hizkuntza, izatez, komunikatzeko da, komunitatean komunikatzeko. Baina, barkaidazue negarra, inkomunikatzeko ere bada, inkomunitate bateko bizilagun bakarra zarelaren sentitzeko. Ezinezkoa, esango duzue, guk ulertzen ditugu zure hitzak, komu-

nitare berekoak gara. Eta bai, komunitate berekoak gara, hizkuntza bera darabilgu, baina hizkuntzaren afera, gaur, hemen eta niretzat, afera pertsonala da zeharo. Kolektiboa ere bai, noski, ezin egin ezer bakarrik, baina neu naiz edozein komunitateren lehen bazkidea.

Ez da erraza esplikatzeko zer den bakardade linguistikoa, baina heste-mataza honi tiraka, odolez zikinduta aurkitu dudana askatu beharreko lehen korapiloa, hizkuntza sentitzeko moduarena da. Hizkuntza sentitu egiten delakoan nago. Ez naiz ari hizkuntza maitatzeaz. Irakurtzen duzun, entzuten duzun, esaten duzun, idazten duzun hitz bakoitzak zuztarrak dauzka, eta ez lurrian, edo uretan, edo Izarraitz izena hartzen duen harri kozkor horretan, zeure bihotzean baizik. Hitz bakoitza maitasunaren emaitza da, harreman batena, ahanzturari ostutako momentuarena. Hitz bakoitza, denboraren indar suntsitzaitetik babesteko eraiki polderra da. Eta polder bakoitzak, irudikatu ere ezin dezakezun iragan batetik datorren iruditeria gordetzen du.

Lurrak, urak eta harriak etxea izena hartzen duten lekuan, nik ez nuen maitasunik ezagutu. Nire gurasoen ahotik, ez nuen sekula maitasuna hitza entzun. Hitz hori arrotza zen niretzat. Irakurtzen nuen liburuetan, entzuten nuen irratian eta telebistan, eta idatzi ere egiten nuen, kaligrafia ariketetan, baina etxean, lehendabiziko komunitatean, ez nuen inoiz aditu. Etxean, maitetasuna zen nagusi, maitetasuna zen sentimendu horri ematen zitzaion izena. Amak beti esaten zidan, maitetasunik gabe, beste guztiak ez zuela zentzurik.

Hogei urte neuzkan, baziren urte batzuk irakurtzeari ematen nizkiola nire orduarik behinenak, eta oraindik inon irakurri gabea nintzen, etxean hainbeste entzuten nuen maitetasuna. Hogei urte neuzkan, Jose Luis Otamendiren Lur bat zure minari poema liburua esku artera iritsi zitzaidan. Eta urte luzez sentitu nuen bakardade linguistikoa hausteko bidean jarri zidan, eta orduantxe hasi ziren aldatzen, zentzua hartzen, odol berritzen, nire maitetasunaren koordenadak. Lehendabiziko zatiak, Polderrak du izena, eta lehendabiziko poemak, Koordenadak. Hantxe irakurri nuen, hogei urtean lehen aldiz, etxean hainbeste entzuten nuen maitetasuna:

Almitza hazten den lekuetan bizi gintezke

Inoren saihetseko burdinen artean sartu eta itotakoei arnasa nola hozten zaien ikasi

Ibaiko sunda dute begiok eskuok urriko zeru bat bezala aldatzen gara

Berariaz dagoz aireportuak gugandik hain urrin laino itsuaz haruntzago

Ibaiko sunda du saminak ere, ibaitu egiten da oroimena zauriak ibaitu

Eta bakeak urpetu gabeko lurrotan elkar maitatzera egiten dugu

Alboan zaitudan egiaztatu koordenadak berritu

Eta atzokoan loak non lotu gintuen idazten dut

Idazten dizut jakitearren arrotz ez garen lekuan atzerritar garen

*Urondoan pausatu garen orea lotan bezala ala abantean igaro gehiengoz
 bozkatu galernen peko
 Erbeste ederra dateke zure bihotza urre gorrizko kaserna
 Baina lurmendatu ezinezko talaiak ditu gure maitetasunak
 Baimendu gabeko eremuak ahora ekartzeko gaitzak diren izenak
 Haitzen gandorrak bezalakoak jitoak daramanarentzat
 Orduan libre ez garela aitortzen diogu elkarri
 Zerbait hiltzen zaigula barruan eta bizi ez gintezkeen herriak habitatzen
 ditugu*

Badakit, linguistikak ez dauka zerikusirik literaturarekin, eta arrazoi linguistikoek ez dute balio liburu baten epaitzeko; gehiegitan entzun dugu halako idazlek oso hizkuntza aberatsa, oparoa eta dotorea erabiltzen duela esaten, liburu bati kritika egiteko orduan. Argi utzi nahi dut, oroz gain, ez dela hizkuntza liluritzen nauena, ez dela ene bakardade linguistikoa hausteko bidean jarri izana, liburu hau nire maitetasunaren koordenadetan sartu zuena, eta liburu hau gogoan atxiki bazait, erakusten duen iruditeriaren ederragatik dela, neure egin dezakedan mundu bat erakusten duelako. Neure egin dezakedana baino, neurea ere baden mundu baten koordenadak marrazten dituelako hitzez.

Tesi baterako emango luke, nahi izanez gero, liburu honetako iruditeria aztertzeak, baina hau ez da tesi bat, eta laburrean aritu beharra daukat. Poemarioa bitan banatzen da: polderrak eta almitza.

Polderrak urari ebatsitako lurak dira, gizon eta emakumeen bizinahiak ezinari ostutako lurak, edo nahi bada, heriotzari kendutako denbora, ahanzturari harrapatutako oroitzapenak, estatistikaren diktadurari harrapatutako askatasuna. Ezer ez datorkigu zerutik emana, euria ez bada, eta egunero egin behar da borroka, urak jan ez dezan polderra.

Polderreko lurak lur zakarrak dira, gaziak, antzuak, eta urtetako lana eskatzen dute, han ereindakoak ezer emango badu. Eguneroko lana eskatzen du, eta egundoko nekea, urari begirik ez kentzea, lurrean erretenak tentuz egitea, zerutik datorren euriak lurak erretzen dituen gatza berriro uretara eman dezan, maitetz-maitetz zaintzea oraindik fruiturik emango ez duela jakinda ere. Polderrak etorkizunerako proiektuak dira. Baina oraina dira.

Polderrak muga daude, edo hobeto esanda, muga dira. Han hasten da itsaso, ilunpea, hurbilekoak urrun utzi beharra, hankazpian lurrik ez edukitzearen kontzientzia, hondoratzearen izua, heriotzaren itzal luzea. Eta han hasten da, bestaldera eginda, lur gozoagoen segurantzia, bizitza erosoago baten lasaitasuna, bonbarik lehertzen ez bada bakean bizi direla uste dutenen lurraldea.

Baina polderretan gauzak bestela dira, eta poema zati bat irakurriko dizuet, Azken lurraren zati bat, polderretako biztanleen minak zein diren ikus dezazuen:

Geure burua beste etsairik onesten ez duen lurra
Jendea batera bizitzen maitasun froga beraren hegian
Minutu berean lurmutur berean
Gure maitetasunak ez daki
Ez daki hegan
Ez da kalatxori
Darabiltzan orratzak bestela imanduak dagoz
Itsasgorak ekarriko ez dizkigun iheslariak
Itsasbeheran utziko ez dugun edertasuna
Hau da agin ziezaguketen azken zerua
Ez dago inor ebakuatzerik
Hildakoak ohean direla abandonatu ditugu etxeak
Hipermerkatuetako aparkalekuak dauzkagu elkar maitatzeko
Hegazkinak teilapeak eta itoak estu amarratuta
Zu ez zaitut abandonatuko
Azken ordutan ez da bonbarik lehertu baina ez da heldu bakea

Ez dago inor ebakuatzerik, hildakoak ohean direla abandonatu ditugu etxeak. Eguneroko bizitza, Maiakovskiren txalupak jo zuen huraxe bera, gerra bat da polderretan. Eguneroko bizitza gerra bat da, esaten den hitz bakoitzak zuztarrak dauzkala dakienarentzat. Eta zuztarrek lurra behar dute, ura behar dute, sendo eta osasuntsu haziko badira. Baina ez dadila inor tronpa, zuztarrak ezinbesteko badira ez da hitzak bizi daitezen, jendea bizi dadin baizik. Jendeak senti dezan, jakin dezan, esan ahal izan dezan zer den maitetasuna. Senti dadin komunitate bateko, eta ez inkomunitate bateko biztanle bakar.

Iruditeriaz ari garela, egin dezagun ariketa bat. Irudika ezazue, batere hitzik erabili gabe, maite zaitut esan gabe, maitetasuna. Zein irudi aukeratuko zenukete maitetasuna adierazteko? Muxu bat? Besarkada bat? Errazegia, betikoa. Eskutik heldutako bikote bat? Eskutik heldu gabe ere maita daiteke elkar. Esan bestela kristalaren bestaldetik ukitzen ikasi duen presoari.

Topikoetatik at, maitetasuna zeharo afera pertsonala bihurtzen da, eta ez da kabitzen XX. mendeko zeluloidearen artxiboetan. Nork berak baino ezin dio irudi bat jarri bere maitetasunari. Uste dut horregatik idazten duela jendeak. Nik neuk behintzat, horregatik idazten dut. Idazten dut maite dudana erakusteko, eta maita nazaten ere bai. Gorroto nazaten ere idazten dut, baina esan gabe doa, gorrotoa maitatzeko beste modu bat besterik ez da. John Berger idazlearen ustez, maitatzearen kontrakoa ez da gorrotatzea, banatzea baizik. Eduardo Punset idazlearen ustez, maitatzearen kontrakoa ez da gorrotatzea, mesprezatzea baizik.

Eguneroko gerra horretan definitzen doan sentimendua da maitetasuna, alda-

korra da. Batzuetan nire maitetasuna portura nahi duen ontzia da, eta beste batzuetan, ontzira nahi duen portua.

Eta portua, ez al da polder bat, ez al da polderretan polderrena? Portua ere muga da: itsasoa izan gabe, ez da lurra, eta lurra izan gabe, ez da itsasoa. Mundua izan gabe, munduaren zain dago, eta ontzirik sartzen ez denean ere, mundua da. Paradoxa bat, esanen duzue, eta hala da. Paradoxa bat, irudia hitzez ematearen adinakoa. Paradoxa bat, irudia hitzez ematea bezain ederra.

*Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez da mapa bat ekar diezadazun*

*Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez da galdu egin naizelako*

*Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez nabil portu bila*

*Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Zinez mintzo naiz baina*

*Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez dut erantzunik behar
Non dago Basques' Harbour
Galdetzen badut
Ez baitut galdera bat egiten
Galdetzen badut
Non dago Basques' Harbour
Non dago Basques' Harbour*

Paradoxa izan arren, paradoxak gauza asko argitzen ditu, kontraesanak jartzen ditu agerian, baina aldi berean, baita kontraesanaren beharra ere. Ez gara kartoizkoak, hezur, haragi eta denborazkoak gara, aldatu egiten gara, poliedrikoak gara. Paradoxa ugari bizi ditugu, eta horiek ez ikustea da handienetakoa. Ez ikustea, esate baterako, nola baztertzen diren onenak, nola epaitzen diren, literarioak ez diren argudioekin, obra poetiko aberatsak, iruditeria zoragarriak dakartzate-

nak, munduan izateko moduak eskaintzen dituztenak. Ez dakit nik zenbat antologiata dagoen Koldo Izagirreraren liburu hau, *Non dago Basques Harbour*, baina badakit zenbatetan ez dagoen.

Atzerrikoak izanagatik arrotzak ez diren hitzekin liluratu da umea portuan, mundua sartzen da portura, ikatza, burdina, arraina, jendea, mundua. Umeari begiak ireki zaizkio, gizondu egin da marinel artean, portuan ikusi du lehen hildakoa. Atzerriko mintzairak entzun ditu, mundu guztiko marinelak ezagutu. Eta ikasi du, sorterria ez bezala, aberria aukeratu egiten dela. Utzidazue, Portuko-plakeko lau kopla irakurtzen.

*Aitortzen dizut portua dela
Nire aberri bakarra
Aitortzen dizut portua dela
Nire aberri bakarra
Hantxe daukat nik lastre handian
Oroitzapenen gabarra*

*Baforearen tximinietan
Ez da izozten elurrik
Baforearen tximinietan
Ez da izozten elurrik
Portu batean jaioak ez du
Bide berrien beldurrik*

*Munduak ongi daki naizela
Euskaldun seme jatorra
Munduak ongi daki naizela
Euskaldun seme jatorra
Txipreko ontzi baten banderaz
Egina daukat atorra*

*Zazpi bandera zazpi mintzaje
Nire aberri bakarra
Zazpi itsaso zazpi zohardi
Nire aberri nabarra
Portuak beti digu amore
Kaian urtzen da aparra*

Jose Luis Otamendik lurra nahi du bere minarentzat, bere maitetasunarentzat. Eguneroko bizitzaren nahiak eta ezinak kokatu egin ditu, lur bat eskaini dio minari, bizi nahiaren eta bizi ezinaren arteko talka kotidianoari.

Koldo Izagirrek portua jarri dio lurrari, mundura ateratzeko, eta mundua lurrera etortzeko. Hemen egonik nonahi egotea dagoela ari zaigu esaten.

Iñigo Aranbarriren harriak, berriz, lauhazka doaz, ibili dabilta, eta hartara ez zaie goroldiorik lotzen. Hizkuntza bakoitzean modu diferentziaz agertzen den ideia da, dabilen harriarena. Horixe da ingelesezko *rolling stone*. Eta ideia hori aintzat hartuta abiatu da idazlea kanpora. Mundua ikusi nahi du, bestelako lekuetan bilatu maitetasuna, bestelako euskalduntasun bat irudikatu. Eta aldatuta itzuli sorterrira. Eta liburu zoragarri bat idatzi du, *Harrien lauhazka*. Luzea da, eta aspertzen hasiak izango zarete honezkero, baina ezin dut jarraitu poema hau irakurri gabe. Holako poemak irakurrita, ez da hain gorrotagarria euskalduna izatea. Nire eskualtasunaz bi hitz:

Ni ez naiz Astiz kapitaina
Nigatik harrotu badituzue ere etxe guztiak errudun xerka
Ni ez naiz Harguindeguy jenerala
Nigatik ekarri badituzue ere hizpidera
munduko deserriratuak
Nire eskuek ez dute pikanarik oratu
Nire begiek ez dute irteteko agindurik eman
Ez dute aginterik, ez dute zuzentzaren iparririk
Eta sinetsidazue, ez diot aberriari atzerik eman nahi
Baina ez naiz Harguindeguy atxiloketa patrullak
Buenos Airesko etorbide hutsetara bidaltzen
Zaldi aldarraien belaze behinola
Astiz zuena da Harguindeguy jenerala zuena da
Hamaika aldiz kontatu badiet neuk ere maite ditudanei
Badela neuri ere etxean kontatu bezala neuri ere
Gorde bezala eskuz esku ahopean babes emandako
Lurren eder bat itsasoaz bestalde
Inoiz nahi dugunean ahal dugunean
Urrats lasaituz itzultzeko inoiz
Hil edo bizirik ostera ere gozo
Ezti jasoko gaituen lurren ttiki bat
Baina ez esan zuetar bat naizenik, galdua betirako
Nire aberriak ez du itsas gainean irristatzen den
hegazkinik
Esan ahoz aho hegazkinik ez izateagatik galdu ditugula
Beti galdu beharrekoak hamaika euzkadi eder
Nire aberriak ez du Mekanika Eskolarik armadarentzat
Ez du atxiloketa agindurik ez du argindar kablerik

Nire aberria traidore da, ihesi dabil
 Ez du Belgrano 1144ko euskal etxean atsedetik hartzen
 Urteak dira ez naizela aberkideen mahaietara eseri
 Horregatik, ez esan ni ere Harguindeguy izan naitekeenik
 Nire aberria urpean bizi da, ez daki igeri
 Hogei milatik gora dago nire aberritik lehorra
 Arrotz ditudan milaka aberkide ditudanak arrotz
 Valeryren itsas hilarrietarik habitatuena
 Izan ginenaren itzal, inoiz izanbakoaren geriza
 Etorkizuneko umekiak ozeanoetan azalera ezin
 Alferrik da, nire begiek ez dute itsasargirik biltzen
 Eta aberkide arrotzak ditut lagun erorian
 Horrela da, nire aberriak zailak ditu koordenadak
 Horra gure lurraldearen argazkirik gozoena hemen
 Urak ez dira gozoak beltz dira
 Gaez botatzen gaituzte beti
 Iluntasuna dardarka jartzen duen
 helikoptero hegalean hotsa
 Eta uren astintze urduria gero, oihuak
 Norbaiten birao bat
 Marrazoen itzalak eta isiltasuna
 Ez nazazue zuen biktima zerrendetan oroitu
 Ez dut eskualdun izan nahi Astiz zen eskualduna
 Harguindeguy jenerala zen eskualduna
 Segi ezazue euren bila arren
 Haiek ez dira gorrotoaren etxaldeetan bizi
 Ez itzazue inoiz ere zeuen memoriatik egotz

Iñigo Aranbarrik bestelako euskaltasun bat nahi du berarentzat, baina baita besterentzat ere. Bere aberriaren koordenadak ematen dizkigu, irakurleak erabaki dezan bere aberriaren koordenadak bat datozen idazlearenarekin. Baina koordenada horiek maitetasunaren koordenadak dira, maite duen, eta gorroto duen mundua erakusten digu, bakardade, susmo beltz, beldur, edo azkenak izatearen izu eta guzti.

Dabilen harria da euskal poesia, eta honen erakusgarri ekarri nahi izan ditut hona hiru idazle, hiru liburu, hiru errealitate poetiko. Hiru errealitate poetiko, hiru iruditeria aberats, maitetasun bakarraren koordenadetan.

Baina dena ez da urre, eta ez dut, behin honaino etorrita, nire kezka obsesi-boetako bat azaldu gabe alde egin nahi.

Hemen aipatu ditudan poemetan, eta zer esanik ez hiru liburuetan, irakurle-

ak ulertzen ez dituen hitzekin eginen du topo. Normala da, pentsa lezake norbaitek, eta bai, normala da. Baina zer erakusten du horrek, ezer erakusten badu behintzat?

Literaturaz ari garela, hizkuntzaz ere ari gara, ezinbestean. Iruditeria, hitz bakoitzaren zuztarretatik elikatzen da. Ez dakit nola esan. Maitetasuna zen nik etxean entzuten nuena, eta ez maitasuna. Antzekoak dira, eta denborarekin lortu dut maitasuna eta maitetasuna sentimendu bera adierazteko bi hitz direla ikustea, baina hala ere, diferenteak dituzte zuztarrak, eta diferenteak dira iradokitzen dituzten iruditeriak. Esate baterako, nik ez nuke inoiz esango maitetasuna egin, eta bai aldiz maitasuna egin.

Gero eta konbentzituago nago: sinonimoak ez dira existitzen. Esaten den hitz bakoitzak bere zuztarrak ditu, bere ñabardurak, eta horixe da bere izateko arrazoia. Trukagarriak balira, sinonimoak existituko balira, hitz bakarra erabiltzera joko genuke. Baina ez da hori gertatzen. Batek maitetasuna erabiltzen du, besteak maitasuna, besteak amodioa. Bakoitzak bere zuztarrak ditu, bere tradizioa, eta hitz bat aukeratzen denean tradizio bat aukeratzen da, eta tradizio bat aukeratzen denean, iruditeria oso bat, mundu bat.

Aspertzeraino errepikatzen da euskara oso hizkuntza zaharra dela, erroak non dituen ez dakiguna, eta hori dela gure altxorra, hori dela gure ondarea. Eta egia izango da, baina ez da inportantea.

Inportantea hau da: euskara batua 1968an egituratu zen, eta beraz, orain darabilgun euskara honek, ez dauka 40 urte ere. Zer dira 40 urte hizkuntza batentzat? Orain darabilgun euskara hau jaioberria da, eta edozein jaioberri bezala, zaindu eta elikatu egin behar da, bizitzarako armak hartzearen.

Horregatik, gure iruditeriaz ari garela, gure hizkuntzaren estetikaz arduratu beharko genuke lehendabizi, nola sentitzen dugun hitz bakoitza, zer esaten digun eta zer ez, zertarako balio digun, eta hori, jaun-andreok, ez dakit zenbateraino egiten den. Ez dakit euskara hainbeste maite duen jende horrek zergatik ez duen euskara gehiago sentitzen. Beldur naiz ez ote den iritsiko, esaten ditudan hitzak hiztegieta ehortzi zirela ikusiko dudana eguna, eta orduan, ene bakardade linguistikoarekin bandera bat egin, eta inkomunitate bateko biztanle bakarra naitzela sentituko dut.

Eta neuk bakarrik ulertuko ditut lurrari, urari, harriari emandako izenak. Ez ahal da hala izango.

Mila esker guztioi.

